

Joxe Manuel Estonba

IZARTXO

(Bigarren gizaldiko ele-zarra)

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Izartxo*, Estonba'tar Joxe Manuel. Kuliska
Sorta, 1959.

<http://klasikoak.armiarma.com>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=401>

IZARTXO

(Bigarren gizaldiko ele-zarra)

I EZKURRETAN

Izartxo basora doa, argi-xirrintaz apustu, bere anaitxo Xinko ta Xanko'ren lagun.

Ke urdiña ageri da, beko etxe beltz guzietatik gora. Ollarren kukurruku alaiak eldu dira belarrieta-
ra,... eta etxeko-andreen purra-purra biziak,... eta arraitzen zirri-zarra gozoa,... eta gurdien juin-juin luzea...

Orbel-usaya dario basoak, iratze-usaya...

Ez du, oraindik, erabat argitu, ta Eguzki begira dago nexka pertxenta. Ez nai asi lanean lenago, iñun-
dik ere!

Odolduxe da sorkaldeko sauri-ondoa. Asi da gorri-
tzen Larrun'go tontorra. Eta ona nun altxatzen dan
polliki-polliki urrezko bola gorria.

Eta lenengo argi-izpiak ikusi orduko, besoak eta burua apalik, makurtzen da nexka, eta jaun Eguzki agurtzen du irutan, itz ok esan bitartean:

«Eguzki jaun ederra...! Zeruan zer berri?... Sorgi-
ñen begia galdu,... gaiztoak kanpora,... onak barne-

ra,... gaztañak eta ezkurak magalera,... sugeak eta piztiak leizera...».

Xinko ta Xanko, bitartean, larrean aron kardulatzaren loreak biltzen. Eta eskuxorta egin duteneko, arizti-egira doaz ariñikietan, eta ango tantai luzeenari itxasten diote gerrian, eguzkiari buruzki. Mari'k 'begizko ta gañerako oker guzietatik gordeko ditula uste bait dute, baldin eta eguzki-lore ok Eguzki, bere semeari, eskeintzen ba-diate.

Eskur-biltze lan atsegiña dute gaur Lizardi'koak. Lizardi baitu izena, Izartxo'ren etxe politikak.

Gaztain-biltzen ari izan dira orain arte. Bizar zutiko morkotsaz gurdiak bete gurdiak usturatu, etxeko garaya bete dute. Neguko jaki goxoa, naiz erre, naiz egozita jateko. Ezkurra ez dute orrela, gaztaina bezela, aletan jatekoa. Opilletan jaten dute ezkurra. Ta opil onen ao-goxokoa! Arto txiki ta garien taloak astel-egunetako utzirik, egun aundienetan erabiltzen dute beste opil berexi au.

Errota-arri berexiaz irindu, ta eztekin naasi, ta sagardoetan busti, ta oreka egiñik errautsetan erretzen dute polliki-polliki.

Opil goxook gaztaiñak baño gogozkoagoak izan Izartxo'k ba, ta ezkur gizen ayek biltzen asia da, zintzo aski.

Nexkak aga luzearekin aritz-adarrak makillatzen ditu, ta mutikoek biltzeari ekiten diote, azpian, alai.

Inguruko gaztaiñen adaburuak gorritzen asiak egon arren, aritzak musker ageri dira oraindik, ostoak mardul eta ezkurak gogor.

Ez du, ala ere, gerorako utzi nai Izartxo'k lan ori. Oroit da ondo, oroit aatikan, igaz gertatu zitzayona.

* * *

Gaztain, intxaur eta urrak muskiltzen naiko lan, gerorako utzia zun nexkak ezkurren biltzea. Egoaizeak jotzen zun gogor, egun ayetan. Eta amar egu-netara luzatuz adarra, baso guzia gorritzen ari zun. Orbelak aldetan eta adaburuak kantetan, poz-esnetan zegoan gure nexka, aritz-iñarrosterik etzula aurtengogan izango ta.

Alako illunar batean, ordurarte ez entzundako aize-bolada sumatu zun, goiko arizti zabalean. Zeruko odei guziak bat-batean lurrera jausi lirakoen antzekoa sumatu.

Sorgin-usaya zerion, orduko, larreak, eta etzan basora ausartu, sorgiñen batek bertan eramango zulako bildurrez. Gau arek, gañera, beste gauak baño sorgintsuagoa zirudian. Moxoluen ujujuaz batera, sekulako ots nabarmenak entzun bait ziran uuu ta aaa.

Oyea kixkur-kixkur egiñik, etzun nai orduko egun-sentia sumatu. Altxa zan, ba, bereala, ta basora abiatu, zer eta nola eta nundik izan ote liteken gaueko ixtillu ura.

Eta ariztira ondoratu ala, egazti-aldrak ikusten ditu aritz batetik bestera egal motxetan. Iritxi da zugaztira, sartu da, noizbat, barrura; ta ona nun berri-tzen zayon barteko zalaparta; berritzen, aunditzen, luzatzen. Jaso gora begiak eta... Ene Andre Mari maitia! Zer da au! Zeru guzia, gora ta bera birundan ari diran, egazti-saillez beltz-beltz.

Eta begi aurreko aundi ta berexi artaz arri-arriturik txaloka asten da nexka, ta usoak izaturik gora egal egiten, eta egoaldea artzen danak, txilio ta txilio. Egaztiak iges egin bada, ta bera jeisten ditu gazteak bere bi begiak, laster bildu bear ditun ezkurretara. Eta: Ene bada ta ni! Zer da au? Sorgiñezko egaztiak!

Orratx nere ezkur guziak iretsi! Zerekin egin bear ditut nik orain ortzeguneko opillak?».

* * *

Orregatik, geyago nekatu bear badu ere, goizago asi da aurten nexka zintzoa.

Ariztiaren ederra! Ezkurdiaren joria! Pipa antzeko azal uts gutxi ageri dute aritz mardulak. (Basurdeak oraindik agertu ez diralako santzu ziurra). Ez dira oraindik ustu. Eta ñir-ñir dagite ezkur-buruak eguzkitan igerika, kozkaz ertzetutako osto tartetik.

Eta agayaz astindutakoan, goitik bera datoz, kiskikaska adar-ostoetan joaz; eta beko goroldizko oge biguñean goxoki sartzen dira.

Azpiko Xinko ta Xanko'k buru gañean artzen dituzte maiz ezkur-eurien tanta lodiak, eta parrari ekiten diote alako bakoitzean, aserretu bearrean; eta kaske-teko guziak banan-banan zenbatzen, nork geyago artu, apustu barregarrian.

Ba dira buruan jotzen dituztenak baño okerragoak, orbel ustel, iratz busti ta ote tartean gordetzen diranak.

Otartxoa betez eta otartxoa irauliz aspertu bañan, inguruko baxakaranetara doaz zalapartari.

Baxakaran urdiñez bete-beterik ditu elorriak adar biurriak; eta mutikoak, bata bestearen ondotik, aorazten ari dira ale txikiak, ta begitartea pixka bat zimurturik, kaxka-kaxka oskatzen.

Ez luzaro. Sumatu ditu Izartxo'k, eta beregana deitzen ditu berriro, xamur-xamur esanaz: «Atozte, atozte, gixagaxuoik! Txintxo ba-zabiltzate, nik erakutsiko dizuet zuei bai, basondoko makatza goxoa».

Lengo lekuratu dira umeak, makatz guri erdi-ustel goxoen usaira, ta gogotsu biurtu. Ezkur-bikotea belarri bakoitzean eta bestea aoan, ixil eta txintxo ari dira, une luzean.

Irrintzi luzeak entzuten dira, noizik bein, mendi gañetik eta beko sakonetik. Artzai eta segalarien ojuak. Eta irrintzien artean zintzarri kalaxken ots motela, eta segalarien zirrist-zarrast neurtuak. Eta ok danak alayago biurtzen Lizardi'ko gazteen lana.

II

SORGIÑAK DIRALA TA

Iru gurdi bete ta otordu. Iretsi bi arrauts, ta ezku-
rretara berriz ere, gazta-zatia koskatuz. Zerri gosetia
ez ain gogotsu, agindutako makatz goxo arek susper-
tzen bait ditu.

Mukuratu, ala, beste bi gurdi, ta makatzetara.
Zugaitz gañean ari da Xanko, basollarraren antzera
moko emen, moko or. Xipo'k, bitartean, lurreko ustel-
duago ta goxoagoak aoan urtutzen ditu, atsegin aski.

Eta, ala, belar guzietan miatzen ari dan mutil ardu-
ratsuak triku bat aurkitu, iñar tartean. Gaztain mor-
kots antzekoak, beregain bilduak zitun burua eta
ankak, eta larru latza bizar zuti gogorrez jantzia. Orre-
lako morkots aundirik iñoiz ere ikusi ez eta Xipo, iñun-
dikoen alai, berarekin jostatzen.

Artzen du, gero, arrikozkor bat, eta an asten zayo
jo ta jo, ale aundiak noiz jalkiko begira. Aleen orde-
z, piztiak burua agertu, eta... Xipo'ren ojua! Ez baitzun
orrelako piztirik iñoiz ere ikusi.

Aren ojuetara Izartxo etorri ta «Ene bada ta ni!
Triku bat duk eta... ».

-Pizti bat al zan bada au?

-Eta piztirik ongarrienetakoena.

-Ta zergatik sartzen ditu bada zorroan bere anka-buruak, eta gaztain-morkotsen antza artzen?

-Ori?... Sorgin gaiztoei iruzur egiteko.

-Zergatik du, ba, sorgiñen bildur?

-Aren etsai aundienetakoa dalako. Sorgin gaizkille oyek gauez bakarrik ibiltzen dituk agerian. Egunez lo egiten ditek leize-zoloetan. Egunez ere gaizki egiten jarraitu nai madarikatu ayek, beren mulko naskagarria zabaltzen ditek gure larreetan barnera: eta muskerak, eta zapoak, eta sugeak, eta...

-Sorgiñen umeak al dira oyek?

-Bai zera! Sorgiñen mandatari setatiak dituk, ez umeak.

-Eta trikuak eta sorgiñen mandatari oyek zer?

-Ba, trikuak larreko pizti txar guzi oyek jaten dizkikela.

-Bai? Eta ez al dio sugeak iges egiten?

-Bai zera... Ortarako trikua geldi-geldi egoten duk gaztain-morkotza bai-litzan, eta pizti oyek ondoan ditunean, rau... jausten duk ayen gañera, eta bere bizar gogor oyek erroetaraño sartzen dizkie.

-Ene...!

-Eta gero,... erdi il ditunean, bere burutxo atera ta kiski-kaska jan.

-Ederki egiña! Aski zuten ez etortzea.

-Utzi zak, ba, pakean triku gaxo ori, inguruko suge ta muskerren zizta gaiztoetik gorde gaitzan.

-Eta zergatik dira pizti batzu ongille, ta beste batzu, aldiz, gaizkille?

-Ba... batzuk Eguzkiaren mandatari diralako, ta besteak Odeyenak.

-Ene...

-Ez al duk, iñoiz, Mari Urraka'nik entzun?

-Mari Urraka'nik...? Orain urte bi, trumoi ta tximisten artean, Anboto'tik Txurumuru'ren gañera etorri zala ta...

-Bai, alaxe duk. Zazpi urtetik zazpi urtera, Anboto'tik Txurumuru'ra eta Txurumuru'tik Anboto'ra aldatzen duk, aldean doalarik ere bere ardatzari utzi gabe.

-Eta zer iruten du, bada?

-Argi-izpizko kirrua zerabillek eskuetan, eta izar eta ortzadarrak iruten dizkik berearekin.

-Ene...

-Ba... Mari'k bi seme izan zizkan: Ortzi ta Odei, lenengoa ona ta bestea gaiztoa. Ortzi'k eta Odei'ek

berebat seme-alabak izan zituzten. Ortzi'k munduan diran izate on guziak, eta Odei'ek munduan agertu diran gauz oker guziak. Eta Ortzi'ren ondorengo aundienak Eguzki ta Illargia, Odei'enak Trumoi ta Tximista. Ortzi'ren izate zintzoenak lizarra ta elorria, Odei'enak sorgin eta basajauna.

-Oyetako nork eragin zidan, orduan, lengoan agiñetako min bizi ura?

-Ori... ba... nun ibilli intzan egun ortan?

-Ni...? Arditan ba...

-Ta zer egin uan an?

-Ba egun guzia, etzanda jarrita egon.

-Ba, orduan ago-zabalik lo betean engoela, zapo edo sugetzar batek bere ats pozoitua jaurtiko zikan aora, ta gero artaz ustelduko zitzaikan agin txiki ori.

-Eta pizti oyek ere alderdi txarrekoak al dira?

-Bai, enetxo... eta sorgiñen mutilletako zintzoenak dituk.

-Eta, nor da aundiago Ortzi ala Odei?

-Bakoitzak bere salletan agintzen dik: Ortzi'k onetan eta Odei'ek okerretan. Ortzi'k argia ta euria ta intza ta uztak eta abereak eta lagunak eta... gauz on guziak ekartzen zizkiguk.

-Eta Odei'ek?

-Odei'ek ba... oker guziak: trumoiak eta tximistak eta kaskabarrak eta arria eta izotzak eta gaitzak eta izurriak eta zoritxar guziak.

-Eta gu norenak gera, Ortzi'renak ala Odei'enak?

-Ba... onak ba-gera Ortzi'renak, eta gaiztoak ba-gera Odeienak.

-Ba... arditan ibilli nintzan egun artan aski ona izan nintzan ba, eta ala ta guztiz ere, zapoak ats gaiztoa jaurti zidan aora...!

-Nik aurreko ortzegunean emandako triku-ortz ura lepotik zintzillik al uan ba?

-Ez bada; etxean aantzi...!

-Ara or, bada...! Odei ta aren alaba sorgiñen okerretik aldeegiteko, Ortzi'ren kutunak gerekin eraman bear dizkiau beti. Jartzen al duk, jartzen lepoan, agudo, triku-ortz ori?

-Izartxo, kenduko al dizkiot triku oneri bere ortz guziak, etxeraño billa joan ez nadin?

-Utzi zak pizti gaxo ori, bere bizi onuragarrian. Nork garbituko dizkik bestela baso ontako zapo, suge, musker, xagu ta gañerago pizti ta xomorro gaizkille guziak?

-Aa...! Izan ere! Etxera noa laisterka batean... ta emen naiz bereala nere kutunakin.

-Ez, ez duk etxeraño joan bearrik. To nere besoe-tako kutuna, naikoa diat nik oraingoz lepoan darama-dan beste eder onekin. Eta etzakela geyago aantzi gero, etxeko triku-ortz kutun ura!!! Aitu duk, Xipo?

-Bai, Izartxo, bai. Ez dut agiñetako miñakin egon nai geyago!!!

* * *

Bitartean eguna aurrera, ta eguzkia itxasberan sartzeko unean.

Izartxo, orduan, ainbeste bildurtzen zun illuna ba-zetorrela ta, eguzkiaren azken-printzak itxasoan zegi-ten urrezko uztayari adi-adi: «Agur nere Eguzki Aman-dreal -ojuka asten- Gaur alaitu nauzu ederki, Eguzki; etorri biar ere, berriz ere alaitu nadin».

Eta gero, makatzaren gañean iputzuloraño ase-tzen ari dan anaitxori buruz: «Jetxi adi, Xanko; sorgin-usaya zabaltzen asia duk eta».

Bildu ditu, azkenez, ezkurrez erdi betetako saski-txoak, ustutzen ditu, gero, zokogune batean, eta orbel eta arbataz estaltzen, basurdeen bildur, aitak urren-go egunean gurdira ditzan, eta... etxera asi da bere bi

anaitxoekin, etxera arin, bidean sorgiñik topa ez dezan.

III

ERKO

Bide bera artatik, ain zuzen ere, Erko, mutil lerdena zetorren. Eta neskatxarekin topo egiñik, agur-bideztat edo, onela asten zayo mutilla, emeki:

-Nora, orren agudo, Izartxo?

-Etxe-aldera, mutil. Ama, gaugero begira izango diat eta.

-Zer ditun or... ezkurak?

-Bai, artan ibilliak gaituk egun guzian.

-Ola, ola... Ez al dakin gure ezkur-opillok, opillarik goxoenentzat dituztela Erroma'ko aundikienak ere?

-Bai... ez duk batere arritzekorik ori... Gure aitona ere ez dik jangai obeagorik...

-Urte guziko uzta egingo uan, orduan, goiko arizti zabal ortan?

-Bai zera! Egun batzuetako lana diau, oraindik.

-Pozik artuko niñuken, orduan, bertan morroi?

-Zergatik ez, bada, tetelo ori!... Galdera ori egitea ere... Etorri, etorri... lenago muskilduko dizkiau bertako aritz ezkurtsuak.

-Goiztxo eldu aiz, aatik, basoan orrenbeste lana utzita.

-Sorgin-usaya asia duk eta ba-dakik...

-Zer ba-dakik?...

-Ez al duk, iñoiz, Mandalin arenik entzun?

-Zer Mandalin...?

-Mandalin... Basajaunak eraman din...!!!

-Nola izan uan, bada, ori?

Ta Izartxo'k ixil-mixilka ta arpegi bildurtiz -...Ba, Mandalin ori urketara gabaz joan bein bai, eta «Eguna egunekoentzat eta gaba gabakoentzat» ojuka Basajaun bat agertu, rau... eskutzarrekin oratu, ta berekin tarrapatan basoen barna eraman neska gaxoa... Uiii!!!

-Eta nolakoa uan Basajaun ori?

-Ba... anka mee ta gorriak zizkin, sabel aundi ta burutzarra. Jendeen tajua ziken danetan. Askozaz aundiago, itxusiago ta bildurgarriagoa bañan. Ene...! Eta orain bertan agertuko ba-litz...!

-No...! Iñoiz ikusi al dun, bada?

-Ikusi, ikusi... nik ez, bañan beste batzuek bai, eta Kikixo'k eta Txorto'k eta Kaiku'k eta...

-Nola dun ori? Gure aitonak zionez, Urdanibia' ko Txori'k ondatu ziñan eta...!!!

-Ondatu...?

-Bai, gaxo bai. Txurumuru'ko zolozarren ondoan, pago bat aizkoraz zatitzen ari omen unan gure Txori ori. Eta ala ari zala Basajaun bat agertu omen zitzaion, atzetik, bat-batean. «Etor nerekin zulora» esan zionan oju ikaragarrian. «Itxoin pixka bat -Txori'k patxaraz- eutsi yok orreri». Ta Basajaunak bi eskuak pago arraillatuan sarta zituneko, rau! ziriak enborratik atera, ta antxe uzten din Basajaun gaxoa karraxika, artezi estutuan josirik.

-Eta ez al zikan gero, Mandalin gaxoa Basajaunaren zulotik atera?

-Zer Mandalin eta Mandalin-ondo! Oik danak txorakeriak ditun, neska.

-Txorakeriak bai...! Obe genin bai...! Izan ere, i Erroma'tik etorri-berri aiz, eta aantzi bide zaizkik emengo guziak. I..., ta ez al zegok an sorgin eta Basajaun eta iratxorik?

Bai, Erko mutil ederra Erroma'tik etorri berria zan. Mutil gaitza zala ta, mutil bikaiña zala ta, tajuzko mutilla zala ta, Erroma'ra eraman zuten Augusto'en zaiko, gazte-gaztetandik. Berrogei zai-mutil zitun Augusto'k, eta danak euskaldunak. Aren ondoan eman bear izaten zituzten gau ta egunak, arekin joan alde guzieta-

ra. Bai, eta gauz eder asko ikasi bide zitun bai mutil martzalak, biziera berexi artan, neskaren ustez.

-Sorgin eta Basajaun eta iratxorik bai al dan an? Neska, orrelako ergelkeriak alde guztietan zabalduak zeuden; ikasi diñat, bañan, ayengandik betiko alde egiten.

-Ene bada, ta nola ori? Nik ere mozorro oyengandik iges egin nai nitek eta...

-Kristau eginda...

-Kiri kiri...

-Kristau, neska!

-Ene...! Ta zer da ori?

-Luze dun, neska, ori esatea, ta ez erraxa, gañera. Azalduko al diñat, ala ere, gabiltzan bitartean, nola kuturtzen asi nintzan artara. An, Erroma'n jayak maiz izaten ditun, ba dakin? Iru egunetik bat bai.

-Oi, zeñen ederki... beti dantzan ibiltzeko...

-Bai zera...! Dantzan...! Anjo jayak ez diton, ez, emengoen antzik.

-Zer egiten ditek egun guzian, dantzan ez ekitekotan ba?

-Zer? Ara! Argitu bezin laster «Anfiteatro» deritzan zeya aundi batera zian jende guzia. Ta an izaten dizkiten era guzietako burrukak.

-Bai. Pizti ta giza-burrukak. Artza zezenakin, basurdea otsoakin eta... batzuetan, gizonek bere artean bestetan, naiz bakarka, naiz sailka, naiz esku-tsik, naiz ezpatakin; eta gizonek piztiekin eta piztiak gizonekin, eta...

-Ene...! Ta illak ere izango dituk, orduan?

-Illik dion? Eun baño geyago il ituan, beingo batean.

-Ene... Jostatzen ari... ta alkar il?...

-Bai, enetxo, bai!

-Eta zenbat irauten dik jai dalako orrek?

-Eguzkitik eguzkira.

-Ta jan?

-Dana bertan.

-Ez duk andrerik joango jai ortara?

-Ez zera! Gizonen ainbat. Eta beurek ditun beroenen burrukalariak axatzen. -Ene, ene...!!!

-Tira, noan, bañan, lenengo kristauak nola ezagutu ñizkiñan, esatera... Presondegiko okerrak bertan urkatu bearrean «Anfiteatrora» zekarztenen askotan; eta an piztizarretara botatzen, eskuan ezpata edo ta azta-makilla. Gizona erortzen uan, batzuetan, lenengo; piztia bestetzuetan. Beste pizti berri bat ekartzen zioten, olakoetan, gizon garailleari, pizti berriak beti

gizon aunatuari, sauriz beterik eta odolez uzturik, lurrera jausten zan artio.

-Bai ankerrak! Eta ez al zien iñoiz bizirik barkatzen?

-Bai, iñoiz bai. Gizonaren kemen eta tankerak danak xuxperten zituztenean. Au, bañan, oso gutxitan izaten unan. Or bada, kristau izeneko gizon batzuek, munduan direneko gizonik okerrenak bezela, piztitarretara ekartzen asi itunan. Eta asko ekartzen gero!, era ta adin guzietakoak ekartzen, eta umeak, eta andreak eta agureak, eta gizon egiñak, eta... ekartzen.

-Umetxo gaxoek ere piztietara...??? Zer gaiztakeri egin zezakek umetxo batek ba...!!!

-Ori bera esaten niñan nik nere barruko. Asi niñun, ba, galde oneri, galde orreri: zer erako jendea ziteken jende ura... Eta iñork gauz garbirik esaten ez. Ala, Iñaxio izeneko larogeitsuko agurea kristautzat salatu, ta agintariengana deitu. Ta agintariak zorrotz aski:

-1 ere, kristau madarikatu oyetakorik al aiz?

-Bai, -Iñaxio'k-. Ala izan naiz orain arte, eta ala jarraitzeko asmoa dut, emendik aurrera ere.

-Utzi itzak txaldankeri oyek, eta ukatu ezak astoburuko Kristo ori!

-Nola ukatu...??? Larogei ta lau urte oetan, Aren lanetan eta maitean ari izan nauzu, eta ez dit, iñoiz ere, iñungo gaitzik egin. Zergatik ukatu bear dut, ba, nik orain!!!

-Ezak, bedenik, ire ille urdin oyen kupida!

-Kupida...? Orregatik, ba; nere buruaren kupida dudalako diot ori. Izan ere, orain naiz nere bizi guziko zoriontsuenen. Orain emen, espetxe ontan, asi bait-naiz Aren egiazko jarraitzalle zintzo izaten.

-Kontuz ibilli gero! Begira or, inguru ortan, illenti ta burnizko orraziak.

-Txingi, ilintxa, labain, mallu, ezpata, orrazi ta aizkorak: betoz danak, betoz, ordu onean, inpernuko gaitz guziak, baloin eta, oyen bidez, Kristo nere Jauna geyago maite izan al ba-dut.

-Ez nauk gezurretan ari, gero!

-Aragiak karrakatzea, zañak biurritzea, ezurak mamitzea, gorputz guzia purrakatzea, ta txingarretan polliki-poiliki kiskaltzea: danak jasatzeko prest nauzu, orain bertan.

-Ez duk oyen bildurrik? Piztitzarretara oa biar bertan. Joango zaizkik an bai, ire arrokeri oyek!

-Piztitzarretara diozu? Ederki! Kristo'ren garaia bait-naiz, piztitzarren agiñetan eyo bearra nauzu. Aren irin zuria biurtu, ta opari ona egin nadin.

-Irin zuria, opari ona...! Piztitzarren sabeleko opil beltza biurtuko aiz laster.

-Obe! Ez diot, orrela, nere gorputza jaso ta eortzitzeko lanik iñori emango. Ez baitut nekagarri izan nai iñorentzat.

-Leoyaren sabelean izango duk ik, ire illobi egokia.

-Nunbait bear da, berdin zait, nere gorputza, artan utzi, baldin eta nere arima gaxo au zeruetara dedin.

-Gizonaren arrigarria...! -zesan Izartxo'k itz total-ka-. Ta zer egin ziken urrengo goizean?

-Urrengo egunekoa aundiagoa izan unan -eratsiki zuan Erko'k-. Iñoiz baño jendetza geyago bildu unan, agure arrigarri aren eriotza ikusteko. Gutxitan oi zin, bañan egun artan, Augusto bera arri unan jaiburu. Ni ere an niñun, aren ondoan, eta obeto ikustearren, batera ta bestera nerabilen burua. Neska gazte bat jarri ziten, lenengo, gure aurkez-aurke. Eta nik aldameneko bateri: au ere kristaua dalako, gaitzetsitzen al ditek?

-Bai, gezurra zirudik e...! baño au ere talde mada-rikatu artakoa duk, nunbait.

-Ire antzik ba-ziñan neskats arek, Izartxo.

-Bai ote...?

-Bai...! Ik bezelako begi ederrak zizkiñan, ik bezelako gorputzkera liraña... Bai, i bezelako neska gazte ta ederra unan.

-Ta aizak! zer izena zikan?

-Ageda.

-Ageda... Ageda...

-Ageda, bai... ta borreruak bakarrik utzi ziñatenan bezin laster, belauniko erori unan, ondar gañean, eskuak bularrera ta burua zerura. Zezen basati bat bota ziñatenan neska gaxoari. Ta asitako Aitaren bukatu izan al baño lenago, or oratzen, din adarrakin, eta tira-bira lurrean ibilli ondoren, aidetara botatzen. Auspezka erori unan gazte errukarria, dana ondaturik. Eta gal-gal darion odolari jaramonik egin gabe, belau-niko jartzen dun berriro, eta urratutako jantziak biltzen dizkin lotsor, eta arrotutako illeak orrazten. Goiko Jaunarenean, txukun eta eder agertu nai izan bait-lun, Izartxo. Jende guzia ixil-ixillik gelditu unan, eta ni iñun-goien kezkatu; ta an bertan, Ageda'ren gorputz santuari begira, iñorekin iñoiz ezkontzekotan, aren antzeko neskarekin ezkonduko nintzala bakarrik, zin beroa egin niñan, Izartxo, zin sendoa egin ere...

Itz ok esan ondoren, ixilgunea izan zan. Eta une bat geroxeago, Izarxo'k gorri-gorri:

-I... ta zer egin ziten Iñaxio arekin...?

-A, bai...! Aantzi egin zitzaidanan, iya, neska. Age-da'ren ondoren, Iñaxio agurgarria zein erdira ekarri zitenan. Eta ibil bitartean, gizonak eta andreak eta umeak ondoratzen zitzaizkiotenan, eta belauniko erortzen; eta agureak igarotzean danak ezti bedeinkatzen zizkinen.

-Oi! an ez egotea... esku agurgarri ayek muxukatzeke, bederen...!

-Agintariak adarra jo, ta ondar-uztaya ostu; dana bat. Iñaxio bakarra gelditu unan uztai erdian, bi eskuak gora, otoizka: Barkatu iezu, Jauna, ez baitakite gaxo oik, zer egiten ari diran ere.

Ala, leoi izugarri batek jauzi egiten din ondartz erdira. Agure otoiztia ikustean ordea, bat-batean laistera geldirik, polliki-polliki ondoratzen zayo, eta aren esku gantzutuak milikatzen asten zaizkio, jende guzia orroka jarri unan, an ikusten ari zana ariturik; eta asko Augusto'rengana joan itunan, agurearentzako barkamena eskeka.

Erregu ayek entzutzean, aserretzen dun, bañan, agurea. ta bere lagunei ojuka asten «Egiz maite ba-

nauzute, utzi neri emen bertan iltzen. Orrela bakarrik, izango bait naiz Kristo'ren antzeko, guztiz. Eta ez arduratu leoi onengatik, berak jan nai ez ba-nau, nik zirikatuko dut, nik beartuko.»

Esan eta egin. Or asten zain, bereala, piztia axatzen eta jotzen. Eta piztiak... leen baño legunago milikatzen, jotzen ari daten esku ayek.

Ezin zezakela ala deus egin, eta lurrera jausten dun, berriro, agurea otoizka: «Kupida zaitez, Jauna, zure morroi gixagaxo onetaz! Jauna, beti oso ona izan zera nerekin, eta ez nauzu iñoiz deus ere ukatu. Arren, Jauna, ez bezadaizu nere azkeneko eskari au ukatu: gaur bertan Zurekin zeruan nai dut, Jauna».

Itz ok, doi-doi eman da, or asten dun lengo leoi ezi ura orroka, ta illeak lazten, eta aotzarra zabaltzen... eta ala, agure agurgarriaren gañean jauzten dun bat-batean... eta krak-krak erdiragarrietan dan-dana jaten din.

-Oi, oi...!!! Iñaxio gaxoa! -zion Izartxo'k, erdi-negarrez.

-Ezin dituk, kristau ok, giza txarrak izan, asi niñun nerekiko. Gorrotoz, gorrotoz bakarrik eraman dizkitek eriotzera. Egizkoa izan bear dik, izan, orrelako biziera ta eriotz arrigarriak eragiten ditun Jaungoikoa... Eta

ayengana jo nian, arrezkeroz. Eta ayen egiak siñisten asi niñuan, eta ayen ikurtonak artzen, eta ayen bizike-
ra neretzen...

* * *

Bikote itz-ontziaren pauso nagiz asperturik, Xinko ta Xanko'k aurea artu, ta Lizardi'ko atarin orduko. Noizbait bear da, iritxi dira aundiak ere. Illun zegoan orduko, zearo... ta auxen arriagarria: Izartxo'k sorgin-usairik sumatzen ez iñun... Aitzitik ere zerasan bereki-ko: «Egi da bai, iñolaz ere egi, Kristo'ren izen eder onek sorgin guziak uxatzen ditala... Ta Erko'ren jatorra, gero, Erko'ren martzala...!».

Mutilla, bitartean, aruntzago zegoan Urgoiti'ren bidean, gogo-ernari: «Izartxo'ren xaloa, Izartxo'ren xumea!... Eta kristau zintzoa izateko neska ederrak dun azal ona. Bere sorginkeri oyek kendu ta Jauna'ren goi-eskarra ekarri al baldin baniozken, euskaldun Ageda zoriontsua nizuteke gazte maite-mindu onek...

IV IZARTXO

Beste egun batzuk egin zitun Izartxo'k ezkurretan. Berariz edo ala bearrez, Erko andik igarotzen zan maiz. Eta alakoetan, Izartxo, aren itxurak erabat itxulusturik bait zeukan, zirikatzen asten zitzayon, eta itz xamurrez laguntzera etortzeko esaten.

Eta Erko, zeraman bidea bertan utzirik, aritz gañetara igotzen zan pizkor; eta bi edo iru astiñaldietan adaburu guzia muskiltzen, bat eta bi, aritz guziak muskiltzen. Eta saskiak eta gurdiak bete ondoren, zugaitz-ondoan exeri, ta neskarekin txutxupurtxuka, illundu arte eguna luzatzen. Galtzen asia bait-zuan Izartxo'k lengo sorgiñen biidur ura...

Alakoetan, mutillak neskari maiz «polita» esaten, eta itz onek artega jarri du gure neska tolesgabea. Ez bait-zitzayon, ordurarte, orrelako gauzik gogoratu ere. Egia ote zan ba, orren polita zanik bera...!

Eta neska sotillak ispillurik ez, ta ur gardenetan begiratzen asi zun bere burua. Zirkin-zarkin zegiten uretan astal luze biribillak, eta gerri meak, eta arpegi xaloak, eta buruko adats ugariak...

Zutitzen zan, makurtzen zan, obeto ikusi nayan... eta alperrik beti... Etzun ezer berexgarririk ikusten. Beste neska guzien antzekoa zirudian bere buruari.

Egia ote zan ba, orren polita zanik? Etzerudian berari... bañan Erko'k zionean, ala izango zan, noski; ez bait-zuan mutillak gezurrik esaten.

Eta ala, uste ortan errotzen zijoan neska pertxeta. Eta gero ta lerdnago zeraman soin guzia..., ta arpegia alayagoa..., ta buruko zapiaren korapilloa txukunagoa...

Etzan, ordurarte, bere izen Izartxoaz ere oartu. Bai, oitua zegoan, txikitatik, zerura begiratzen. Izan ere, artara bakarrik begira zezakean, iñungoen bildurrik gabe. Sorginduak bait-zeuden beste gauz guziak:... eta basoak basajaunakin, ibayak lamiñakin, zuloak sorgiñakin, itxasoak erensugeakin...

Alakorik ez zeruan. Egunaz eguzki eder ongarriak argitzen zuan, eta gabaz ñir-ñirzko izar txikiak... Eta berak ere Izar izena izaki. Eta... zergatik jarri ote zioten, ba, izen polit ori? Adu ona ekartzen omen izarrak gizonari. Nere izen au ere norbaiteren adu ote? Eta noren? Eta nolako adu ote, txarra ala onekoa?

A...! ta Ageda'ren beste izen polit ura...! A! zeñen atsegin zitzayon Erko'ri izen ura. Eta bere izen Izartxo

ori ere atsegin ote zitzayon mutillari? Egia, askotan «nere Izartxo, nere artizarra ta...» deitzen zion mutil beroak, bañan,... auskalo...! «Sorgiña» ere esaten zion maiz aski,... eta etzitzayon berari itz ori deus ere atsegin. Izan ere, ez bait-zuan berak sorgin galgarri ayekin deus ere nai.

Eta orrela, itz ori entzun bakoitzean, kopeta zimurtzen zuan eta begiak itxitzen, tximist-adarra sumatzean egiten zun bezela. Ala bildurtzeagatik, esango ote zion, ba, itz ori? Ez, ez... Erko mutil ona zan, eta ezin zezakean orrelakorik egin. «Sorgiña» maite-itzez zerabilen, nunbait. Eta berak itz ura entzunaz zegizkin keiñuak, mutillari atsegin zitzaizkion.

Bañan, Ageda'ren antzeko neskarekin ezkonduko zala, esan zidan, lengoan, eta ez bestearekin. Eta tokitan gauden Ageda ura ta Izartxo au ...! Ura kristaua ta ni... ikus or: «sorgiña» Erko'ren esanaz. Ura ederra, lañoa, ona... ta ni...? trakets utsa, amaren iritxiz... Lekutan gauden!

Ala ere, Ageda ta nik alkar antzik bai omen. Erko'k gu biok ondoen ezagutzen, eta berak dionean... zer-bait izango al da. Ta... kristau izate orrena...? Ba... nik ere kristau egin nai dutela, esango diot Erko'ri... berak bezela... Ageda'k bezela... Bai eta berak, Erko'k eraku-

tsiko dit ortarako bidea, pozik erakutsiko ere... Uiii! ta Erko'ren antzeko egite onen gozoa!

* * *

Alako egun batean, Erko'k, berak ba-zekiela erlauntz aundi bateren berri, esan zion neskari, ta ezti-biltzea du, gaur goizean, bikote gazteak. Lengoan ezkur-biltzea, gaur eztiarena. Ez bait-da txantxetakoa, ainbeste ezkur-gurdiekin naasteko bear dan eztia.

Mutillak, aizkora, soka ta azkonar-zagiak berekin. Eta neskak, zerbait bear da, txango luzerako puska legorrak. Bidean jarri diranean, kiñuka ari da oraindik goizeko izarra, ta mutillak neskari:

-Izartxo, ikusten al dun, an goyan, goizeko izarra?

-Baiii...

-Zeñen ederra e?... Eta zer esan nai ote zigun bere geldi gabeko ñir-ñir orrekin?

-Etzekiat, ba, nik...!

-Nik ire antza artzen zionan zerbaiten, ba...!

-Zertan, ba? Nik ez diot, ba, deus ere igartzen...!

-Zertan...? Ik ere, artizarrak bezela, ñir-ñir egiten dunala, ñir-ñir usu ta bizi begiratzen diadan bakoitzean egin.

-Bai ote? Goizeko izarrak bezela?

-Bai, goizeko izarrak bezela. Ta arek gure bidea alaitzen digun bezela, alaitzen eta aunditzen didan nere barru guzia.

-Ainbeste e?... Ixillik ago ergela. -Ta parrari ekin dio neska sorgiñak. Ta gero- I, Iñaxio, -ala deitzen dio bere maiteari, mutillak Erroma'ko berri ayek eman zizkion ezkeroztik.- Aizak Iñaxio... begira... ba-zetorrek eguzkia. Begira Jaizkibel'go tontorrari... berantza zetorrek argi gorria..., larreak eta basoak bertan pizturik.

-Bai, a ze erle-eguna diaun, gaur!

-I, to...! bai al dakik zer iruditzen zaidaken neri?

-Zer?

-Ba... ni artizarra baldin ba-nauk, i nere eguzkia aizela, Erko... eta eguzkiak bezela argitzen didakela nere barruko illuna.

-Zer dion, sorgiña?

Eta Izartxo'k bere bi begi ayek zabal-zabal eta betondoa zimur:

-Sorgiña diok? Oraintxe bertan niak eguzki-loretara, sorgin madarikatu oyek gaurko egun eder au ondatu ez dezaiguten.

Eta bi edo iru lore bildu izan al dituneko, Eguzkia bete-betean sortu da Aldabe'ko mendi gañetik; eta

loreak eskuan ditula makurtzen da apal neska sostorra, eta lengoan ariztian bezela: Agur, Eguzki amandrea...

Eta Erko'k:

-Izartxo, Ageda'k...

-Ageda'k zer?

-Ba, Ageda'k... emen izan balitz, «Aitaren...» egingo luke, ta ez ik egin dunana.

-Bai?... Ai! Ageda! Eta nola da «Aitarengo» ori?

-Ona... «Aitaren...

Eta Izartxo'k bere bi begi aundituak Erko'rengana, itz berak esaten ditu ta keiñu berak egiten, leun eta ozen:

-«Aitaren...

-Eta Semearen...

-Eta Semearen...

-Eta Gogo Gurenaren...

-Eta Gogo Gurenaren...

-Izenean, Amen».

-Izenean, Amen».

V

ARKALE'KO MENDIAN

Festa-usaya zeriten, goiz artan, inguruko ots eta margo guziak: eta bide-bazterreko ur-pol-polak, eta sasien arteko aizearen fir-firak, eta argiak sakoneko uretan zegizkin ñir-ñirak, eta beko errota zarraren tantanak...

Aurrerago, baso aundi batek jaten du bidea. Eta oñak ra-ra orbeletan, eta ra-ra onen alaya! Eguzkiak dantza adaburuetan, eta adaburu ori-gorri oyen polita! Eta azken adarraren puntaren puntan, txantxangorria kanta-kantari...

Erko'k, lurrera eroritako gaztain-ale jalkiak, esku-ratzen ditu, ta ayetik ederrenak Izartxo'ri emanda, biok gaztaiñak kiski-kaska oskatuz dijoaz.

Ta iritxi dira, onenbestez, Arkale'ko arkaitzetara.

Arkale mendi onek bi aldetan zatitzen du Olearso'-ko ibar ederra. Ipar aldera, Irun'go zabaldia Bidasoa'-ko ur urdiñetaraño luzatzen du. Eta egoaldera, Oyarzun'go muñaxkak, Pasai'ko ur maeletan galtzeraño, lerro-lerro pillatzen.

Eta muñaxkak eta zabaldia baso gorriz jantziak, basoak belardi muskerrez, eta belardiak etxe txuriz. Eta ibar zabal-luzeak Jaizkibel eta Txurrumurru-mendiak esi, ezker-eskubi.

Eta auxe du arritzekoena Arkale'ko mendi onek, beste mendi guzien alderantziz, tontordun ditula buruak, eta urteen buruan soildu ta txurituak.

Tarteka-tarteka, goroldi ta untz-motak jazten dute bere larrugorriaren lotsagarria.

Tontorreko arri txuriak milla xulo ta sorgiñezko biurgune dituzte agerian, ura biurriakin jolasian egin-dako lanak baitikbai. Erdi sorgiña bait-da ixurkia. Eta arriakin kukuka jostatzen ari danean, laño, euri, pol-pol, orma, izotz, kaskabar, elur: milla olako izaeretan bere azala aldatzen daki sorgin alderditsuak. Eta jaki-ña, arriak galtzen beti.

Arkaitz tontordun ok, bada, besteak baño zulo aundiago bat Irun aldera. Arkaitza aundia da. Ogei kanaren luzea bai izango du goitik bera. Eta goi-goiko biurgune batean, xulo beltza.

Sartu-atera dabiltz erleak xulo beltzean. Eta goiz-tiro ederra bait-da, mur-murruean doaz gañetik, egal meak eguzkitan dir-dir. Eta... ezti usaya arkaitzak, eta

iratzeak, eta iñarrak, eta loreak... Goi artan, naiko ezia ba-dalakoaren santzu ziurra.

Eta ala bear ere. Eztigai asko bait-ditu ibar loretsuak. Orain bertan ere, udazkeneko egun epel ontan ere, lore-lore ageri dira, bide bazter guzietan, ote oriak eta iñar urdiñak. Eta udaberriko emengo loratza: basoak egiteraño zabaltzen diran gerezi, sagar, aran, makatz eta muxika-ondoak; etxe ondoko erromeru ta ereñotzak; baratzetako lili-ubel, krabelin eta larrosak; zelayetako liño ta lore txuri ta oriak...

Urteetan bizi ziran an erleak. Eta etzuan iñork, oraindik, ayen xuloa arakatu. Goyegi zegoalako ta, dana esan, sorgiñen bildurrez ere bai. Zulo artan, sorgiñak bizi zirala uste bait-zan, eta erleak ayentzat ezti gozoa egiten zutela. Ta esaten ere zan, iñor artaraño ausartu, ta erlea zirikatzen asten ba zan, danak aren gañera eroririk, bertan itorik utziko zutela, ta...

Eta ezeren eta iñoren bildurrik ez duan Erko, asmo artan orain. Galtzen da inguruko baso beltzan, eta tantai luzeenak bereixten asten. Jotzen ditu begiz ametz ederrenak; eta ayetako lau adar luzeenak eba-kitzen ditu.

Eta ondo kimatu ondoren, bizkar gañean arta ta arkaitz ondora, banaka-banaka daramaz. Lodienetik

artzen ditu berak, eta Izartxo'k meegonetik oraturik, eskurakoi laguntzen dio mutillari.

Jartzen ditu, gero, arkaitzaren arrimuan, bi tantai luzeenak, eta gerrian loturik daraman sokakin, bata besteari itsasirik, zurubi gora asi da, sokaz egindako mallaz-malla.

Ta ok bukatutakoan, jetxi bera, ta irugarren tanta-ya darama gora, neskak atzetik bultzatzen dula. Lotu au egindako zurubiari; egin, gero, ori bera besteekin; itsasi malla berriak tantai berriari, eta an goyan dugu gure Erko, goyan xuloaren aurrez-aurre.

Begiratzen du barrura ta:

-Ene, Izartxo, au dun zuloa au! gure sotoa baño aundiago dun da...! ta dana abaraskaz betea.

Neska, orduan, xulo artari buruz zabaldutako siñiskeriaz oroitzen da; ta or asten zayo mutillari karraxika:

-Erko, Erko, jetxi adi ortik agudo... erleak bizirik jango aute, bestela ta...

-Erleak maiteki ibilli ezkeru ez dituen deus egiten, neska...

-Sorgin-erlea duk au, ordea...! bertan bizi diran sorgiñentzat ezta egiten ari dan erlea...!

-Itxoin, itxoin pixka bat... emen, zuloan ez diñat iñungo sorgiñik ikusten, neska!

-Txurumurru'ra joanak izango dituk eta... aaa eta bere etxe au ondatzen ari gerala jakiten ditekenean...

-Ta ori jakitean zer...?

-Bi-biok bizi-bizirik jango gaituztela.

-Ageda'k etziñan ori esango...!

-Aaaa...! ez?

-Ez eta ere egingo, orain egiten ari aizen ori.

Izartxo, elorri-adarrak eskuetan artu, ta goiko zuloari erakusten ari zan.

-Zer egingo ziken, ba?

«Aitaren» egingo zikan, emendik erori ta lepazurra autsi ez dezadanan.

-A...! Bai... «Aitaren...» Au nere buruaren naasia!
Nola jarraitzen dik, Iñaxio?

-«Semearen...»

-Ai! bai... «Semearen... Eta Gogo Gurenaren... Ize-
nean. Amen...». Orratx! Orain, Iñaxio, lasayago niok.

Eta asten da Erko makil luze batekin abaraskak urratzen, eta, belaun gañean dun azkonar-zagia xurrutan betetzen. Aundia dala zagia, baño goiko muturreraño bete, ta bera dator beriarekin, zurubiako mallaz-malla.

-Kontu, gero, Izartxo, orain zionan arriskurik aundiena, eta ez leen.

Izartxo'k zagia bete-beterik, eta Erko oso-osorik, iñungo ziztarik gabe, ikusiz arri-arri egiñik:

-Ene! Ta ez ditek deus egin eta...

-Zer egingo ziñaten, ba...

Ta gora doa berriz ere, beste zagi bat arturik. Neska, bitartean, erleakin izketan:

-Nere erle andere! Ez egin gaitzik, ez neri, ez eta Erko'ri ere. Ez esan, gero, sorgiñei, zertan ari geran. Ez bait-din nere mutillak iñungo gaitzik egingo. Ik gañezka, ta guk exkasia diñagun ezta artu nai din, bakarrik. Etzenala bere esku legun ori ozkatu, ez eta ere bere arpegi eder ori ziztatu. Ene erle andere...!

Erko'ren esetziz, zuloko erle guziak egalka egin, eta inguruan dabilta, iñungoen zalapartari. Eta gero ta ugariago ta zalapartariago ibilli...

Alako batzuk, Izartxo'ren illetan mur-mur naasi... ta neskaren xalto ta karraxiak!

Ta Erko'k gañetik:

-Egon adi geldirik. Ez diten deus ere egingo ta.

Geldirik egon bai...! Eta bere bi eskuak illeetara eramaten ditu, eta anketara, eta... erleak sumatzen ditun alde guzietara. Alako batean, erle bat sartzen

zayo, xaltoan zabaldu zayon, kolkoan. Ango ai ene ta istilluak! Erlea, leku extu artan, gogara ezin egon, eta andik irten naika asi da egalka... Neskaren bat-batean sartutako eskuak galerazten, ordea... ta zizt egiten dio neska gaxoari, bere esku legunean.

Ai! luze bat atera du neskak:

-Orratx azkenean galdu!

-Zergatik, ez aiz, ba, geldirik, egon!

-Jetxi adi, ortik, Erko! Bazetoztek Txurumurru'tik sorgin guziak eta.

Eta neska baño menago, bereala jeixten da Erko, bere bigarren zagia kolkotik zintzillik, eta neskarengana doa laster. Eta ziztatutako esku-gaña bere ezpañaratz, muxu ta muxu ari zayo, muxu ta muxu, eden guzia xurgatuz, ta bere istuz naasirik lurrera botatzen du agin tartetik, gero.

Eta azkenean:

-Orratx! joan zain eden guzia; egon orain lasai. Ta ez adilla geyago xaltoka ta atzaparka ari. Entzun dun, sorgiña?

Eta, ba-dala, orandik, ezti geyago, ta gora doa berriz ere, bere irugarren zagiakin.

Eta neska, Erko'ren muxuen beroa eskuan eta gorputz guzian, etzayo mutillari ezer esaten ausartzen, bañan bai bere buruari:

Nere mutil onen berexia! Eta danak, danak bere menpean dizkin: eta erorikoaren arriskuak, eta sorgiñen okerrak, eta erleen asarrea ta edena: danak, danak bere menpean dizkin... Zer ote da, gero, kristau izatea...! Eta noiz egingo ote naiz ni ere kristau... Erko'ren antzekoa izateko, aren antzera on, eder eta gaitz eta sorgin guzien jabe izateko. Erko'ren diña izateko, batez ere; Erko maitatzeko, batez ere. Parregarri irudituko natzayo, izan ere, nere sorgiñen bildur eta txaldankeri oekin. Aa! Ta zer egin bear ote dut nik, Ageda aren antzekoa biurtzeko. A, bai; Ageda'k bezela, «Aitaren» ura maiz esan. Ea, oroitzen dudan... iru izen ziran... ea «Aitaren, eta Semearen eta Gogo Gurenaren izenean. Amen». Orratx ikasi. Bai... laister biurtuko naiz Ageda'ren antzeko.

Erko'k, bitartean, bete dlu irugarren zagia, ta nes-karengana da beriarekin. Zuloako abaraska urratuak ezta darite, oraindik, zauri batetik odola antzo... ta arkaitz gañetik, goitik bera dator, zirrinda luzean, arkaitz, eta belarrak intz oriaz buztiaz.

Eta erliak aldamenean, lengo zurrunbillo bizian. Ez dio, bañan, zurrunbillo onek neskari lengo bildurrik ematen. Aitzitik ere, erleak bertan xirikatzen asteko gogoia ematen dio iya; ayen xixta berria nai luke, Erko'ren muxu atsegin eta bero ayek, berriz ere, sumal izateko.

VI

KRISTO GURE JAUNA

Gero, lanaldi polita egin dutela, ta belar gañean exeririk, jaten asteko prest jarri da bikote ederra. Izar-txo'k bere zorroa zabaldu, ta ezkur-opil aundi bat ateratzen du. Zatitzen du bi pusketan, eta ayeiako bat Erko'ri emanaz, ozkatzen asi dira biak. Gero, bera bezelako sagar muxu gorriak, ta abaraska aundi bat, azkeneko.

Ezti gorriaz betea dago abaraska lodia. Eta aoan estutzean goxo-goxo urtutzen dioa, breskaren printz leunak ortzetan utzirik.

Jan bitartean, inguruko belardi muskerretan, pinpilipauxak ageri egalka. Egal luze-zabalaz estaliak dituzte xomorro berexiak bere gorpuzki motz eta gizenak. Eta milla margozko begiz jantzirik, lorerik-lore, ta sasi-rik-sasi dabiltz, egalbide oker eta nagiz. Eta txuriak lore txuritan pausatzen, urdiñak urdiñetan, gorriak gorritan..., lengo lore politak aundiago ta ederragotuz.

Eta lorien ezta goxoki miztu ondoren, gora doaz bikoka, gora zilipurdi ta itzul-bira zoragarrietan. Jauzi pizkorretan buruak alkar jotzen zituzten, eta gero bat-

batetan berriz itzultzen bata bestearen ondotik; eta bitan eta irutan, ezin konta aletan, muxu ta muxu beti, kontu kontari beti...

Ta Izartxo'k xomorroi erdi txoraturik begi-begira_
-Pinpilipaux panpiñak... Eguzkiaren mandatariak...

Ortzian zer berri?

-Zeruan berri onak, orain eta beti.

-Ba, gaur besteetan baño obeak...

-Zergatik bada?

-Iñoiz ez, eta gaur biok «Aitaren» egin diagulako.

-Egia dion, bai. Zerbait berri ta on asi diau gaur.

-Aizak eta... «Aitaren» egitean iru izen esan dituk, ezta? Eta bai al ditek Nortsu oyek guri erakutsitako Mari, Odei ta Ortzi'ren antzik?

-Bai zera! Kristautasunean etzion odei, sorgin, basajaun eta beste orrelako gaizkillerik.

-Iñork egiterik ez, eta iñungo gaitz ta oñazerik gabe bizi izango zerate, ordu, kristauak?

-Ez, ez da orrela. Kristauak, beste edozein bezela, gaitz eta oñazepean bizi gaitun, neska.

-Nork eraginda, orduan?

-Deabruak, gaiztoak eta geunik eraginda...

-Orduan, bada?

-Ez. Ok etzebiltzan bere gisara. Danak Jaungoikoren menpean ditun.

-Eta Jaungoikoa orren ona ba da, maitasun utsa bada, nola bidali zizkiguk, bada, oker oyek?

-Etzizkin Jaungoikoak orrelakorik bidali. Berak asieran egin zizkanean, on eta eder egin zizkiñan danak. Gero, bañan, oker egin baldin ba-ditun, beurek naita, egin ditun...

-Eta tximistak eta trumoyak eta ekaitzak eta izurriak eta gañerako beste gaitz guziak?

-Oyek...? Jaungoikoak gure leialtasuna neurtzeko edo ta gure okerrak berdintzeko darabilzkin zigorrak ditun.

-Orduan, zintzoak beti ondo, ta gaiztoak beti gaizki ibilliko dituk mundu ontan?

-Ez beti. Ez baitun dana emen, lur ontan bukatzen. Emengo bizitza gerokoaren bidea besterik ez dun.

-Zer diau, bada, gero?

-Onak iñoiz amaigabeko zoriona, zeruan; eta gaiztoak iñoiz amaigabeko zoritxarra, inpernuan. An berdintzen ditun emengo gora-bera guziak. Geroko orren bildurra izan bear din, bada, gizonak, eta ez beste deusenik.

-Ta zer egin bear diau, zeruko zorion ori irixteko ?

-Kristo'k esandako guziak bete.

-Nola duk ori? Ez bait diau Kristo'ren izenik, «Aitar-en» egin dugunean, esan?

-Kristo, Jaungoikoaren Semea da. Gugatik gizon egin zana.

-Gizon egin? Noiz eta nun?

-Eguzki aldeko Betlehen'en, orain gizaldi bat buru.

-Ikusgarri izango dituk, noski, Aren jauregi ta erriak?

-Bai zera! Estalpe bateko askatxo batean jayo unan da...!

-Ene! Eta nola ori?

-Ez al dakin gure jatorrizko zorra ateratzeko etorri zala!

-Zeren zorra, esan duk?

-Gizona, bere jatorrizko bidetik okertu egin zala, ta gure zor au atera nai izan zigun. Argatik, aur gaxo azalez agertu zan. Eta arotz-egiñean ogeitamar arte eman zizkan. Eta or ibilli unan, gero, iru urte buruan, gauz arrigarriak egiñaz.

-Zer arrigarri?

-Eta gaxoak sendatu, itxuak argitu, gogorre entzun-erazi, errenak ibillerazi, eta illak piztu.

-Aa... Eta zeñen ederra dan au, Iñaxiol Eta zer erakusten zikan?

-Zerura joan nai ba genun, onak izateko, iñori okerrak ez egiteko, aitzitik ere danak maite izateko, geren buruak maite ditugun bezela maitatzeko. Eta ala, gure lagun urkoa maitatuz, maitatzen ere dugula Jaungoikoa.

-Zeñen xamurra...! A eta nola maitatuko zuten Kristo maitea, entzule zoriontsu ayek?

-Maitatu...? Egindako arrigarri guzi ayek maitez ordaindu bearrean, eriotzera ondatu ziten da.

-Jaungoikoa eriotzera ondatu...?

-Eta nolako eriotzera ondatu gañera, Izartxo! Artaz oldoztuz bakarrik, odol-izerdiz, lurra ausarki busti ziñan. Izan ere, asmatu ditezken oñaze guziak jasan zizkan gure Jaun maiteak: eta masallekoak, eta zigorkadak, eta arantzak eta era guzietako iraiñak, eta azkenenan kurutze batean, xaguxar bat bezela, iltzez minki josi, antxe bizia eman arte...

-Oi, oi!!! Eta zer da kurutzea?

Eta Erko'k bularra zabaldurik, illentiaz bertan egindako kurutzea erakutsiz:

-Begira onara, Izartxo! Bi arrasto oen antzera jositako bi zugaitzarretan josi ziten gure Jaun maitea...!

-Ene bada ta ni...! Eta nortzuk il ziten?

-Orduan, Juduek. Bañan, mundu guziko gaiztoen obenak indartzen zizkitenan ayen esku gogorrak. Eta oraingo obenlariak ere minduaz doaz Jaunaren biotz on ori!

-Eta nola mindu genezake Jesukristo'ren biotz errukarri ori?

-Aren legeko aginduak autsiaz.

-Ene... au bildurra! Ez nuke ba nik, ene Jaun orren ona, iñundik ere, mindu nai. Au gure zoritxarra! Orre-lako Jaun maitekorra, Jaungoiko guztiz altsua esestu al diagu ta...

-Ez bildurrik izan, Izartxo! Ez da au sorgiñen antzekoa. Jakiñaren gañean, eta nai izanda, ukatzen dan Jaungoikoa...

-Aaa baiiii...! Ez dut nik, ordun, Kristo gure Jaun ona, iñoiz eta iñundik ere, gaiztetsiko, ez orixe.

VII

SAGARDIAN

-«Arrats gorri, goiz argi». A zer eguna biarkoa sagar biltzen asteko, aita! -zion Izartxo'k bere aita Xemein'i.

-Bai, alaxe dun, neska. Negurako egurrak basoan dizkiñagun, oraindik, bañan. Tira, asi gaitezen sagarrakin. Egun onak egingo al dizkin, oraindik. Iraillako illargi berriak onerako kiñua zin, eta ba-dakin, egun on askoko santzu ziurra dala ori.

Ta Izartxo'k:

-I, Xinko, oa laisterka batean, Urgoiti'ra ta esayok Erko'ri: tolarea diagula biar, eta etortzeko, faltik gabe.

-Oraintxe bertan.

Joan zan, ba, laisterka, zelairik-zelai, basorik-baso. Illuntzen asia orduko, ta ez bait-zuan, oraindik, Izartxo'ren antzera sorgiñen bildurra kendu, abiyu bizian doa mutil gixajoa.

Ta Urgoiti'ko atarian:

-Eeeuuup...!

-Nor da or?

-Xinko... Erko etxean da?

Ta au, ate guzia beteaz, agerturik:

-Izartxo'ren agindu berriakin eldu al aiz?

-Bai. Biar tolarea dugula, ta etortzeko, faltik gabe.

-Etzekiat, ba, etzekiat. Zer-egin aundiak dizkiat biarko, Txurrumuru'n da. Tia, bañan... bayetz, esayok Izartxo'ri; eta... aregatik zer-nai egiteko prest nagola beti...

* * *

Egunak txirrist egin duneko, Xemein'ek idiak uztartu ta mendira, bere bi semetxo Xinko ta Xanko'-kin. Etxe ondoko sagardiak, urte guzirako bear dan sagardorik ematen ez, eta baso-sagarretan biltzen asi nai du.

Erruz ageri dira sagar-ondoak basoan, ur, makatz, altza ta aritzen artean. Etxeko sagardiak baño ale txiki ta motelagoak ematen dituzte, bañan, ayekin naasi ezkerro, sagardo ona egiten da.

Gurdian sartuta, arri-konkor guzietara balantzaka, ez dijoazte aserre bi mutikoak. Eta gero, basorakoan, gurditik jetxi, ta sagar-ondoetara pizkor. Gora ta bera, emen astindu, or jo, adaburuetan dilin-dan edo ta adar lodietan apatx: zarrast eta zulo onak ageri dituz-

te soñekoetan. Berriz ere izango du, bai, ayen ama Muskilda'k soñekoak konpontzen naiko lan.

Muskilda Lizardi'ko etxeakoandre maratza sukaldean, bitartean, izango ditun lan berri oetaz aantzirik, eguardiko otordua maneaten. Gaur, bazkale berri bat etxean, eta besteetan baño bazkari obexeagoa maneaten.

Fir-fir ari du ego-aizeak. Kurrin dagite sukalde ta sotoko leyoak. Ate-dunbatekoak noizean-bein. Aurreko zelayean, eguzkiaren ostarteak itzal-argiak luzatzen eta mozten ditu, bata bestearen atzetik. Eta baratzeko pikondo-adarren itzalak sukaldean sartu ta dantza berexi batean ari dira.

Eta Muskilda «Au aizearen epela, aidean dabil orbela...» kanta zarra ezpañetan, sukaldean alde batetik bestera. Eta egoaldeko basotik eldu bait-da aizearen burrunba ori, an ari diran bere bi semetxoe-kin ametsetan jarri.

Xinko ta Xanko gaxoik! Nere errayetako bizki laztanak! Ez omen zaituzte besteek bereixten! Ala ere ñir-ñir berdiñezak dituzte zuen begiak, irripar berexiak zuen ezpañak: baño biek berdin goxo, biek berdin alai!

«Txiki zerate orain. Baño aundituko zerate zuek ere, noizbait, eta beyak uztartzen ikasiko, eta geziak jaurtitzen, eta ezpata erabiltzen, eta basurdeak eiztazten. Zuen aitak bezela, zuen izandako anai Lizar eta Aritz'ek bezela. Ayek bai ederrak, bai galantak! Biak, bañan, sorgin gaizto batek eraman zizkidan enegandik. Sorgiñen madarikatua! Zer okerrik egin nizuten ba nik?

«Nere bizki ok errayetan nitun bitartean, etzan sukaldean, ez gelan erromeru ta elorririk falta izan. Eta ala, zorionez erdi zaituztet bioik erdialdi batean. Eta biok orin politez arpegi guzia jantzirik. Arrezkeroz, sorgiñak ez dute zuetan agindurik. Orinen etsai purrakatua bait-duzute sorgiña.

«Ta Izartxo, nere neskaren panpiña! Ez dun, ez Erko mutil eder ortan altzaren azken erroa autatu. Eta nola oan aldatuz, neska, mutil ori ezagutu dunan ezkeroztik».

Izartxo, argia urratu orduko, sagastira joana, antxe aurkitzen du Erko zintzoak.

Ene Jaungoikoa! Eta zeñen polita zegoen sagarrondo gañean, bere soñeko urdin arekin! Basoliarra politagoa ote, zugaitz-gañean kulunkan?

-Jetxi adi ortik -au izan zan Erko'ren agurra-. Jetxi adi ortik! Astinduko dizkiñat nik adaburuak, eta ik pillotu itzan jaulkitako sagarrak. Ortik erori ta lepazurra austen ba dun, nola egingo aiz Ageda'ren antzeko?

-Ez intzan eldu, ta norbaitek igo bear zugaitzera! Atzo illunarrean pillotu nizkiken sorgiñak ondatutako ar-jotako sagarrak. Begira zenbat!

-Zer egin unan ba, sorgiñak orrenbeste sagar eder ondatu al izateko?

-Nik iñungo okerrik ez. Bañan, sorgiñak, gure etsai izanik, gaiztozko liska boteaz zijoaztik zelairik-zelai, landarik-landa...

-Ez dun au sorgiñen lanik, neska!

-Ez zera...! Zeñena ba...?

-Zeñena...? Pinpilipauxena!

-Ixillik ago, mutil!

-Pinpilipauxena, bai. Politak ziruditen danak..., bañan, ba-ditun okerrak ere oyetan.

-Beltz oyetakotik izango dituk. Txuriak adu onekoak, eta beltzak adu txarrekoak omen dituk eta...

-Ez din txuri-beltzak deus ikusi bear ortan... Ez al ditun, udaberrian, margo guzietako pinpilipauxak loretan ikusten, eta sagarretan ikusten, eta udarietan ikusten, eta muxiketan, eta...

-Eta bai politak! Eta loreak eta pinpilipauxak alkarrekin duten antza...!

-Politak...! Zertan ari direla, uste dun?

-Zertan...?

-Zertan bai...!

-Ba... Alkar txutxuputxuka... alkar maitaketan...

-Bai... Maitaketa ederra...

-Ala uste nian ba, nik... alako maitaketan ari zira-la, bata bestearen gañean. Ta bere ezia ematen ziola loreak pinpilipauxari, ta onek, ordañez, areri bere egaletako auts politak uzten.

-Ba... oitako batzuk auts politen ordeztu, arrautzak errotzen dizkiten lorearen kolkoan; eta gero, arrautz orretik jayo dan arrak, loretik jayo dan igalia din janari, aren mami zuria auts zikiña biurtzen diñala.

-Ta nun ikasi dituk ok danak?

-Ez naun alperrik Erroma'ra joan.

-Ai...! Erroma, Erroma...!

-Gauz aundiagoak ere ikasi dizkiñat, Izartxo.

-Ze gauz...?

-Ba-direla, gizonetan ere, pinpilipaux oker oen antzeko pranko.

-Bai ote...?

-Bai, Izartxo! Maitaleak bere maiteak asko maite dituztela ziruditen; ez liteke, bañan, aytaz asko fidatu. Beren burua, beren griñak maite dizkiten oyek, olakoetan, eta ez maiteñoen biotza, maiteñoen ona.

Itz ok entzutean, irudi bat etorri zitzayon Izartxo'ri burura, ta oldostun eta itun utzi zun, ordurarteko neska alaya.

Erko, inutil ikasia, sagar-ondo guziak iñarrosiz zijotan, itz egin bitartean; eta jalkitako sagarrak maldaz beera zetozen, beko estrata jo arte. Eta berako bide ortan belar aundituetan gelditzen ziranak, Izartxo'k ankakin bera bultzatzen zitun.

Eguardia baño lenago bukatu dute sagar-biltzea, ta belar gañean patxaran exerri ondoren, beregana deitzen du Erko'k Izartxo bere laztana. Au bañan, jaterako bait-litun, inguruko sagar ustelak artu, ta or asten zayo mutillari bere ayekin arrika.

Erko ere altxatu, ta sagar ustel guda asi date biek. Erko'k Izartxo'ri bere soñeko polita zikindu nai ez, oñetara botatzen dizkio neskari bere geziak. Erko'ren ustez sorgiña dan onek bañan, zugaitz-atzean gordezten bere burua, ta lasai erasotzen andik, mutillaren gorputz aundiari.

Ta ala, zugaitzez-zugaitz, kukuka, txistuka, xalto-ka, jaurtika ta igeska dabil neska sastraka. Ta mutilla jotzen dun bakoitzean kar-kar algara gaitzak egiten:

-Geziak sartzen ain yayo aizen ori... to beste bat. Onekin bost sartu dizkiat.

-Egia dion bai. Ire «geziak» nereak baño ugari ta zuzenagoak ditun.

Eta or asten da mutilla neskaren atzetik laisterka, eskuak sagar ustelez beterik. Eta ondoratzen zayonean, or jotzen du batekin buruko adats ugarian, gero, bestea aoan, bete-betean, sartzen dio.

-Orain bai ematen dunala sorgiña, ire txima urratu oyekin, ire arpegi zikin-zimur orrekin...

-Bai... sorgin-sagarrak itukan oyek bai... Uf! Au usaya...! Au ao-txarrekoa!

-Jan zan, ba dana arrontean,... eta betiko galdua dun, bazter ontako, sorgiña.

-Goazen beko iturri ortara, garbitzera, goxoak gaudek eta ...!

Eta uretan, beso ta anka utsik, ertzean geldituta-ko, Erko'ren sagar-orbanak, esku buztiz garbitzen zitun. Eta gero, arpegia ondo txukatu ondoren, bere buruko illea zabaldurik, busti ta orraztuz zijoan, ur gañean zutituz eta makurtuz.

Eta makurtu bakoitzean bere irudia uretan ikusten du, iñoiz baño politagoa ikusten. Eta besteetan ez bezela, Erko'ren arpegia ere antxe, uretan berearen ondoan ikusten. A! eta zer poza ematen zion onek Izartxo'ri, bere barruan. Erko, orduan losenga, itz leunak esaten asi zitzaizkion, «eta ederra, polita, kurlinka, uxoa».

Eta itz losenga ok entzun bakoitzean, ur zipristiñak botatzen zizkion Izartxo'k mutillari. Eta onek beste itz ausardiagoak esanaz, arri-koxkorak uretara jaurtiaz, beste zipristin aundiagoekin erantzuten. Eta orrela luzatuz, zijoazten, len asitako sagar-joko ura, dana buztirik gelditu artio, luzatu ere.

Ta Izartxo'k, gonetako ur-zipristiñak astinduz:

-Ezin gaituk, orrela, etxera joan, Erko. Zer esango dik amak, bestela?

-Zer esango? Trakets utsa aizenala, ta ez aunala iñorekin ezkontzen utziko.

-Or goyan eguzkitan egongo gaituk exerita, legortu arte.

-Ortarako egingo unan ori, bai...! Ez al dakin jateko gogo aundia diñatela?

-Ba... nik izketarako gogoia diat, ba... Jateko ainbeste gogo ba duk, tripaundi orrek, jan zak sagar oye-

tik... ba dituk aski goxoak: baratze-sagarrak, eta kan-
padojak eta mokoteak eta...

VIII

TXURRUMURRU'KO LANAK

Bikote sastraka, errekatik sagardira laisterka. Erko'k: «ezetz arrapatu» esan dio neskari, ta onek: «bayetz» erantzunik, atzetik jarrai.

Jarraitzez aspertu ba, ta sorgin-lore bat artzera makurtzen da, ta bere beatzakin oratzen du ta:

-Ezkonduko naun? -galde egiñik, aize ematen dio.

Ta aizearen egaletan gora doazen lore igartuaren izpiak:

-Bai, ezkonduko aiz! -erantzun.

-Erko'rekin? -Bigarrerez aize eman ez.

Eta lotearen azken izpiak, besteak bezela, goyak arturik:

-Bai... Erko'rekin.

Erko'k, orduan, atzera bira, ta:

-Zer arrayo ari aiz or, ire buruakin izketan?

-Ni...? Deus ere ez... Ok ere sorginkeriak dirala, esango duk eta...

-Sorginkeria dan ala ez dan esateko, zer dan jakin bear diñat, aurretik...

Ta Izartxo'k piper gorria baño gorriagoa:

-Deus ere ez. Au mutilla!... Dana jakin nai dik...!

Exeri dira, onenbestez, eguzkitara, ta betak eta giroak izketara laguntzen bait-du, iñoiz baño «sorgiña-go» dagon Izartxo'k:

-I ta... zertara joaten aiz orren maiz Txurrumurru'-ra? Zer dituk ango ire lanak? Arako bidea uanala, esan zidak Xipo'k,... eta neregatik bakarrik utzi dukala...!

-Ona emen beste nun zer berri...! Ik ireak gorde, ta besteenak jakin nai ditun, ezta? Ez al dakin gezurrezko jokoa dala ori?

-Au mutilla...! To... esango diat ba...

-Zer sorginkeri itunan ire buruarekin?

-Ori... ba... nigatik bakarrik utzi ditukala ire Txurrumurru'ko lan oyek...!

-Ziur al dun ori, Izartxo?

Eta gezurretan ikasi gabea dan neska tolesgabeak gorri-gorri:

-Ba... orren antzekoa... Sorgin-lore orrek irekin ezkonduko naukala, esan zidak, Erko...!

-Izartxo...!

-Ik Xipo'ri esandako itzen antzekoak dituk ba... Ez al dituk ire Txurrumurru'ko lan oyek sorgiñezko agoak izango, Erko...?

-Zer bada?

-Sorgin guzien Ama, Mari, mendi ortan bizi dukalako.

-Gure ezkontzarako arreoa egiten ari naun Txurru-murru'n, Izartxo. Ta ez diten ango sorgiñek kristauen ezkontza austeko indarririk...

-Ixillik ago ergela!

-Mea-lan ederrean ari naun an, Izartxo. Eta etxean dizkiñat, an egindako burnizko aizkora, atxurra, layak eta goldea.

-Bai...?

-Eta orain iretzat goraizeak eta sulla eder bat egiten ari naun, maite.

-Egitan ari al aiz?

-Kristauak ez diten gezurrik esaten, Izartxo.

-Esan, esan nola...! Ez ni aoa zabalik utzi!

-Emendik begiratuta Txurru-murru'k dana arrizkoa dala zirudin. Ez dun, bañan, ala. Bere sakonetan arria zirudin ori, burni-mea dun, neska!

-Eta nola aizkora ta atxurretan biurtu dituk burnizko arkaitz oyek?

-Nola...?...Begira...!

-Begira niok, bai; sor eta lor begira... ea, esan nola?

-Mendiaren zulo ayetan sartu ba, ta su aundia egi-
ten diñat, pagoen mokorrekin. Eta su ta gar, egun
guzian, ango meatzak ondo berotu ondoren, bertan
jayotzen dan iturritik kaikuka ura bota ta bota diardut,
orma ayek lenbaitlen oztu ditezen. Beroakin zabaldu
ta otzakin estutu: arritzar ayek artezituta gelditzen
ditun. Artezi ayetan goroztizko ziriak sartzen dizkiñat
gero. Busti ok gero uraz... eta ala aundituz eta aundi-
tuz, arkaitzak urratu, ta danak ra-ra pusketan jalkitzen
ditun.

-Ene... ta ango zuloetan sartzen aizela esan duk,
ezta?

-Bai. Txurrumurru aberatsa, oso aberatsa dun bur-
nizko meatzetan. Nun-nai ageri ditun burni-aztarnak,
lur azalean eta barnean ere bai. Zulo-barnean aritzea
errexago zaidanan, ordea. Zuloetako ormak suaren
beroa obeto gordetzen bait din, eta artaz lana errexago
biurtzen...

-Ez dakik, bañan, Txurrumurru'ko zulo oyetan
maitagarriak bizi dirala...

-Zer maitagarriak...?

-Ba... mundu onetik maitagarriak iges egin bear
izan zutenean, Txurrumurru'n gorde itukan. Artarako,
ayen mutil, intxitxuak, mendiaren errayak landu ta

ayentzat leku ta jauregi ederrak egin zizkieten. Eta ik esandako zulo oyek, artarako bideak. Eta antxe bizi dituk, arrezkero, maitagarriak, urrez betetako jauregi ayetan. Eta noizean-noiz, eguzkitara ateratzen dituk, urrezko orrazi ta urrezko kilo ta ardatzakin, egurazte-
ra ateratzen, edo ta mundua aldatzen edo ta lengo gisan dijoan ikustera...

-Oi! Oyetako maitagarri bat bertan aurkituko ba nin...

-Zertarako?

-Areri urrezko orrazi, kilo ta ardatz oyek kentzeko.

-Bai...?

-Bai... eta gero, onera ekarri, ta ire buru polit ori, ta ire esku fin oyek ayekin eder-jazteko...

-Ixillik ago, ergela!... Ez al dakik maitagarrien jau-
regia ondatzen ari aizela ta andereño ayek aserretzen
ba-dituk, betiko galduak gaudela...!

-«Aitaren» batekin, nik ango maitagarri guziak uxatuko, Izartxo; eta bertako urre ta altxari guziak neretzat artuko...

-I... ta nola, emen iñork jakin ez eta, nola ikasi duk burnia lantzen?

-Erroma'n ikasi niñan ori, beste gauz asko bezela.

-Erroma'n? Bai al dituk an, Txurumurru añako mendiak...?

-Erroma bertan ez. Bañan, bai inguruetan. Nere ango ibillialdietan, ola bat ikusi niñan. Antxe ezpatak egiten ari itunan. Ango gauz guziak ondo ikusi, ta ea nundik ekartzen zituzten mea-kozkor ayek galdetu nien bertako langillei. Ta ayek esandako lekuak aztertu, ta nere kiko esaten asi niñun: to, Txurumurru'ko aitzak ere onen antzekoak dituk oso. Ba-dizkiaiu, beraz, meatzak gure errian. Ez diau emendik aurrera, urre ta abere gizenen truk, erosi bear gure ezpata ta aitzurrak. Ikasiko diat nik Urgoiti'ko nere tresneria antolatzen, ezkondu baño len.

-Ta nola antolatu dituk ba tresna oyek...?

-Ziriz autsitako puskak arritzarrez zaplaztu lenen; eta gero, ikatzez naasi, ta txondar bat egin danakin, aurretik egin dudan labe edo obian, azpian ikatz-malla, gañean meena, gero ikatzena berriz ere, eta ala, gopuruño bete artio. Xoloetatik sartzen dan aizea auspo aundiaz indartzen diñat. Eta antxe egoten naun fut eta fut, ordu luzeetan, dana agoya biurtu artio. Oztutako agoya au gero, burnizko mallu aundi batekin jo ta jo, ibilli bear izaten diñat, bertako txatar guzia bota, ta burni garbia gelditzen dan arte.

-Bai..., bañan eta atxurak eta aizkorak eta...

-Agudo nai dun ik... mallu-petik ateratako burni-puskak gaya ditun, neska, ez tresnak. Lan asko zion, oraindik, tresnak egiteko, Izartxo. Sutan urtu bear din, berriz, agoyak; eta gero, aurretik buztiñaz egin ditugun moldetan botatzen diñagun burniaren ixurkia, xirrikitu batetik, eta oztutzen uzten. Kendu, gero, buztiñezko moldea, ta...

-Ta eginda zioztek, ezta?

-Bai, egiñak...! Gelditutako bizarrak zaplatu bear dira, oraindik, tresna ederrak ekartzera egin arte.

-Ta zenbat langille biltzen zerate Txurumurru'n?

-Batentzat lan geyegi zala ta, besteek jakitea ere gauz ona zala ta, lagun batzuei esan nien nere izkutu. Bost gabilitza danak...

-Beste oyek ere ezkontzarako arrea egiten ari ote dituk?

-Danak ez. Batzuek ezkonduak zeuden eta...

-Arreokoak egin ezkeru, mendiko lan oyek utzi egingo dituk, ezta?

-Bai zera, utzi! Urte guziko ta bizi guziko gayak lortu bear dizkiau, Izartxo. Ez gaitun ezkur-opill eta mama gozoaz bakarrik biziko.

-Nola, bada? Ez al diau naiko, beingo tresna oye-kin?

-Ez, enetxo, ez. Urteoro, ezkur, ezti ta sagar-biltzea diaun bezela, ok ere urtero egin bear dizkiñagun. Tresnak ere erabilliaren erabilliaz ondatu egiten ditun, badaikin? Eta tresna ok gañezka eukitzea ere on diñagun oso...: bestiei on egiteko, eta baita palta zaizkigunak, oen truk, lortu al izateko ere. Etorkizun zabal, alai, on eta ziur bat irabazi bear diñagun, Izartxo.

-Bai... ezkur, ezti, sagar biltzen... alkarrekin gabiltzak... Eta zer egin bear diat, bañan, nik, emen baka-rrik, i Txurumurru'n abillen bitartean?

Ala, uso-aldra bat agertu zan zeru-mugan, egoaldera egalka... Bi gazteek egaztiei begi-begira gelditu ziran. Eta be-aldean gorde ziranean, Izartxo'k bere maiteari:

-Eta aizak Iñaxio..! Nora zoazik egazti oyek?

-Oyek...? Ni ibilli naizen lekuetara... eta Erroma'ra... ta Asia'ra... eta Egito'ra...

-Ene! Bai...? Eta zergatik ziaztik ara?

-An bean, or goi oyetan baño lur eta jende ohea dagoelako. Kristauak, batez ere, maite dizkiten uxu polit oik... Eta illobiaren gañetan jartzen ditek ayen irudia, berdin ere jartzen eliz aurreko orma nagusian.

-Eta zergatik ori?

-Usoa, animaren irudia dalako, eta Gogo Gurena-
ren irudia dalako, batez ere.

-Ona niok, orduan, ni...! usoak sorginezkoak zirela
uste bait-niken nik...

IX

BASURDI

Arduratsu dabil Muskilda mayatik laratzera ta lara-tzetik mayera. Aoko batzuk jan eta atarira dira laisterka bizkiak, esku ta aoak jakiz beterik. Etxeko guraso zar Usoa ta Aritza'k Erko dute erdian; ta au Erroma'n ikusitako gauzak azaltzen ari zaye, jan bitartean... eta ango zelai zabalak, azaltzen, eta ango, emen ez eza-gututako landare emankorrek, eta ango azienda ederrak, eta ango etxe gaitzak, eta ango erri aundiak, eta ango jai berexiak, eta...

Zarrak galdetu ta Erko'k erantzun: eman dute otordu guzia. Izartxo bakarrik dago ixillik. Ixillik eta amesti.

Eta Erko'ren itzak entzutean, irudimenak iges egin eta Erroma'ko bazter ederrera eraman du neska maite-mindua. Ta an, Erko, mutil ederra erri aundi artako kale ta zeyetan ikusten du, iñungoen lilluragarrri ikusi ere, bere lumaz jantzitako burni-txano ederrekin, soñeko gorrixta motxakin, astal beteak agerian, eta gerrian ezpata luzeakin.

Eta Augusto'ren lagun, erriz-erri ikusmiran zaldi pizkorrean dijoala, ta, iñoiz guda lazgarrian etsayak suntzitzen ari dala ta, gero Erroma'rakoan kalez-kale igarotzean, bertako neska guziak txaloka ari zaizkola ta; eta ango neska garatu ta eder guziak aretaz maiteminduta dabilzala ta: eta ango atsegin, eder eta neska guziai musin egiñik, bera, Izartxo, artu dula biotz eder aren erregiñentzako ta:... Ai... eta Erko'ren biotzondo ederra! Erko'ren on, apal, martzal eta leuna!

Basurdi berriz...! Eta ni maite naula...! Ni bear naula, nai ta nayez...! Nerekin ezkondu nai duela...! Esate utsa ere...! Lotsagabe zikiña...! Nork gidatu ote zun neregana, astakillo ori? Astakilloa...! Galanta gañera...! Eta nola oratzen zidan, lotsagabeak, gerri-tik; nola estutzen eskua? Eta zer gauzak esaten...! «Sagar umoa aiz neretzat... bertan gordiñik jateko gogoia ematen dian...».

Eta orduan naska ematen ba zidan... pentsa orain Erko ezagutu dudanatik...! Ene ta aurtengo neguan ere, igaz bezela, bere ardiekin etortzen ba zait...! Eta beste bat maite dudala jakiten dunean... Eta Erko'rekin, bekoz-beko aurkitzen danean... Ene! Zer gertatuko da orduan...

Bazkalondoan tolarean ditugu gazteak. Aita guri-
diakin sagardira joana da, ango sagar billa. Zarrak
baratzean, barazkiak landatzen, eta Muskilda sukal-
dea jasotzen ari dan bitartean, Xinko ta Xanko, len
gurdian ekarritako, baso-sagarrak saskika tolarea-
tzen. Eta gure gazteak, tolarearen solairu gañean, tiri-
ki-tanki-tanki sagar-jotzen.

Ankutsik eta astalak agerian, ari dira... Erko sagar
osoak tinkatzen, eta Izartxo, Erko'k zanpatutakoak,
mazatuz. Besoak meakezurretan eta burua zut, tiriki-
tanki-tanki, iñoiz ere aspertu gabe, anka gora ta bera
beti, gazte bi oen dantza berexia!

Oñak aparretan, eta astalak buztiak, tiriki-tanki-
tanki, sagarrak artezitzen ari dira, jo ta ke, sagarrak
zabaltzen, estutzen, zapaltzen, txikitzen, pats-biur-
tzen.

Eta sagar-mami guzia mama gorria biurturik,
solairuaren Erdiko xolora doa aparretan; eta andik
beko garleara xorrotena gañezka beterik, bertan ira-
kin eta edari bizia egin dedin.

-Au sagardoaren gozoa edan bear diñagun, aur-
ten, Izartxo.

-Bai... ala zirudik...

-Alkarrekin edatiak, gozoagoa biurtuko din...

-Etzekiat, bada, etzekiat...

-Zer dun, Izartxo? Etxeratu geranetik, illun eta kezkatu ikusten aukat... Listorren batek ozkatu al aukat?

-Ba-dituk listorrek baño gaiztoagoak...

-Nor? Esan zan agudo! Tolareko sagar ok bezela, orain bertan, zapaldu ta txikituko diñat eta...!

-Ez duk errex izango. Sagarrak baño barren gogorragoa dik orrek.

-Nor arrayok, ba?

-Basurdi'k.

-Basurdi'k zer...?

-Ba... Basurdi negu ontan, igaz bezela, etortzen bada, Txurumuru'ko sorgiñak ezik, Basurdi onek ondatu lezakela gure ezkontza...!

-Eta nor da Basurdi ori?

-Napar-mendietako artzai bat. Leen, igaz arte, Lapurdi'ko zabaldietara joaten uan, bere ardiekin neguan...

-Ta igaz zer...?

-Ba... igaz onara etorri zala, ta aurten ere etorriko zala agindu zidala.

-Iri...?

-Neri, bai.

-Ta zer ikusi bear din artzai orrek irekin?

-Neronek ere etzekiat ondo. Ez zergatik etorri zan, ez eta zertako gure etxean sartu zan, ez eta zergatik nere atzetik ibilli zan...

-Gaztea al dun...?

-Bai. Ire kidetsua. Ta ezin kendu al izaten diat, nere gañetik, bere eskutzar zikiña... Ta alakoetan, berekin Mendaur mendira joateko esaten zidan, an artzai guzien erregiña izango naizela ta... Eta sagar umoa bezela, atsegin nazaiola, ta bertan gordiñik jateko gogoia ematen diotela ta...

-Ederki. Ba-zekiñat zertan dabillen ori. No! Ta ik maite dun?

-Nik maiteeee...!!!

-Ez diñagun, orduan, deuseren arriskurik.

-Ez..., izan gabe. Ez duk ik ondo ezagutzen...!

-Nolakoa dun, bada?

-Ez duk i bezin aundi, ez zabal, gutxigo, oraindik, eder. Dana dan giarra ta trinkoa duk, arte gogorraren antzera. Ta gero, biotz gogorrakoa, burruka zalea, setatsua ta errea.

-Ik baño obeto ezagutzen dizkiñat nik Mendaur'ko moxalak...

-Orren antzekorik ez. Entzun berak neri esandako bere iru egite ok:

«Apustu au egin ziken bein, bere artzai lagunekin: eskuak atzera loturik, egun batzuetako arditxoak jan bayetz, oso-osorik jan gero, ezurrak, errayak eta guzti... Esan eta egin... Kiski-kaska, ezurrak eta guzti, dana garbitu zian...».

-Otsoa dala zion egite orrek.

-Bai! Eta entzun beste au:

«Etziola, bein, bere moxalak jarraitu nai izan, eta asarrez irakiten, or doakio Basurdi, abiyua artuta, ta bere buru gogorrakin, taka! kopeta erdian jotzen dik abere setatsua, ta ankaz gora bota, ta bertan illik uzten.

-Akerra dala zion beste egite orrek.

-Okerragoa duk askenengo au:

«Erromar batzu etorri omen ituan, bein, iparralde-tik, eta berakin topo egiñik, galdetu omen zioten: «Nundik joaten da Ebro'ko zabaldira...?». Ta Basurdi'k: «zoazte estrata ortik zuzen, eta laister iritxiko duzute...». Ta ayengandik arin iges egiñik, bere lagunak bildu omen zizkin, eta ayekin sakon batean izkutaturik, arrotzak andik igarotzean, gañera erori ta danak bertan illotz utzi...».

-Beste egite onek axeria dala esan nai din.

-Eta zer egin, iru pizti oyek barreanean ditun gizonakin?

-Zer egin? Ez estutu, Izartxo. Ba zekiñat nik, pizti oyek nola suntsitu, naiz eta danak batean etorri. Erroma'n orrelako asko suntsitu bear izan nizkiñan.

-Iru piztien azala, ta izena Basurdi: ez duk au nola-naiko etsaya izango, gero... Eta zergatik eman ote zio-tek Basurdi izen ori? Ez al da basurdea, neguan ain zuzen ere, baratze ederrenetara sartzen, eta ez al ditu bertako barazki guziak muturkatzen eta jaten...

-Bai, alaxe dun. Eta Basurdi au, besteek baño ankerrago baldin ba-da, esan nai dun, ezta? Ez estutu, bañan, Izartxo...! Basurde anker eta okerrenak ere iges egin bear izaten din eiztari on baten ondotik...

-Bai, bañan... sakon artako bidari gorrien aurka bezela, beste basurde edo axerisail bat berekin ekartzzen ba dik...?

-Ezta, ala ere, Izartxo! Ezta, milla sorgiñen buru erasotzen ba-din ere, ez din gure ezkontz au autsiko. Eta Basurdi'k nai ba-du, edo ta nai ez ba-du ere, i batayatu egingo aiz, eta gero, biok ezkondurik, on eta zoriontsu biziko gaitun betiko. Izartxo...

-Etzekiat, bada, etzekiat...

-Autsi ez, bañan, galerazi bai... galerazi lezaiguke. Izan ere, gauz aundi ta on guziak gaitzak izan ditun beti. Deabruak, gañera, baster guziak naasiko dizkin, Olearso'ko lenengo kristau-ezkontza au ondatzeko.

-Ai ene, orduan...!

-Ez. Deabruak ez din, ordea, Jaungoikoaren aurka deus ere egiterik. Gure ezkontza au Jaungoikoaren atsegiñekoa bait-dun.

-Etzekiat, bañan, bildur aundia ematen zidatek ok danak...

-Agedaz oroitu adi! Ark ere jasan bear izan ziñan, ba, Kristo'ren izena zeramalako. Baña, bai pozik jasan Jaunaren din eta antzekoa biur al izateko. Jaunak gugatik geyago jasan bait-zuan...!

-Ageda...? a bai...! Ta aren antzekoa biurtu nai nikela, agindu nian...

-Ara... Izartxo! Begira nola zanpatzen eta txikitzen ditugun sagar-aleak. Orrela, bakarrik, sagarrak zanpatu ondoren bakarrik, jario din gure oinpeko mama gozo ori. Sagarrak, osorik dagoen bitartean, ez din sagardorik ematen. Ez eta ezkurak irin goxorik ere, baldin eta arri-agiñez txiki-purra egiten ez ba-dun aurretik.

-Ala duk bai... !

-Ba... Au, gure arlo onen irudi egokia dun. Oñazearen bidez bakarrik loratuko dun gure maitasuna. Kristo'ren aldare aurrean betiko alkartu baño len, asko jasan bear diñagun, oraindik, Izartxo...!

-A... bai... Iñaxio arek ere orren antzeko itzak esan zizkin. Oroitzen nauk ondo: «Kristo'ren garia naiz, eta agin zorrotzetan eyo bearra, Kristo maitearen irin zuria biurtu nadin...».

X

LIZARDI'KO SUKALDEAN

Lizardi'ko etxea Urdanibia'ko erreka-ondoan dago. Etxe beltza ta zarra. Errekaren gañeko zubia pasa ta sartzen da bertara. Ate txikia igaro ta soto zabal batean gaude. Arriz jantzitako sotoak erdian zutoin luzea, ta albotan alkiak.

Gurdi bat ageri da ondoan, belar-pilloa ta lanabasa. Ezker aldean, gorako zurubia asten da. Aritz-mail eta makillaz egiña. Eskubian, sukaldea; ta erdian, ikullurako ate zabala.

Sukalde aundi ta beltzak erdian su-azia, ta inguruan alkiak. Ta bertako alkietan exeririk Usoa, Muskilda ta Izartxo. Iru andreak firuri-firuri iruten. Alboan, erretxin bateren argi-baranoan, gizonezkoak lizarostoa kimatzen: eta Aritz, eta Xemein, eta irugarrena nor izango ote, zein izango ote... eta Basurdi ber-bera. Bai, Izartxo'ren susmoa egi biurtu da...

Larazetik zintzillik, danboliña brin-braun, jira ta bira, gaztañez beterik. Eta danbolin aurrean, Xinko ta Xanko bizkiak gaztain tiroei adi-adi, ta aurreko arri

gañean erretzen ari diran sagarretan maixko aski beatzak sartzen.

Usoa amonatxo zimurrak bere biurrikeritik ateratzen ditu ojuka batzuetan, eta besteetan alkitxotik altxa, ta ote ta iñar-besarkadak, sototik ekarririk, enbor txingartsuen gañean zabaltzen ditu, sukalde guzia txinpart eta lurriñez beterik.

Ta laratza bera baño berritsuagoa dan Basurdi'k, Izartxo'ri begira:

-Baztan'go artzayak eta Olearso'ko nekazariak oso ondo etorri omen dira beti, eta maiz ere egiten omen zituzten ezleontzak beren artean.

-Ez diat, ba, nik olakorik entzun, -Aritz, larogeitsuko agureak, bularretaraño jeixten zayon bizar zuria igurtziz.

-Nik ori gure aitagoi Arrano'ri entzunik nago ba...

-Baztan izan zan zuen sort-burua, Olearso gurea; artzaingoa da zuen bizibidea, nekazaringoa gurea. Ikus or, berdiñak ote diran oyek!

-Eta berdiñak izan ezik ere zer?

-Ez dala, ordun, errex alkar ondo artzen. Ta maiz sortzen dirala, orrela, ayen artean liskarrak ere.

-Zuei lapurtu ba-genizuen gure artzaingoa bai, ordun bai, ba-zenduten aserrerako baita erritaldirako

ere naiko bide. Guk, bañan, zuei ez eta, Jentillei lapurtu genien gure ardiak.

-Bai?

-Bai, bai. Udaran, Mendaur'ko pagopean, ardiei begira gaudenean, gure mendietako aitagoi, Arrano, lengo gauzetaz maiz jardun zaigu. Ta areri ere entzuna dizuet Tartalo'en gertaketa au:

«Bekokian begi bakardun erraldoi, Jentil guziak baño indartsuago bat, eta Tartalo zeritzana, Mendaur'ko gure mendietan bizi zan. Erraldoi au ardi ta giza-aragiaz elikatzen zan.

Bein, mendira zijoan Baxurko'k Tartalo zeritzan erraldoi ori aurkitu zuen. Aurkitu ba zuan, aurkitu zuan.

-Nora oa, mutiko?

-Eizera.

-Etsomak nere koba zulora.

Eta Baxurko zulo artara joan zan erraldoyaren eskutik.

Arri ta zur gelditu zan mutilla, ango gauzak ikusita:

Pertza aundi bat zegoan laratzetik zintzillik. Eta ene mutillak! Pertza osoa giza-beso ta istarrez beterik.

Eta inguruko zoko guziak, ardi larru, ta gizon eta emakume askoren soñekoaz gañezka.

-Sar zak, mutil, burruntzia sutan ta jan zak orrako istar ori, ik ere jana izan bear duk eta.

Eta Baxurko'k bere artean:

-Naiz batera, naiz bestera galdu, etzait ajolarik.

Bitartean Tartalo lo-zurruka zegoen, ta eiztariak burruntzi gorria begitik sartu zion, ta itsu utzi zun erraldoi ankerra. Aren karraxi ta uluak! Mutilla ardilarru artean gorde zan. Tartalo kobazulo-atean zegoan, istarrak erdi zabalik zituela. Ardiak bere istarpetik kanpora zijoazten. Tartalo'k illean bakoitza ikutzen zuen.

-Galdu nauk -zion bere artean mutillak.

Burutasun on bat izan zuen: Tartalo'k ez ezagutze-ko, bera ere ardilarruz jantzita igarotzea. Ala jantzi zan, ta erraldoyaren istarpetik igaro zanean, bizkarran ikutuarren, etzuan Tartalo'k nor zan igarri.

Andik atera zaneko, pozik ardilarrua jaurtiki ta aringa asi zan. Tartalo'ren eraztunak izketan zekiena zan gero, la jabeari esan zion:

-Tartalo tximenea! or zijoak mutilla.

Tartalo'k eraztuna jaurtiki, ta mutillaren beatxikarran sartu zion.

-Tartalo tximenea!: emen niagok, emen niagok.

Tartalo, mutillaren atzetik laisterka zijoan. Mutillak ezin kendu zuen beazetik eraztun salataria. Aizto batez ebaki zuen beatxikarra. ta osin batera eraztun ta guzti jaurtiki zuen.

Eraztunak berriz ere:

-Tartalo tximenea!: emen niagok.

Tartalo osiñera blaust zapart egiñaz, ito zan. Ta gero andik aurrera eiztaria inguruko ardi guziak bildu nairik asi zan. Bañan, bai zera! Basurdi edo otso bailiran, danak igesiari eman ziran, beresien barna.

Zer egin? Etzun, alde batetik, artalde ura, iñundik ere, galdu nai; etzekian, bestetik, artalde ura nola eskuratu ta ezi. Ala, ala... Kukubel neskatsaz oroitu zan.

Kukubel umezurtza zan, ona, atsegiña ta musikazale utsa. Ziri ta arte ta ezpelezko joareak egiten, mutilla zan gero bera! Ark egindako zinburrun, txistu, txilibitu ta txirulak... amaika txori pozez kantaritu ta zoratu zitun...

Bere joale guziak artuerazi ba, ta Mendaur mendi gañera eraman zuan Baxurko'k Kukubel neska ederra.

Urrundik ikusi zitun eiztariak an mendi gañean ardi zuriak. Eta beti oi zunez, txirula jotzen asteko,

esaten dio Kukubel'i. Kukubel asi ta, ardi ta bildots guziak, txixtua entzun bezin laster, lauroinka bertaratu, ta... danak triska ta triska dantzan asi.

Eta Kukubel jotzez aspertu zanean, aurreko oin-txoak eta muturtxoak jetxi ta mauka-mauka eskurakoi jarri ziran. Eta iñoiz urrutiratzen ba ziran, naikoa zun neskak txistu-soñu batzuk jotzea, danak bereganatzeko berriz ere.

Gero, Baxurko ta Kukubel alkarrekin ezkondu, eta aberats eta zoriontsu eun urte bere artaldeakin bizi izan ziran».

-Kukubel umezurtzaren zori on eta ederra!
-Usoak.

-Kukubel'aren Mendaur'ko zorion eta erregintza berak izan lituzke orain gure Izartxo ederrak ere, berak nai ba luke. A! Eta oraingo Mendaur onek ez du lengoaren antzik ere: ango oraingo belardiak, ango basoak; ta ango artaldeak... nola ugaritu diran ikusi ba-zenezakezu...! Ba... artzayen mendi artako saroberrik aundiena, Basurdi onena duzute... nere aitagandik orain bi urte. ondarez artua... Emengo nere ardiok nere artaldearen erdiak dira, bakarrik. Nere anai Xuxu'ak zaintzen ditu nere beste berreun buru, Akitania'ko belardietan... Eta orain,... len Kukubel'ek bere

txirulakin bezela, orain Izartxo'k bere itz xamur eta legunekin nere artalde au zaitu nai ba-luke...

-Etzeukau saltzeko gure Izartxo, Basurdi...

-Usoak, artzayari illun-illun begiratzuz.

Eta Tartalo'ren ipuya oraindik belarrietan dun Arizta, beste Basurdi'ren azkeneko itz limurtzallei jaramonik egin gabe:

-Zuen ipui orren antzekoa duk, Basurdi, gure nekazaringoena, ere ba.

Basurdi'k ez luke artutako ari-mutur ura galdu nai... eta Izartxo'ri begi-begira itz-ernamiñean.

Izartxo, bitartean, ixil, gorri ta arduratsu bere ardatzari sekulako bira biziak ematen...

Gogotxarrez ba-da ere, Basurdi'k bere etorriaren xorrotena idiki gabe geldi bear izan du gaxoak eta Arizta'ren itzak entzun bearrean, naiz eta ajol aundirik ematen ez ba diote ere.

«Gure aitagoi Olearso gari ta beste onelako jan-ale gabe gelditu zan, Odei'ek egindako ondamendi aren ondoren. Txurrumurru'ko jentillei laguntza eskatu zien; baiña, alperrik. Jentil bat saltoka zebillen galazi gaiñean. Olearso'k ura ala ikusita, istar goyegiñoako polainak egin zituen, eta berak jantziak zituela:

-Nik ere ik bezela, egingo diat -esan zion Jentillari.

Saltoka asi zan bera ere pillo batetik bestera, ta polainak galaziz bete zitzaizkionean:

-Nik ere ik aña salto egin diat -esanaz, bere galaziz guziekin andik iges egin zuan.

-Noiz ereiten da garia? -galde egin zion, beste egun batean, jentillari.

Ta jentillak, irri ta parrez, bere lagunei zer berri zun jakiñerazi ta esaten asi zan:

Orri-irtete, arto-ereite;

orri-legorte, arbi-ereite;

orri-erorte, gari-ereite.

Olearso, bitarte artan, gorderik zegoan. Eta gorde-tik aditu zituen Jentillaren itz auek. Eta arengandik ikasi ta, berak ere garia erein zuen. Ta arrezkero ederki elikatu al izan zituen bere ibarreko gizaki guziek. Eta Jentiliaren asarreak ikutu ez zitzan, itz ok esaten zitun beti jan-aurretiro:

Janak on daigula, edanak gaitzik ez;

gorputzak osasuna, gogoan kalterik ez.»

Aritza'k ipuya bukatu, ta etziola iñork ere ezer gal-
detzen, eta bere artan jarraitu zuan:

«Jate utsa ez duk bizi-modu guzia. Beste gauz
asko bear dizkiau, oraindik, bizi al izateko. Eta oetako
aundienetakoak: gurdia ta sua.

Olearso, gizon aundi baldin ba-diagu Bidasotarrok,
ez diaugu askoz gutxiago gure aurreko Axarko ura
ere.

Axarko orrek ba, bein Mari Txurumurru'ko gañetik
Anboto'ko mendira aldetan zijoala ikusi. Zubeltzu'ko
mendi gañetan egurretan zegoala, argi-dirdaizko bola
aundi bat nabari zin aurren. Obeto begiratu ta, aren
erdi-erdian Mari ber-bera ikusi zikan. Zuriz jantzirik
zegoan; urre gorrizko adatsa zerion sorbaldatik bera;
eta urrezko kilo eskuetan firuri-firuri dantzaturik;
suzko gurdi gañean iruten zijoan.

Axarko'k gurdirik iñoiz ere ikusi ez eta, artan batez
ere zorrotzu zitun bere bi begiak, gurdian, aren gurpil
eta ardatzean. Eta agerkundea itzali ta noizbait bere-
ganatu zanean, zesayon bere buruari:

«Arraye-arrayea!... Gurdi-tresna orren arrigarria!
Eta nolako txixtuan zeramaten Mari, gurdi aurreko bi
ari aundi ayek! Gurpillen jira-bira usuak!... Nere enbor
au ere, nere bizkar gañean baño obeto lejoaken gurdi

bateren gañean ba... Eta ari edo asto edo beyak uzartu eta itsasi al ba-nizkioken, obeto oraindik. Sayotan asi bear diat ba...».

Artu zikan zugaitzetan gogorren dan arte-enbor bat, eta erdia janaz joan zitzaikan aizkoraz, poliki-poliki, ardatz-itxura eman artio. Erdian ardatza, albotan gurpillak, jarri zikan ola-oge bat gañean, ardatzan sartzeko alboko xuloekin... eta ala egin zikan Axarko'k gure lenengo gurdia.

Axarko onek ere ikasi zian, lenengoz, sua pizten. Lenagotik genin guk sua, Basurdi, Urdanibia'ko basoa, ondamendi artako tximistak eraginda, oraindik sutan zegoala, gare amagoyak kardatxetan andik artu, ta gure etxe barrenetan sartu zikaten. Eta gero, an gorde izan zikaten su-azi ori, gabero errautsez ondo estalirik.

Etzekiten sua pizten, ordea. Ta iñoiz etxean itzaltzen ba-zan, auzora joan bear izaten ziten, txingi berrien billa.

Mari'ren suzko gurdi ura Txurrumurru'ko mendian agertu zala ta, Axarko ara maiz, aren izkutu-mizku-tuak ikasi nairik. Alako batean, jentil bat ikusi zikan, bere zulotik irtenda, bi arri alkar joka, txinpartak jalkiaz zebillela, itz ok esanaz:

*su-arri jotze
argi egite.*

Axarko'k jentillaren bi arri ayek bereganatu nai izan zizkan, bañan jentilla bere ayekin zuloratu uan. Eta Axarko, zer erako arri ote zitezken su-arri oyek, buruan azka gelditu...

Ez uan, bañan, nolanaiko mutilla Axarko ori, ta ezagun zitun arri-mota guziekin sayoak egiten asi uan. Eta jo bat eta jo bestea, idoro zizkin, azkenean, su-arri miraritsu ayek...».

XI

ARTZAREN LARRUA

Erdi ametsetan zentzuyon Basurdi'k Aritz agure itz-ontziari, len esan dugunez. Eta len utzitako Izar-txo'ren ari mutur ura berriz artu nairik:

-Ta nundik dugu guk, orduan, gure sua? Guk ere orrela pizten bait dugu.

-Zuek... jakiña guk bezela pizten duzutela sua! Zapelaitz, zuen aurreko gizon gaizto arek guri lapurtu bait zigun, otsoa bezela, onara etorri ta gure etxe berriko altxariak eraman zizkigunean.

-Piztu bai, erabilli bañan, beste era batera erabil-tzen dugu guk su ori. Su aundietan arri gogor berexi batzuk berotu bai, ta ayekin ontzi bearrik ere ez, arkaitzetako zulo zabaletan berotu ta egosten ditugu gure jangayak.

-Ez duk, aatikan, ori beti errex izango! Ez bait-ditek etxe guziak nai anbat arkaitz inguruan izango.

-Ez... izan gabe! Ez ditugu, izan ere, gure txabolak nolarebait eta edozein lekutan egiten. Mendietan, goi-menditan batez ere, lekuaren ardure aundia izan bear

da. An, goi ayetan, arrisku aundiak ditu artzai gaxoak: eta aizea, eta izotza, eta tximistak eta piztiak...

-Zer ikuskizun ditek, ba, aizeak eta, arkaitz-zuloetan jangayak egoste orrekin?

-...Asmatuko al dut ba... Aizeak fut azkarra dizute, goi artan, azkarra oso. Ez dago orregatik, bertan, ez zugaitzik, ez eta etxolik ere. Belar fin eta goxoa ernetzen da bakarrik an, ardien pozetan.

Sakonak bañan, pagadi ederrez jantziak dituzue danak; eta pagadi ta zabaldien mugetan kare-arri txuriak. Eta zer dira men Arkale'ko arkaitz oyek gure angoekin bat artutal Milla urteko zugaitz zar trinkoak jeikitzen dira arkaitz-zuloetan; eta ayen babesean egin ditugu gure txabolak, bata emen, bestea or, txori kabien antzera, egin ere.

Zabaldi loratsuak, baso itxiak, arkaitz txuriak, txabol politikak... ango artzaingoaren ederra, Izartxo! Pagopeko itzalean etzanda, or, emen mauka-mauka ari diran ardiei begira egotearen gozoa, Izartxo!

-Ta zuen mendian, orren maiz egiten dun lanbro, laño, ekaitz eta eurietan ere, kanpoko arri-zuloetan maneatzen al duzute zuen jana? -Usoa'k, tarte arturik.

-Zergatik ez bada? Ez bait da itere soñeko artza-larru au, edozein euri-adarrak zulatu lezaken larru exkaxa. -Ta Izartxo'ren aurrean bere burua edertu nairik, jarraitu zuan:- Artza aundi ta gaizto bateri kendu nion. Gure basoak ondatu, ta ardien belardiak galtzen zitula ta, bera nun eta nor zanik ere, bertan akaatzeko asmoa artu nizuen.

Ez nun, aatikan, errex izan! Ezin nizuen laisterkan oratu. Ez eta indarrez menderatu ere. Laisterkan eta indarrez ezin ba..., ta zuurtziaz arrapatzeari ekin nion.

Aztertu nitun ondo artzaren oñatzak. Ikusi nitun ondo aren bideak. Eta aren zai jarri nintzan bereala. Ez nolana, ordea l

Artu nizuen ortarako, lizar-uztai bat, zugaitz orren uztaya bait-da geyen kakotzen dan uztaya, ta sartu nitun agin gogorren geziak zorroan. Erantzi soñeko guziak, eta gorputz guzia bustiñez igurtzitzen joan nintzan gero. Artzak egunero errekarako zeraman bidean, nere gorputzaren tajuzko zuloa egin, eta antxe sartu nintzan, aizearen aurka, ta dana bedarrez beterik...

-Ta zertarako igurtzi uan gorputz guzia bustiñez
-Aritzak erne.

-Giza-usaya kentzeko. Piztiak usna bizia izaki, urrutienetik ere sumatu ta bereixten ditu inguru osoetako usai-mota guziak.

-Eta zertarako aizearen aurka jarri, lur eta belarrez jantzirik bai-engoen?

-Bada ez bada ere. Zulo ta zirrikitu txikienetik ere giza-usaya irten bait liteke...

Artxe nengoan erne. Egon da egon, ta artzarik agertzen ez. Larritzen asi nintzan bizi. Izerdi otza sumatzen nun bustin-azalen azpian, izerdi otza ta buruko miña.

-Zerk arrayok eraginda?

-Neronek ere bai al dakit ziur? Gizonak aotik ez ezik, gorputz-azaletik ere arnasa artu bide du, nun-bait. Gorputz guzia bustiñez estaltzen danean, alako ito bearra sumatzen bait da.

Ala larritzen ari nintzala, ona nun azaltzen dan sekulako artza tapa-tapa bera bidean. Itxoin patxaran, estutu nere gezia, kakotu, egiñal guzietan, uztaya, ta... zast! or zia txixtuan nere gezia, ta artzaren bizkar gañean sartzen da. Artzaren dantza ta orruak! Ez luzaroko, ordea. Antxe doa laster ankaz gora, gorputzarra zurrun.

-Orren aixa?

-Bai. Ez gezien indarrez, noski. Ez bait-nion biotzean sartu. Etzitzaidan ere an sartzea komeni.

-Zergatik ez, bada?

-Ona da artzaren larrua, bañan aragia ohea. Ta bertan illotz bota ba-nizuen, egun gutxitarako jana nizuen.

-Eta nola gelditu zan, ba, zurrun?

-Aurretik pozoitua nenkarren gezia. Pozoi ori ez da bestien antzekoa, bizia bertan galdu-erazten duena. Belar berexi batetik lortu dudan pozoii orrek, kirio ta giarrak bakarrik uzten ditu illik.

-Eta atzapar eta aotzar ayek?

-Oyek ere bai. Eta, ala lurrean etzanda neukalarik, artu nere labain aundia, ta poliki-poliki larru osoa kentzeari eman nintzan. Nere soñean orain daramadan larru eder au ber-bera.

Eta a zer nolako otoruntzak egin genitun, gero, nere txabol aurreko pagopean. Antxe exeri ziran mendiko neska eder guziak, artzayen artean, ur garden, esne gizen eta aize garbiak edertutako neska zuri-gorri ayek! Iñork ez izaki, ordea, Izartxo, ik bezelako erregin-taju politik. Eta ez diñat biotzean atsegin betetik, i an, danen erdian, erregin eder bezela ikusi artio.

Ba dizkiñat an nere soñeko larru au baño ederra-goak. Bisonte, axeri, basauntz, orein ta basa-beorrei kendutako larruak. Txuriak, gorriak, oriak, urdiñak: margo guzietako jantzi fiñak.

Izartxo'k iñungo jaramonik egin gabe zentzuyon artzayari, ta etzun erantzun mutil beroaren itz xamurrei. Berak ez, bañan, bere amonak bai. Nik ez dakit zergatik, bañan, Usoa'k begiko makarra baño gutxiago ikusi nai zun mutil basatia.

-Nere Izartxo axeri jantzian...? Ederki eman ere! Ez al ditek ire txakurrak beste jostailu oberik iñun ere topau? Naiko axeri aiz i, artza ta bisonteak iruzurrez atzemateko.

XII

MENDAUR'KO USOAK

Izartxo'rekin bakarrik eta ixillik itz egin nai luke Basurdi'k. Ezin, bañan, iñundik ere bakarrik aurkitu. Zenbait bider egon zan txalataka etxe atzean, neska-txa etxetik noiz irtengo. Alperrik, bañan. Bakan ateratzen bait-zan etxetik, baratzean atxurtzera ta abar; ta orduan ere bere amona Usoa'rekin. Baita urketara, beste batzuetan, bañan beti bere anaitxo Xinko ta Xanko'ren lagun.

Olakoetan, Basurdi'k mugona lukela ta, bere burua agertzera egiten zuan, bide ertzean. Umeak, amonak erakutsita zeuden eta, Basurdi ikusi orduko ojuka asten ziran «mamua, mamua» ta igesiari ematen ziran. Eta ayen atzetik ere zijoan Izartxo, urez betetzeko ontziak bertan utzirik.

Ta Basurdi'k berekiko: ...zer arrayogatik iges egiten ote dik, neska orrek? Basajaunen bat naizela uste al dik, sorgin orrek? Nun topau ni bezelako mutil ego-kiagorik...?

Eta gero, Izartxo'ren ontziak eskuetan artu, urez bete, ta Lizardiraño irixten zan, bere ayekin. Ta bein

an ezkerro, eup! aundi bat atera ta... «ontzi ok or bean aurkitu ditut, eta zuenak ote diran bertan artu ditut» esanaz aurrera sartzen zan.

Gaur ere alaxe sartu ta, bertan izketan lotua da aurreko egun artan bezela. Usoa an aurkituko ez ba-lu lasayago legoke askoz ere, ta ageriago mintzatuko zan, eta arpegi xamurragoz begiratuko ere zion bere Izartxo'ri.

Bañan atso arek bildur ematen zion. Uraxe ere arritzekoa zan ba! Iñoiz iñoren bildurrik izan ez eta, amona aren aurrean kikilduko ote zan ba, bera! Izartxo'k maite ba zuan bañan, zer zitzayon berari, bertako atso-agure guziengandik!

Eta Izartxo'k maite zuan bai. Nola maite ez bera bezelako mutilla! Etzuan, agian neska ixillak oraindik bera ondo ezagun, eta orregatik edo, lotsati xamarra zalako edo... zerbait uzkur zebillen oraindik.

Uzkur...! aurten, batez ere. Emakumearen atarra-mentua! Igaz, maitezko itzak esaten ez bazizkidan ere, jardutzen zun nerekin poliki. Neska eskurakoya zan, atsegiña, lagun artekoa. Aurten, bañan! Beste maitaleren bat irten al zayo? Norbaitek limurtu ote dit? Ez dut uste. Alderdi txar batek edo ongi egon ezin batek daduka, segurki.

Bañan, sayatuko naiz ni bai, sayatuko, arrayoak ezpaitu, naiz eta Usoa atsoak kopeta zimurtu, sayatuko naiz nor eta zenbaterakoa naizen azaltzen; baita Izartxo'ri bildur eta lotsa eta alderdi ta gogaldi txar guziak kentzen ere...

Eta asi zan ozenki:

-Artza aren antzeko eiza asko egin dizkiñat. Bañan, neretzako eizarik ederrena, Izartxo, uso-eiza izan dun.

Usoen izen onek zimiko aundia eman zion Izartxo'ri biotzean (egazti ayengatik zerbait entzuna bait zan), eta kiloa eskutik erortzen utzi zun, eta mutillari adi-adi begira gelditu zan.

Igarri zion Basurdi'k, eta, neskatxa beregana kuturtzen asi zalakoan, iñoiz baño beroago:

-Oi! eta zeñen polita dan, Izartxo, udazkeneko egun ozkirrietan, an zero gañetan usoak sail izugarrietan ikustea! Eder ditun usoak zeruan, ederrago sare barnean, eta ederrago oraindik mai gañean. Eta danen, danen ederrena, Izartxo, zero gañetik mai gañera jetxi-eratze joku polit ura!

Aldapa leuna din Mendaur'ko mendiak, ipar alde-ra, eta dana baso beltzaz jantzia. Beko zugaitzik luzeenean uso itxuak zerabilzkin gizon batek gora ta

bera, lokarri batetik itsasita. Eta bai agudo ikusten dituztela, oraindik urruti datozen uso-saillak. Eta bereala poliki-poliki jeixten asten ditun beren beko lagunetara. Eta gure basoan sartu direneko, inguruko muñoetako tantai luzoetan gorderik dauden beste gizonak, bli-blai eguzkitara pago-ezpal zuri aundiak jaurtitzen zizkienaten.

Usoak, sapelatza dalakoan, sakonara jausten ditun, eta aldapa gora ziazten gero, sekulako ziztuan, zugaitzen adaburuen gañetik.

Gure mendiak zokogune bat din gañeko tontorran, Muko ta Tututru aitz zorrotzen erdian; eta andik barna sartzen dun usoaldra, abiyu bizian.

Sare aundi batek itxitxen din, bañan, zokogune guzia, alderen beste, bi zugaitz aundietatik esegita.

Ni an egoten naun, goiko adaburuan gordeta. Ta usoak sarea jo ta, atzera egiteko beta izan baño lenago rau! goyan bildurik diñatan sarearen beste ertza jaurtitzen diñat goitik bera... ta ikustekoa, Izartxo, sail osoa bertan loturik gelditzen dun.

-Uso-luma ñabar gaxuoik! ...Eta zertarako dituzu zuk ainbeste uso? Ez al zenituzun aski bizpairu egazti? Zergatik ez diozu saillari bere bidean uzten? Bai al dakizu nora ta zertarako doazten? Noren irudia diranik

jakingo ba-zendun!... -Ala asi zan izketan Iztarxo Basurdi'ri illun eta aserre begiratzuz.

-Zertarako ditudan usoak?... -Iztarxo izketan azkenean asi dalako Basurdi alai- Zertarako izango dizkiñat, bada...? Jateko, neska, bata bestearen ondoran danak banan banan jateko. Sarea jaurti ondoren, jeixten naun arin, nagonan zugaitzetatik, eta ura nere poza ainbeste egazti batean, an ezin egalka, bata bestearen aurka jo ta jo sarean ikustean! Sartzen naun gero braun! sare barrenean, ta banan banan arturik, ortzakin bakoitzari lepoa biurritzen ziotenan...

-Ankerra, ez besteen ankerra ori...!!! Uso gaixoei lepoa kendu...!!! Otsoari ikusita, ikasi al duzu aztura ori?

-O, Iztarxo! -Basurdi'k leun-. Ik zer uste dun... piztiak ere gauz asko erakusten dizkigunaten artzai gaxo okeri. Ez uste, bañan, uso oi danak batean jaten dizkiñatela. Nere lagunei ere ematen zizkiñet, arkumeen truk. Eta bazekiñat nik gañerakoak nun eta nola gorde.

-Bai...! Ilda gero salda bero...

-Ez, ez. Ez ditun ondatzen ez. Guk ardiekin udaberrian mendira igotzen geranean, ageri ditun, oraindik, elur-muilloak, aizearen gordean dauden zokogunetan.

Elurra gauz ona dala udaran da, artarako eginda dugun zulo aundi batean gordetzen diñagun. Gero, arritzarrez bete dana, ta astunaren astunaz, dana orma biurturik, negu arte, ala irauten din.

Eta orma tartean gordetzen danik ez bait-dun usteltzen, an sartzen dizkiñat nik nere usoak; eta an irauten diñaten gordin aski, banan banan danak garbitu al izan dizkiñatan artio.

Izartxo, an bai biziera ederra! Ez uan an nerekin deusen paltik izango. Ango egazti, amurrai, abere pizti... Eiza asko dala..., bertatik nai aña jan. Ez dala inguru guzian iñungo pizti ta egaztirik ageri... elur-obitrik len an sartutakoak atera... sutan erre... ta jan, patxada ederrean... Eta gero ez parera ta tupiñik garbitzeko lanik... Eta negua datorranean, goitik bera jetxi, ta erriz-erri ibilli, Tardets eta Akitania eskualde eder guzia ikusiz, ibilli...

Orrelako beste gauz arrigarri ta itz goxo asko esaten zizkion Basurdi k Izartxo'ri, aren irriparra ikusi, ta aren itzak entzun nairik. Bañan... bai zera! Etzuan Izartxo'k len dakigunez gañeko ezer geyagorik esan. Esan ez, bañan buruan asmatu bai, asmatu zitun ederrak!

Zer asmatu zitun? Ona emen:

«Erko... Ari duk Basurdi ori berean... Azaldu dik otso ta azeriaren azala. Noiz azalduko ote dik akerraren beste irugarren azal gogor ura?

XIII

ERKO DALA TA

Izartxo'nik ez bañan Uso'ren itzik bai entzun zitun Basurdi'k, eta ez beraren gogozkonik, nik uste.

-Izartxo emen goserik bizi dala uste al duk? Artza ta axeri aragi oyek jan gabe, aski mutil ederrak azi dituk emen?

-Ez noski, gure mendietan aña. Emengo urte txarreko exkasietan gorriak ikusi bearrean izango zerate, bai.

-Ik zer dakik, berritxu.

-Emengo janak, gañera, ez du an goikoaren indarrik. An goiko belarrak ere emengoak baño esne lodia-goia ematen du.

-Zergatik ekarri dituk, orduan, ire ardiak onara?

Basurdi'k zakurren ipurtzora bidaliko luke pozik atso piper miña, bañan Izartxo'ren ederra irabastearen, pozik jasaten zitun danak. Eta ala, paketsu jarraitu zuan...

-Ango abere ta piztien aragi trinkoak indar eta gatz berexi bat ematen dio, gizonari.

-Ezagun duk bai ik ondo, ire akets mutur ortan.

Muskilda ta Xemein ixillik zeuden iya arratsalde guzian. Xemein'i batzuetan Basurdi'ri belarri-ondoko bat emateko gogoa etortzen ba-zitzayon ere. Aritz ere aspaldi xamar ixillik, zegon, bañan Usoa geyegi piper-tzen ari zala ta, tartea arturik:

-Guk ez diau, Basurdi, zuek añako aragirik jaten. Ez gaituk, ala ere, janen paltik eta emengo janak ere ba-dik gatz eta indarrik.

-Ez dut uste ango diñik. Zenbat eta gorago ta ur eta aizeak garbiagoak...

-Bai eta erreka txikiagoak eta aizea zitalagoa ere... Ez dukala ik ire Mendaur'ko artzai guzien artean Erko baño zurage aundiagoko mutillik ikusten...?

-Ez eta oberik ere -Usoa'k erne.

-Ez eta ederragorik ere -Muskilda'k erdi-ixillik.

Itz ok Basurdi'ri gogoa piztu-arazi zioten, eta andre guziak zerbait esatekorik zutela ikustean, Izartxo'ri begira jarri zan, onek zer esan lukeen zai. Etzuan, bañan, onek aoa zabaldu, bañan bai begiak eta ezpañak, eta nolako xamur gañera!

Basurdi etzan itsua ez eta motela ere, ta bereala igarri zuan dana. Erko ori zan ba, bere Izartxo kutuna itxulastera ausartu zan mutil etsaya! Kostako zitzayon

ba, orraatik, bere panpiña eramaten, bai... arrayoak ezpaitu...!

Eta mutil orren berri guziak jakin nairik, asten da galdezka urduri:

-Emen, inguru ontakoa al da mutil ori?

-Bai -Aritzak-. Emen ondoan dagoan Urgoiti'ko seme bakarra.

-Oñordezkoa beraz?

-Bai, noski. Etzun berak alako asko uste, bañan alaxe da.

-Zergatik etzuan usteko, ba?

-Etzan Erko Urgoiti'ko seme bakarra. Beste anai bat zikan onek bera baño zarragoa, Altzi; ta au ukan etxerako.

Altzi au itxaso-zalea zan oso, ta ara joaten zan maiz, etxeko lanen exkaxietan. Eta onek atzitzen zizkiken xargu, izoki ta legatzak, Basurdi! Ez duk ez ik, segurki aski, orrelako mokadu goxorik ire mendietan iñoiz ere murtxatu!

Itxasoak arrisku aundiak izaki, Basurdi, zuen mendiak baño aundiagoak, alako batean Altzi'k bertan bizia galdu zikan. Eta ala Erko Erromatik etxera ekararazi zikaten.

-Erromatik?

-Bai, Erko Kaiser'ren guda-mutil, Erroman zego-kan.

-Eta an jandakoekin egin al da alako mutil gaitza?

-Ez gaxo, ez. Mutil eder eta gaitza zalako eraman zikaten ara.

-Erko, gure bazterrak ondatu dituzten Erromarren lagun eta mutil? Gure oitura ta izkuntza oinperatu dituzten etsayen gudari?

-Gauz eta izkuntz berriak ikasteak ez dik iñugo kalterik ekartzen, bai bañan, berririk ere ikasi ez eta lengo gauz on eta ederrak utzitzeak.

-Erko'k Erroman deus onik ikasi al du ba?

Izartxo, berritxu utsa zan Izartxo, ordurarte ixillik egon zan, Basurdi'k naska besterik ez bait-zion ematen. Orain, bañan, Erko bere maitearen izena aipatu zutenetik, barru guzia irakiten jarri zitzayon. Basurdi zantar arek bere kutunaren izena gaitzetsitzen asi zanetik, batez ere. Eta bi matraillak gorri-gorri:

-Ikasi? -jaurti zun- Ik ire bizi guzian ikasi ditukan baño gauz geyago ikasi dizkik Erko'k, Erroman egon-dako egun bakoitzean...

-Zertzuk ikasi zizkiñan ba?

-Zertzuk...? Eta burni-lantzea, eta landare berriak, eta Kristo ta martiriak eta...

-Zer esaten ari aiz? Zer dun martiri izen ori?

-Oik... ba..., Kristo'ren alde bizia nai ta pozik eman duten kristauak...

-Txorakeri aundi bat dun ori, neska...! Eta... Noren alde bizia eman zutela esan dun?

-Kristo'ren alde...!

-Eta nor dun Kristo dalako ori?

-Ori...? Gu gaizkatzera zerutik lurrera jetxi dan gure Jaungoiko maitea...!

-Ta... ta... ta... Ez esan emen erokeririk...!

-Esan dizut len ere, ez duzula zure bizi guzian Erko'k egun batean ikasitakorik ikasiko...

-Eta ori al dun Erko'k ikasitako zera guzia?

-Naikoa zizun ori; bañan, beste gauzak ere ikasi dizkitzu: azi berriak eta landare berriak eta zugaitz berriak eta...

-Ba... ba... ez diaun gauz oyen bearrik Mendaur'ko goi mendietan...

-Meatzak eta burni-lantzea eta...

-Burnia esan dun...? Eta zer dan burni orrena...?

-Aizkora, aiztoa, ezpata, atxurra eta abar egiteko gai berexi bat.

-Au bai, au jakingarri ta onuragarri dun, Izartxo. Eta nolako gaya dun esan dunan burni ori?

-Arri ta urraida ta orain arte ezagundako gai guziak baño askozaz gogor eta trinkoagoa...

-Ta ori emen ere topatu al liteke nunbait?

-Bai... Erko'k aurkitu ta landu ere dizu Txurrumurru'ko errayetan...

-Bai ote...? Sorgin eta maitagarriak bizi diran leize-zuloetan ? Eta ez al du sorgiñak, bertan eramateko bildurrik?

-Sorgiñik ez dagola dio Erko'k.

-Erroma'n ere ikasi al din ori?

-Bai noski. Eta neri ere sorgiñenganako bildur guzia kendu dit.

-Sorgiñen bildurra kendu ta artzayana sartu al din?

-Bai zera...!!! Erko'ren ondoan ez dut nik iñungo ta iñoren bildurrik.

-Ondo da... ondo da...! Ez al dakin alako mutil eder, on eta gaitza ikusteko irrikan jarri naunala, neska?

-Ba..., nai duzunean ikusi zenezakezu...!

-Nun?... Urgoiti'n... Txurrumurru'n?

-Nai duzun lekutan...! Geyenetan, bañan, ni nabillan lekutan, eta... nere alboan.

XIV

OLENTZERO

Olentzero eguardian, Erko'k Lizardi'ko Xemein basoan topau zun. Mendiko gurdi txikian, aritz aundi bat zekarren subillerako. Eta berangana ondoraturik, oles alai au egin zion:

-Kaxo, Xemein! Topau duzula, aatik! illunabarreko enbor egokia.

-Bai, mutil. Gaur, lengo urteetan ez bezelako, jai ederra egin bear diau. Goizabarrean il diau larreko txerri gizenena ta etxeko zikiro zarra. Uso ta Muskilda odolkiak egiten utzi dizkiat.

-Eta Izartxo ez?

-Ez, Izartxo ez.

-Zergatik ez bada? Gaxorik ote dago?

-Gaxorik bai...! Iñoiz baño pizkor, eder eta langille-go zegok gaur.

-Zertan dabil, ba, bera?

-Ez al diat esan, ba, jai aundi bat antolatzen ari gerala? Eta Izartxo zebillek danetan zintzo ta ardura-tsuenen... bazterrak garbitzen, etxea txukuntzen, gauz guziak prestatzen. Beste egunetako Muskilda'-

ren lanak bere gain artu dizkik, gaur, Izartxo'k; i, Erko, illunabarrean, gurera aparitara etortzeko aizelako.

-Nigatik antolatzen ari al zerate, ba, jai eder ori?

-Bai, ba! Aantzi egin al zaizkik emengo oitura zarrak? Emengo bikoteak garagarrillako eguzki jai aundian ezkontzen dituk, eta neguko subil-aparian ezkongaitzen. Eta Izartxo ta i alkargana kuturturik, eta bata besteentzat ain egokiak ikusirik, bearrezko jaya zan au, Erko.

-Baita, baita... -buruan aska, ta arpegia lotsaz erdi gorderik- Joango naiz, ba. Ez nuan, bañan, uste orren agudo izan bear zunik.

-Zergatik ez, bada?

-Basurdi'ren auzi zar ura konpondu ez dudalako, oraindik.

-Basurdi...?

-Basurdi bai. Aspalditik nerekin egoteko asmotan omen dabil, eta ez dugu, oraindik, alkar ikusi.

-Ba... ba...! Utzi zak pakean mutil txatxu ori.

* * *

Olentzero-arratsaldearen ederra! Aize epela dabil fir-fir, ostoaikin jostalari. Etxean egoteko baño kanpo-

an ibiltzeko giro ohea. Lizardi'koak, bañan, etxe barre-
nean dabiltz danak:

Aritz, agure zarra, esku-makil eder bateri, aitzoz
azkeneko ziristak ematen... Xemein, atzo ildako, zerri
aundia zatitzen... Muskilda... odolkiak jostorratzaz
zulatzen... Usoa... urraidako tupin zarrak garbitzen...
Eta Izartxo...? Izartxo sutondoan, berebiziko jan goxo-
ak maneatzten.

Xinko ta Xanko aurrak, bitartean, bata bestearen-
gana orron, an ikusitako gauz berexiaz arro-arroturik.
Kanpoko argia itzaltzen asi danean, bañan, itzaltzen
ere asi zaye beren zalaparta alaya. Olentzero, neguko
jainko txikia urbiltzen ari baitzan.

Olentzero aren itsusia: tripaundi, lepo-motz, mutur
beltz, sudur gorri. Ta Olentzero aren bildugarria: Urte
guzia mendian ikazketan emanda, gaurko bere egun
ontan, errietara etortzen bait-zan. Eta gero, gabaren
beltzenean, sukaldeko ke-zulotik bera jetxi, eta subil
txingartsuan exeri ondoren, bertako apari ondar
guziak iretsitzen zitun. Eta... ai! bertan naiko jana aur-
kitzen ez ba-zun... aren ojuak ordun!

Etzan au okerrena, bañan. Olentzero ume biurri
guzien etsairik gaiztoena zan, gañera. Eta aaa! etxe-
ko aurrak urte artan biurrikeritan ibilli ba-ziran...

aurren gaxoa ordun! Olentzero tripaundi, itsusi ta gaiztoa beurek zagozten lo-gelara joan da, danai lepoa biurritzen bait zien.

Eta gure Xinko ta Xanko gaxoak maiz entzun bai-ziotzen bere ama Muskilda'ri esaten: ume oken atarra-mentua! Zeñek okin burutu? Ok asmatzen ez dituzten biurrikeriak ...!

Eta bildur ziran umeak, bildur bai, Olentzero zital arek amaren oju ok ez ote zitun entzungo. Urrutiko txondarretan zebillen bai bera, bañan alako belarri aundi ere zitun, izan ere...

Orduko, arras illuntzen zijoan, eta etxeko leyoeta-tik begiratuta, mendi illunetan argi-zuziak agertzen ari ziran, gaueko begiak bai-liran. Etziran, bañan, udara-ko eguzki-jai aurrean pizten diran su aundi ayen antzekoak. Ayen alderantziz, ñirñir txikia zuten, eta itzali-argituz, batera ta bestera zebiltzan, mendiko bide txidorretan.

Eskeko mutil-aldrak ziran. Olentzero'en antzeko mozorro aundi ta itsusi bat bizkarrean, neguko jainko txiki aren berri ona etxez-etxe zabaltzen zijoaztenak.

Sorgiñezko illunabarra zirudin illunabar alai arek. Aize epela zegin... Aldean zebillen orbela... Argi-ñir-ñirak ageri ziran, mendibide guzietan... Kanta marma-

rrak eldu ziran alde guzietatik... Eta biotzak ere pil-pil alaya zuten, zergatik etzekitela ere.

Alako batean eup! alai bat entzun zan Lizardi'ko atadian.

-Eskeko mutillak ote? -jalki zun Muskilda'k- Ea, Izartxo, begira or atera, nortsuk diran.

-O! Erko...! I al intzan? Eskekoak zirela uste nian, ba, orra! Agudo etorri aiz, aatik! Etxetik makilka bidali al ditek edo zer?

-Eskekoak ikustea gogoago unan e? sorgin orrek!

-Bai orixe! Ayekin Basurdi ori eldu ba-duk, batez ere.

-Bai, egia, etzion, bazter guzian, alako mutil jatorrik...!

-Sartu adi aurrera, ergela!

-Bejondeikala, Erko. Mugonez eldu aiz, mutil. Exerimen, -esan zion Usoa'k, sukaldeko alkirik ederrena luzaturik.

-Bai, gure etxean, apaltzen asteko ziran, da, iya tenorea izango zala ta, etorri egin naiz.

-Eta ez al duk bidean Basurdi'rekin topo egin?

-Usoa'k berriz.

-Ez! Ez dut oraindik ikusi.

-Ba-dik, ba, irekin egoteko gogo!

-Ez naiz gordeka ibilli, ba.

-Aren erretulikak, lengo egunean! Ez adila orrekin fidatu, Erko. Okerra duk... okerra, zitala, gaiztoa...

Ala, beste eupada bat entzuten da atadian.

-Olentzero-eskaleen batzuk... Joadi, Ibartxo.

-Ene... ene...

-Zer dun orrela, neska?

-Ixo... ixo... Basurdi ber-bera dago atadian...!

-Basurdi...? Ez din ajolik -Aritz'ak-. Ez dun ondo iñor ate aurretik, zakurra bezela, uxatzea. Sartzeko esayon.

Iñork ezer esan eziñean gelditu ziran danak sukialdean, Basurdi bertan ikustean. Basurdi ere, doi-doi gabonak emanda, ixil eta zurrun gelditu zan.

Erko'ren atzetik ote zetorren? Edo ta bere ezkon-gai-aparia egiteko asmotan ote zebillen?... Auskalo zetsuk ziran basati aren asmoak!

XV EKAITZA

Aritz'ak urratu zun, lenengoz, ixillaldi estu ura.

-Exeri emen, Basurdi. Sagardo pixka bat artuko duk eta...

-Sagardo pixka bat...?-Basurdi'k illun- Tia... exeriko naiz, ba. -Eta gero, Erko'ren aurkez-aurke ta bera-ri zorrotz begira-, Eta... au al da Erroma'tik etorritako mutil eder ura?

-Bai, au beraxe da -Izartxo'k.

-An oitura, era ta gauz asko ta ederrak ikasi ditun jakitun aundi ura?

-Ibiltzeak beti erakusten dik zerbait -Erko'k eran-tzun zion apal-. I ere Akitania ta beste leku zabaletan ibillia aiz, eta etzitzaikan damutuko, nik uste.

-Nik bañan, piztiak eta abereak zaintzen eta ezi-tzen ibilli nauk beti, eta ez i bezela, gure etsai dan Erroma'ko Kaiser'i ipurdia garbitzen.

-I, Basurdi...! Erromarrak lagunak dizkiau, eta ez etsayak, entzun duk?

-Lagunak...? Nork deituta sartu dituk atzerritar zikin oyek Iruña ta beste egoeko erri eder oyetara?

-Nork deituta, esan duk? Guk deituta, Basurdi, guk deituta. Aantzi egin al zaizkik, edo ta ez al dituk, iñoiz ere, gure aurrekoen egite aundiak ikasi? Ez al dakik, orain urte asko, Keltak deritzan gizon gorriak, iparraldetik, gurera sartu, ta egiñal guzian, gure aurrekoak txautu ta gure lurralde eder au bereganatu nai izan zitekela?

Gizaldi osoetan ibilli ituan alkar guda ilgarrian. Eta gure lurralde osoa artu ez ba ziten ere, puska ederrak kendu zizkioten berari, inguru guzian. Ala, oraindik guda gogorrean ari itukala, Erromatarrak agertu ituan, Kelten azpiko aldetik. Nun eta noiz mugon obririk? Erromatarrak eta Euskaldunak alkar artu zikaten, ordun; eta bi sail pizkor ayen artean, bereala zapaldu zizkaten gure aspadiko etsai gogor ayek!

-Eta bein alkar artu zitekela, ta naikoa al duk ori, guri lur eta erririk ederrenak kentzeko?

-Nork kendu zizkiguk emen erririk? Ordu ezkeroztik, Erromatarrak gure lagun egin ituan betiko. Eta ala, guk ango atepak, eta ayek emengoak zabalik izan dizkiau beti. Ez ditek Erromatarrak gure besoa baño beso sendo ta leyalagorik; ez eta guk emen, Erromatarrak baño buru jakintsu ta antzetsuagorik... Noiz ikusi dituk

ik gure Erriberan noiz, baratz, oliodi, mazti ta erri ede-
rragorik?

-Eta an egiten dan izkuntz arrotza, ta an ikusten
diran oitura nabarmenak?

-Zer oker dik, ba, izkuntz berriak ikastea, baldin
eta gurea galtzen ez ba-diau?

-Eta Erromatarrak lapurtu dizkiguten abereak eta
sakaildu dizkiguten eremuak?

-Nork esku emanda? Ez al dira batzuetan, gure
mendiko artzayak Erromatarren erri ta etxeetan sar-
tzen, eta bertako altxari guziak ostuta, atzera mendi-
ta joaten?

-Gezurra! Nork esan dik ori?

-Gezurra? Nork sakaildu ta il zizkin, iruzurrez il
ere, Ultzama'ko ibarrean, ezpatarik gabe, ta paketsu
zijoazten bost Erromatar gaxo ayek?

-Zer zekiat, ba, nik.

-Nik bai, nik ba zekiat nork... Basurdi'k il zizkin,
Basurdi'k, zoko batean gorderik, ayei begira luzaro
egon ondoren.

Basurdi, au entzutean zurbil-zurbil, bat-batean,
basakatua bezela, alkitik altxa, ta Erko'rengana oldar-
tu zan. Berak alxia utzi orduko, Erko ere zutik zegoan,

eta ordurarte ez ikusitako gorpuzkera aundi arek, zurrun bezela utzi zun Basurdi oldarkoya.

Lizardi'ko guziak ere altxa ziran, eta baretu ta exeri-arazi zituzten, azkenean, mutil aserretuak.

Maltzurki asia zun Basurdi'k bere auzia. Etzala egoki, alegia, ordu artan eta leku artan, bere maiteaz agiri ta artez aritzea, ta maltzur baño maltzurrago, Erko'ren lagun Erromatar arrotzak aipatu zitun, Aritz eta Xemein, euskaldun zintzo ayen aurrean, gure mutilla lotsatu ta itsusitu lezakelakoan. Oker jo zion kukuak, bañan, oker oso, Erko ez, eta bera utzi bait-zuan itsusi ta lotsati.

Bai, ala gelditu zan Basurdi: lotsati, itsusi, dardarati ta ixillik. Tutik esatera ausartzen etzala. Aritz'ak uxatu zun, oraingoan ere, ango ixillaldi ta larritasuna, Olentzero zarren ipui batzuk esanaz.

Naiz eta Aritz'ak bata bestearen ondoren, kontu asko esan, etzan Basurdi'ren muturra oraindik argitu, ez eta kopeta zabaldu ere.

Erne zegoan. bitartean, gure Erko, ta bere etsaya-ren keiñu guzietara adi-adi, zitalkeri bateren bildur.

Usoa'k artzai zakarra makilka bidaliko luke pozik, bañan, Aritz'ak erritan emango lioken bildur zan. Inki-manki Izartxo, bitartean, pozik alde batetik Erko'ren

patxara ta iztunen ederra ikusirik, estu ta artega bes-tetik, bañan, auzi aren ondorea ezin azterturik.

Ala, trumoi-ots legorra entzun zan, erdi ixillik zegon, sukalde artan. Trumoya entzun eta Basurdi bere alkitik altxa, dana bat.

-Ez duk deus, mutil, -esan zion Aritz'ak-. Ez uan trumoi-soñua besterik.

-Ez al ditu trumoi onek, zeruko ekaitz guziak eta inguruko sorgin gaizto guziak ekarriko?

-Zergatik bada? Zerbait okerrik egin al duk ba, ik?

-Eztakit, eztakit. Trumoi oek txarrerako zantzua zun.

Exeri zan berriro bere alkian, bañan ez zearo lasai. Burutapen asko ernetzen asi bait-zitzaizkion bere barruan, naas-maas eta kezkatu utzitzen zuten burutapenak: Ollোক pikondo gañean ikusi zitula goiz artan...; satorrek lanean; beleak karrakaka; ardiak bordan feloska: ta ordun bertan laratz azpiko subilla txinpartaka ari zala... Ezbearren, ezbear aundiren bat zetorren, bai... Etzan besteren itxurik.

Alakoak buruan zerabilzkiala, ona beste trumoi; lengoa baño ozen eta luzeago bat. Ene mutillak, Basurdi'ren jauziak!!!

«Elorri, elorri» karraxika asten da, bereala, batera ta bestera urduri begira.

Muskilda'k, ordun, su ondotik elorri-arbazta bat artu, ta mutillari ematen dio eskuetara. Eta landare igarra eskuan, baretzen da pixka bat artzaya, elorri miraritsu arek, ekaitz ikaragarria zekarten sorgiñak bertan uxatu lezakelako ustean.

Erko, bitartean, bere alkitxoan patxara ederrean eta irriparre gaiztoz. Izartxo ere oso bare, Erko alaxe ikustean. Eta berdintzu ere etxeko guziak, bikotearen azal argia ikusiz.

Ekaitza, bañan, etzan ematen ari, aitzitik ere, gero ta aundiagotuz zijoan. Eta tximisten argi bizitan, Basurdi'ren arpegia gero ta zurbillagoa ageri zan. Eta bere larritasun aundienean, Izartxo'k len esandako, gauz naasi bat etorri zitzayon burura: etzula Erko'k sorgiñetan siñisten... Ai madarikatu zikiña! Eta ez al zitun orregatik, elorri-arbazu arek, sorgiñen aurkako indar guziak bertan galdu izango?

Or ba, elorria arrika bota ta «aizkora bat, aizkora bat» eskean deadarka asten da. Artu, Aritz'en eskutik, arrizko aizkora, ta, sotoko ate aurrean, jartzen du azpikoz gora, au dala ta tximisten aurkako gauzarik onena.

Ixildu ziran, aldi batez, trumoi-otsak, eta lasaitu zitzayon Basurdi'ri bere barra estu ura. Ba zun aren premiya, gixagaxoak! Egia zan, bai egi, etzala arrizko aizkora ura bezelakorik, ekaitz guziak bertan uxatze-ko!

Ala, arpegia antz-aldatzen ari zitzayola, ona tximist-adar gorria, eta bereala, aren atzetik, trumoi-ots ikaragarria, etxeko orma guziak dardarazten ditula.

-Zer da au, zer! -asi zan Usoa, ta bere alkitoetik bereala altxa, ta esku-xolor bete gatz botatzen du sur-tara.- Mutillak! Gure Olentzero aserretzen ote zijoakiguk, edo ta Basurdi'ren billa asi ote dituk, inguruko sorgin guziak Anboto'ko Mari buru'ko dutela ?

Ala bide zan bai. Etzegoan ba, artzayari begiratu besterik. Gizonaren planta! Aren itxura!

Tximistak eta trumoiak gero ta usuago bertago ari ziran. Ordun oroitu zun Basurdi'k, zoritxarrez oroitu ere, Erko'k burnizko aizkorak zitula berekin.

-Galdua nauk, etxekoak, galdua nauk! -asi zan karraxika- Txurumurru'ko sorgin guziak nere billa datoz. Begira an lañoetan, bai; begira ango bola gorri ura!

-Eta tximista bezela, Lizardi'tik iges egin zun.

-Bejondeikela, mutil -uju egin zion Erko'k, ate ondotik, ariñiketan zijoan Mendaurre'ko artzai zangarra-ri.

Ta Usoa'k: -Oa, oa, madarikatu ori! Oa milla sorgi-ñekin, Txurumuru'ko leize-zulo illunetara.

Basurdi irten da, bereala bukatu ziran tximist-tru-moyak. Eta ekaitz zaratatsua euri gozoa biurtu zan.

-Tia, joan da, Basajaun orrekin, ekaitzaren ase-reea, ta arrima gaitezen danok apaltzeko, -esanaz, Usoa'k suaren ingurura bultzatzen zitun danak.

-Jarri zaitezte bai, aparria prest dago ta. -Izartxo'k.

Eta Izartxo'k aparitan egin zitun algarak, Basurdi'-ren itsura ta itzak gogoratzean...! Eta Usoa'k esan zitun erretulikak, artzayaren izena aitatzen zioten bakoitzean...! Eta Erko'k an azaldu zitun arrigarriak kristau ta Jesu-Kristo'tzaz bero mintzatuz...!

Aparria gozoa, alaya ta luzea izan zan. Eta jan bitartean, aizeak kurrin zegin, noizik-beinka, leyo-ate guzietan... eta goiko sapayeko ituzurak «tan-tan» ots eztitsuak egiten zitun urraidako ontzi zabaletan.

Apal-ondoan danok, altxa, ta Aritz, etxeko-jaun aguretsuak, ondoan zeukan esku-makil aundia artu, ta Erko'ri ematen dio oroigarritzat. Makil edrrra zan,

Olearso-mendiko gorozti batean pikatua, ta gero-bere atsedeen-egonetan, aiztoakin ederki ziristua.

Eta bere makil eder arekin, Erko oraindik bere esku-sayoak egiten ari zelarik: -Etxeko bezela aiz, emendik aurrera; -esan zion, mintzo ozenez, Lizardi'-ko aitagoyak-. Nai dukan guzietan sartu inteke bertara, Izartxo'rekin gure aurrean ire jardun-aldi goxoak egitera.

XVI

BASURDI'REN TALKAK

Lizardi'n eramandako lotsak Basurdi'ri biotza erretzen, jaten zijoakion. Bai itsuski geratu zala an, danen aurrean, Izartxo'ren aurrean geratu, batez ere.

Erko zital, anker, zagi-puztu zikin ori! Mutil ona, eskurakoya ta zintzoa omen zan bera.

Bidezkoa al zan, izan ere, norberaren maitea, beste gaberik eskutik kentzea? Gauzak leen ikusi ta aurkitu ditunarentzat izaten dira beti! Ta nik maite izan nuan lendabizi Izartxo, eta ez geroago etorri dan Erko arroputz orrek. Zergatik, zer arrayogatik kentzen zait ba, neri, nere-nerea dan neskats ori?

Orain... etzait batere ajolik; ez ta Lizardi'ko tetelo guzi oyengatik, ez eta Izartxo emagaldu orregatik ere.

Gorroto ditut, gorroto gizaki gaizto oyek; Erko, gizaundi urde zikiña ori gorroto, batez ere. Ai eta zorigaiztoko Olentzero gaba artan Lizardi'ri su eman da, danak bertan erreta utzi ba-nitun...!

Ai...! Orai :dik ez da, bañan, dana bukatu. Ai, Erko, Erko...! Etsai txarra aukeratu duk, bai orixe! Ez duk ik ondo ezagutzen Mendaur'ko Basurdi! Laister il bearra

aiz, bai, arrayoak ezpaitu...! Il mendiko beor ura bezala, Mendaur'ko artz ura bezala, sareko uso ayek bezala. Eta ez neri errurik bota; ik, ik berak aukeratu duk ire zoria.

Ultzama'ko sakailketa ura arpegira bota didaken ezkerro, gu bion batek il bearra dik, nai ta nai ez. Eta eroa, ero utsa nintzakek, txori elbarritu bat bezela ni atsitzen utzi, ta Olearso'kio urkabeen, i ta ire Lizardi'ko erbiñude oyen aurrean, nere bizia parregarri galteza!

* * *

Nola Erko atsitu ta garbitu, ordea? Gaitz zan aurrez-aurre. Ondo zekin ori Basurdi'k, an Lizardi'n ikasita. Erko... sorgindua zegola, esaten zun artzai minberatuak, bere burua zuritu nairik. Danak zekiten, bañan, Erko mutil eder, indartsu ta zangarra zala.

Basurdi, Mendaur'ko artz aundi ura bota zun uztai ta pozoitutako gezi ayetaz oroitu zan, bereala. Alakoekin, erreka zokoan gorde, ta gero Erko andik igarotzen zanean... zast! bota, ta kito. Zurrun baño ez oraindik illik, bere esku izango luke gañera, naiko

iraindu ta gero, artza ura bezela, bizirik jateko, artara-ko gogo ba-lu.

Etzitzayon komeni, bañan. Olearso'ko ibar artan iñork ibiltzen ez eta, uztayakin ikusiko ba-lukete, susmo txarreko gauza litzake ori ta bere burua galdu-erazi litzayokena. Erko gañera, Erroma'ko Kristo azti aundi arek sorgindutako mutil miraritsua zan da, nork zekin geziak okertzeko almen ori ere ez ote zion bera-ri erosi?

Eskuz eta makillaz zail, eta geziz ez ziur, aizkoraz ekitea erabaki zun Basurdi'k. Izkillo ona zan aizkora, berak ondo erabiltzen zekiena, ta aal berexiak zituna etsayen aurka. Aizkora errex gorde liteke gañera, kapusai azpian gerrikotik zintzillik daramala.

Eta nun eraso? Au ere asmatu bearra zan, ba. Olearso'ko ibarreti'k kanpora beintzat, iñork ez ikuste-ko. Ez al zan Erko maiz Txurrumurru'ko meatzetara joaten? Mugon ederra litzake ura, ba. Eta..., bai; an, arako bide edo inguru ayetan gordeko zan, eta an etsayen begira jarriko.

Erko Erroman erromatarren oituren gisara ibiltzen ba zan ere, emen, Euskalerrian, euskaldun bat bezela bizi zan. Eta etzuan, ala, Erroman bezala, ezpatarik eramaten. Makil luze bat eskuan, naikoa zan bera

edozein etsai edo piztiren aurka jalki, ta bertan txaurik utzitzeko.

Olentzero egun aipagarri ura ezker, ordun Lizardi'n Aritz'ek emandako makil eder arekin zebillen beti eta arekin ere doa orain, bere Txurrumurru gañeko lanetara.

Aruntzean, Meaka ta Ariztiburu'ko atadietan eupada jakiñak bota ditu, lan ayetan lagun ditun mutillei, deika. Biak, bañan pixka bat lentxeago irtenak ziran.

Arin igo zun Enbido'ko malda, ea Txurrumurru'ra iritxi baño len, lagunak bidean topatu al zitzazkean. Ba zijoan Erlaitz'ko mendiz pare ta, ona nun jalkitzen zayon, bat-batean, Basurdi, aizkora ta guzti.

Ernea ta ariña zan Erko ta joku ayetara ondo oitua. Eta ura igarri bezin laister, atzera egin zun, basakatua bait-litz, jauzi ikaragarri batean, al bait bide zabalena bien artean utzi nayeon, nunbait. Bere jauzi pizkor ura arren, aizkorak bulargañean ikutu zun.

Bereala oldartu zitzayon Basurdi, berriz ere, tximista bezin usu. Erko'ren beso luze ta makil luzeagoak etzioten ondoratzen usten, ordea. Ez ori bakarrik, makillada gogor batekin, aizkoradun besoan jo, ta or bota-erazten dio bere aizkora, oñaze min, ta oju ikaragarrien artean.

Makurtzen da, bañan, laister; eta beste eskuakin lengo aizkora arturik, or botatzen du, egiñal guziekin, Erko'ren gorputz aundiara zuzen.

Erko'k, Basurdi'ren keiñua ikusi bezin laister, gorputzari bira osoa ematea egin zun; ez bañan, aizkora-ren bidea guziz galtzeraño, ta ala sayetz batean jo, ta aragi zati eder bat keduz, lurrera erori zan.

Naiz eta min bizia sumatu, etzion gure mutillak sauriari iñungo jaramonik egin, eta Basurdi'ri aizkora berriz ere eskuratzeko bide eman gaberik, sekulako kaska eman zion buru erdi-erdian bere makil gogorra-kin.

Korde gabe, zerraldo erori zan mutil basatia; ta aren azpian belar ugaria odolaz gorritzen asi zan.

Erko Basurdi'ren aurrean zutik gelditu zan. Karrask zegiotez ortzak. Izerdi otza zerion gorputz guztietatik. Itxiak zitun esku-muturrak. Eta arpegia zurbil eta arnas betetsu oraindik, biotzari atea zabaldu zion azkenean, eta onela asi zan berebiziko asarrean:

«Urde zikiña! Iya-iya nereak egin zin! Dollorra, zitala, maltzurra! Ez ditek gizonak orrela jokutzen. Egia, ez duk ik ez, gizonaren izenik, ez iterik ez eta egiñik ere. Argatik ote daramak piztien izen itsusi ori!

Basurdi baldin ba aiz, ba, jan zak orain, jan muturkatu dukan lur ori...!».

Etsayaren gañera makurtu gero, ta ezkerrekin aren eskumuturretik oraturik, biotza erne aztertu zion, belarria aren gañean jarritik... Ez, etzan oraindik il, ez. Pil-pil eta arnas zegion, oraindik bizitzak.

Burutapen naasiak sortu zitzaizkion, orduan, gure mutil suminduari bere irudimenean:

Zergatik bertan bukatu ez berak, Basurdi'k, artarako iñork biderik eman gabe, asi zun lan zital ura? Zergatik makil zorrotza pizti zikin aren biotz ankerrean sartu ez? Besterik merezi al zun ba?

Etzeukan artan, etzeukan, Basurdi bertan iltzeko egite artan, iñungo arriskurik, gañera! Etsai zakarra bertan akaatu, ta ango edozein zuloetara bota lezake lasai. Eta ez luke, ez aren usayak salatu lezakenen iñungo bildurrik ere. Laister jetxiko lirake Txurrumuru'ko sayak, eta egun bat edo bitan, ezur txuri ta legor biurtukio luteke aren gorputz giarra.

Eta zer besteak jakitea ere! Naikoa zun, bere burua gordetzeagatik il zula, esatea. Etzitzayon iñori arrigarri irudituko, Basurdi'ren seta gaizto ura ezaguturik.

Egia al zan, bañan, ori?... Ondo al zegoan gizon elbarritu bateri bertan bizia kentzea?... Ez... ez... Etzan ori gizonki jokatzeara... Dollorkeri aundi bat litzake, ori...! Eta bera etzan dollorra, ez luke izan nai, beintzat. Erasoan bai, erasoan ikaragarriak egingo lituzke, bertan garaille irtetzeagatik. Otzean, bañan, erasotik at, baña, ezin zion iñori, iñungo gaitzik egin.

Ez, ez. Etzan ori Kristauen legerik ere. Etzuten orrelakorik egingo berak ezagutu zitun kristau zintzo ayek, ez eta asmatuko ere...

Bai, bañan, eta bizirik utzita, Basurdi'k berriz ere maltzurkeriz erasotzen bazion?

Kenduko al zizkion, betiko kenduko ere, maltzurkeri ayek, buruan artutako kaskarreko eder arek!

Eta ala ez ba zan ere, Jaungoikoak lagunduko zion, etsai zitala berriz ere suntzitzen.

Ok danak ondo ta aztiro asmatu ondoren, artzai zakarra il ez eta, bere gisara utzi zun Erko'k. Eta bularreko sauria, belar berexi batekin txukatu ondoren, makilla artu ta Txurumuru'ra abiatu zan, maldaz gora.

Ala zijoalarik, beste burutapen zorrotzak etorri zitzaizkion irudimenara: Ondo al zan, ondo izan ere, gizon sauritua bertan odol-ostutzen utzitzea? Eta

mugonez jaso ez eta, sendagarririk eman ez eta, berak egindako sauri artatik, gizon elbarritua ondartzen ba zan?

Etsaya zan egia, etsai zitala, zitalik munduan bazan; kristau batentzat, bañan, etzegoan etsairik.

Ez al zitun Erroma'ko «anfiteatro» artan, etsayentzat barkamena eskatzen martiriak ikusi? Ez al zitun, batayo aurreko garizuma luze artan, alakoak ikasi?

Bai ondo buruan zeukan, oraindik, Samaritar biotz oneko aren ipuya. Eta zer arrayo! Gauzak..., gauzak... egiteko ikasten dira: eta ez buruan edukitzeko bakarrik.

Utzi zun, ba, zeraman bidea, ta Basurdi'rengana berriz jetxirik, bera bizkarrean artu, ta maldari arpegia emanda, Erlaiz'ko baserrira abiatu zan, naiz eta ordu erdiko bidea araño izan, ura bait zan bertanen zegoan baserria.

Pats eginda iritxi zan Erko Erlaitz'ko muturrera. Ala ere, ba zun, oraindik, eup azkar bat esateko indarririk.

-Ene...! Zer jaso da Erko? -Bertako etxeokandreak, atetan.

-Beko zoko ortan gizon au arkitu dut. Sauri aundia du buruan. Ta kordegabe dago, oraindik. Jarri izkiozu kopetean, ur otzian bustitako zapiak. Txukatu, gero,

buruko odola. Eta ez aaztu zer gerta ere, pasmo belar
miraritsu ayetaz...!

XVII

BASURDI'REN AXERIKERIAK

Basurdi gixagaxoak buru-besoak elbarrituak, eta liño-zapi zuriz loturik, ibilli bear izan zun, egun luzee-tan.

Gorputza elbarritua ba-zuan, ez ala gogoko bizia. Ta aren asmamenak zerabilzkin kalamatrikak...!

«Erko astabikalko arek eman zidan kaskarrekoa...! Ez nitula geyagorik Mendaur'ko nere mendiak ikusi al izango, uste nun iya. Eta ez nik an bertan garbitu astaputz ura nere lenengo kolpe artan? Nola okertu ote zidaken, xuxen-xuxen beregana zijoan nere aizkora-ren bide ura?

Almen berexiak ditu, bai, Erko arrayo orrek. Nola egin, bestela, orain arte egin ditun gauz arrigarri guzi oyek?... Lizardi'n, bi-biok zutik jarri ta, alkar eratsi bearrean, zorrotz begiratu giñanean..., begiak eta azarrea ta indarrak... danak, bat-batean, galdu banitun bezala, gelditu nintzan. Alako sorgiñezko zorrotasun berexi batek liluratuta utzi nindun...

Eta gero sortu zan ikaragarrizko ekaitz ura! Zer bildurra sartu zitzaidan, ezurretako azken muñetara-

ño. Ez nun nik, izan ere, alako bildurrik, iñoiz ere sumatu. Eta Erko ta Izartxo'ren, aurrean, nere burua ala ikusteak eman zidan lotsa!... Erko arrayo ura etorri zanetik, Izartxo ere beste neska bat zan.

A, Izartxo, Izartxo nerea! Esan bezaidan, esan neri, zer liskako edaria eman ziñan, itxitxo arrotz arek! Ez al dun egia, egi biribilla, niganako zegonan biotz on ori, sorginezko belar batzuz, bestelakotu diñala?

Ez egion jaramonik orreri, Izartxo, parte txarreko izaki gaiztoa dun eta... Eta esan neri, esan, nungo sorgin gaiztoakin egon dan Erko aker aundi ori...!

Ba-dakin...? Sorginkeri guzi oik kendu nai zizkionat berari... Ta kenduko zizkionat, bai, Izartxo... Siñistu neri, kenduko zizkionat, naiz eta egite ortan, nere artalde guzia galdu.

Eta gero, gizon gaizto ori gaberik, orrek egotzi dizkiñan lillura oyen gaberik, gu bi-biek zoriontsu biziko gaitun... Bai, Izartxo, bai, arrayoak ezpaitu...!».

Azkeneko itz ok, besteak baño beroago esan arren, etzun Basurdi'k ayek betetzko adorerik izan. Artarako, Izartxo'rekin jardun al izateko, Lizardira joan bear bait-zun.

Eta nor azaldu an, Uso atso erre aren aurrean? Deabruzko atso zikiña! Agertuko al zitzayon Basajaun

ikaragarriren bat, eta arri biurtuta bertan utziko al zun!

Sorgin, itxitxo edo aztiren batek Erko'ri bere almenak saldu zizkiolaren ustean zearo errotuta zegoan Basurdi. Erroma'ko Kristo ura zan bai, agian! Etzuan, bañan, Basurdi'ren ustean, atzerriko sorgiñak, emengo sorgiñen indar eta almenik.

Orregatik, emengo sorgin aundi batengana agertzeko asmoa artu zun. Erko'ren berri guziak arreritan, eta gero aren aurkako liska edo belar edo birao berexiak eskatuko zizkion.

Txurrumurru'n biltzen ziran, larunbatero, Olearso'-ko sorgiñak. An, mendi zutaren azpiko zabaldi artan egiten zituzten beren billerak eta dantzak an egiten ere adar okerreko akerrari bere agurrak; eta mendi azpiko leizeetan, berriz, nastekeri, liska, arao ta bira-oak...

Aski zun ba, ortarako, larunbata batean, ara joatea. An ikusiko zitun sorgin guziak bere nastekeri ta lan izkututsuetan... An ikusiko lizar-azalen sal arrigarrak, eta ezpel-makillenak, eta sator-odolenak... Eta an ere ikasiko amaika izkutu ta gauz miresgarri: giltz zulotik sartu-irtentzeak eta abar...

Eta aker-dantz erogarri ura, gero, iñungo diran lelo zoragarrietara neska ederrekin, lertu arte, dantzatze ura ...!

Larunbataren buruari, aker itsusi areri, agur egin ere bear zitzayon. Nolako agurra ordea! Aren ondoan belaunikatu, ta bere atzekalde zikin ura musukatu...! Etzeukan onek, egia, iñungo goxotasun eta atsegingarririk...!

Ala bakarrik, bañan, irabazi lezake Basurdi'k sorgin guzien buru, Akerraren ederra, ta au irabaztearren, bere oraingo inka larri artatik irtetzearren, batez ere, zer nai egiteko prest zegoan, artzai setatsua.

Eta bai, sorgin guzien buru aren ederrarekin, errex irabazi lezazke gero, ango edozein nastekeri, indar, aal eta izkutu guziak.

A zer festa, bai... larunbatean..., an Txurrumurru'n...!

Txurrumurru'n esan dut...? Erko'ren meatz artan...? Erko'ren lantegian...? A, a. Ez, ez. Zer jasoko zan, Erko'k bidean topatzean ba-zuan? Zer jasoko, ango sorgiñetara zijoala, jakitean?

Txurrumurru...! Sorgiñak...! Erko...!

Eta ez al ditu, gañera, Erko'k ango sorgin guziak bere alde? Nola, bestela, nola bertako sorgiñak erakutsi gabe, ango meatzak, aurkitu, ango burnia landu?

Ez, ez. Txurumurru'ra ez!

Sorgiñetxe'ko Txotxa, atso sorgiñarengana joango naiz.

Ez dut nik an, agian, Txurumurru'ko billerik topatuko. Ez eta ango lelo, soñu, neskatx eder eta dantzik ikusiko ere... Etzait, bañan, ardurarik...

Erko, Erko, nere etsai ori nai dut ondatu. Ori da nere oraingo seta guzia. Ta ori lortzearren, etzait, nere ardi guziak galdu, ta mundu guziko oñazeak eramatea ere, batere ajolik... Pozik jasango ditut danak, ori, nere biotzeko amets eder ori iritxiarren.

XVIII

BASURDI SORGIÑETXE'N

Arrats-illuna da. Laño beltzak zearkatzen dute zeru zabala, alderen beste. Ta illargia, bildur ba-litz, iges doa ayengandik, arpegi zurbil. Txakurrak zaunka ari dira. Aizeak txixtu gaitza dagi sasi ta zugaitzetan, eta ayen itzak beltzak luza-laburtzen ditu.

Ayetako itzal bat dirudi Basurdi, basoko bide estuetan barrena. Sorgiñetxe'ra doa. Ollar bat darama besapean. Eta Txotxa, sorgiñaren eremuetara irixten danean, atera jostorratz bat, eta biotzean sartzen dio egaztiari.

Ollarraren zaratara, inguru guziak argitzen asten dira. Etxeak orma zarrak untzaz jantziak ditu; eta gañean olezko dorre bat.

Illargi orixta aren argi motelera, zugaitz eta landare nabarmenak ageri dira, ireltxu gaizto ta mamu itsusiak.

Bide bazterreko zurkaitzetan. bele ta moxolu ika-ragarriak kua-kua ta uuuka.

Etxeko ate gañean, xaguzar aundi bat dago, egal batetik ormari itsasita, eta iñoiz ez entzundako ojuak ateratzen.

Atea zabaldu, ta Basurdi bertan sartzen da. Gela asko ditu etxeak. Erdiko aundienean, lastozko aker aundi bat ageri da, argi-zuzi bat adarretan. Inguruetan, ollo lokak, katu beltzak eta zapo itsusiak. Zapoak beltzaz jantziak ta girgildun ugaltxoak lepoan. Eta orma zarren apaletan, muskerrak, sugeak, txakur, txerri ta tximuen buru-ezurrak...

Basurdi bazterrak ikusten ari dala oraindik, argitasun berexi batek bete ditu inguru guziak. Begiak altxa, eta Txotxa, etxe artako etxeko-andre sorgiña ikusten du Basurdi'k.

Txotxa'ren agertzearekin bat, olloak karakaka asi ziran, eta xaguxar eta belatxingak egalka. Ipurtargitaldea zetorren sorgiñen aurrean argi egiten, eta aren atzetik zapo-taldea bere girgillei eragiñez.

Kopeta zimur, buru-soil eta sudur luze, ollo zar bateren ite parregarria zizun atso sorgiñak. Begiak illun zitun, ortzik gabea aoa, beltxaran eta zimurti larrua, ta kokotxa ille zuri ta gogorraz jantzia.

Sorgiña sukaldean sartu da bere talde nabarmen-tsuakin. Eltze bat du sukaldean, laratzetik zintzillik.

Eltzeak bor-bor. Eta eltzearen bi albotan, bi sai tente, erne ta geldi. Katu beltz bat dabilkio atsoari gona azpian, isats muturra agerian.

-Nor aut, seme, nungoa aiz? -Ok izan ziran sorgi-ñaren lenengo itzak.

-Ni...? Mendaur'ko Basurdi... Zure laguntzaren billa nator, sorgin ama...!

-Ondo zio, seme! Eta zer dakark?

-Ikus emen, ba...! Nik... Izartxo, neskatx polit ori maite nuan... Gero, bañan, Erko, mutur luze ori, etorri, ta eskutik kendu egin zidan... Ez nolana ere kendu...! Ezin bestela, ta... nere neska lilluratu egin zidan ortarako; lilluratu bai, nik eztakit nungo liskaz... Eta ni ere... makil gogor batekin buruan jo, ta iya zerraldo utzi nindun bertan... Ikus or ba, nor dutan nik nere bizi ta zorionaren etsai!

-Zer nai duk nik egitea, ba, seme?

-Zer egin, esaten duzu...? Erko zital ori lenbaitlen ondatzeko, zure eskuarteko liska, begizko edo birao eragilleenik bertan eman...! Nik, gero, areri bereala egotsirik, bertan zanpart egin dezan, arrayo arek...!

-Ain giza gutxi al aiz ba, ire kidetsuko mutil bat, ik eorrez ez ondatzeko...?

-Ni gizon gutxi...? Ez dago Mendaur, Baztan eta Olearso guzian ere nik añako gizon eta pizti lurreratu ditun mutil azkar eta indartsurik...! Ai...! Esku-muturren lana ba-litz bakarrik! Erko madarikatu ori sorgindua dago, ordea, sorgindua, Txotxa... Eta ortxe dago koxka...!

-Sorgindua...? Bai ote...?

-Sorgindua..., bai noski, ama. Ez nintzan ni, bestela, onara etorri izango. Onezkero, bertan garbitua izango nizun, da...!

-Nork sorginduta zegok, ba?

-Ez dakit nik ziur ondo... Erroma'ko Kristo azti aundi orrek edo...

-Ki... ki... nola esan duk, Basurdi?

-Kristo...! Ez al duzu izen orren berri? Eta ortarako bakarrik, Erko'ren sorgintsu ori kentzeko laguntzaren billa etorri nauzu, bakarrik...! Bestea, bizia kentzeko lan atsegin ori, nere gain artzen dut, ama. Eta ez da ez, ez du orain, sorgintsu ori kendu ezker, nere esku-tik iges egiten lanik izango... ez orixe!

Basurdi'k itz egin bitartean, sorgiñak, gona azpiko katu beltza, eskuetan artu, ta bere begi urdiñetara zorrotz begiraturik, sorgiñezko itz ok esaten asi zitzaizkion:

*Mix-mix, Errainix;
arratoya kolkoan,
ematen, ematen, ematen...
neronei ematen.
aala maala,
Kristoren aala;
indarra mindarra
Erko'ren indarra.
Pun!*

Bitan, irutan, esan zitun itz berak, katuari geroago ta zorrotzago begiraturuz. Alperrik, bañan. Etzun katuak iñungo keiñu ta zirkiñik egin. Katu madarikatu! Eta artara beartzeko, atsoak jostorrazakin gibelian zulatu zunean, katu minberatuak sekulako atzaparkada egin zion sorgiñari, eskugañean.

-Ezin diat, Basurdi, ezin diat, azti arrotz orren aurka ezer ere egin...!

-Sorgin madarikatua...! Zer arrayoko sorgiña aiz ba i...? ...Mendaur'en bizi nintzanean, Akelarre'ra joaten nintzan, pizti edo etsai baten aurkako laguntza eske... Ta beti, entzun dun ondo Txotxa, beti iritxi izan nun gogo nun guzia... Edo ta, beartsu bat naizela uste

al dun, bestela ta ez diñatela iri ordaintzeko diñik...? Lareun baño ardi buru geyago larratzen ditun nere zelayetan, ba-dakin...? Eta nayago diñat, bertan danak galdu, nere barruko asmo au eskutik galtzea utzitza baño...! Entzun dun, Txotxa...?

-Baita... baita... Emengo arao-biraoak baño eragi-
lleagorik nai ba-dituk, oa, larunbatean, Txurumurru'-
ko billerara... Oa, bai, arin....! Ez au iñork onara deitu!

Basurdi'k Tx urrumurru izen ori entzun zunean,
bare ta apalago jartzen asi zan.

-Txurumurru... diozu...? Ez, ez. Ez neri aitatu orre-
lako izenik. An ere ezaguna bait da Erko ori...! Tia...!
Erko'ren sorgintsu ori kendu ezin ba-duzu ere, aren
bizia kendu al zenezakezu, beintzat...?

-Etsayen bizia kendu...? Amaika artarako nasteke-
ri ta arao-biraoak egin dizkiat, mutil!

-Bi ardi-buru, alako araogatik!!

-To...! Gizon azkarra aiz?

-Uste artan egon naiz beti.

-Artu ikatz-mutur ori, ta arraskatu, sukaldeko lur
ortan, Erko, ire etsayaren gorpuzkera.

-Tira ba...

Ikatza eskuan, makurtu zan mutilla; ta arrasto
bakoitzaren ondoren, beti zutiturik (bere antzea ikusi

nairik edo) bukatu zizun Erko'ren irudia, noizbait... moldakaitz itxura ba-zizuen ere... Bear baño anka luzeago ta burua aundiago dun atera zitzayon, baño sorgiñari ondo iruditu zitzayon, eta... pozik gelditu zan mutilla!

Aizto aundi bat artu zun, ordun, sorgiñak. Eta borbor ari zan eltzean sartu. Aren gonaren ikutuaz, sayak egalak aztindu, eta karrak aundi bat atera zuten. Atsoak aiztoa eltzetik atera gero, ta Basurdi'ri eskeñi zion, sator-odolean busti ondoren.

-To... eiztari-adoirik ba duk?

-Adoirik diozu...? Ez neri galdetu ori... Galdetu Mendaur'ko zugaitz, egazti ta piztiei...

-Artu, ba, ordun, aizto au, ta jaurti yok indarrez, Erko'ren irudi orreri. Xuxen jaurti, gero, alik eta biotza-ren erdi-erdian sartu al ezakion...

-Bai, bañan... Ez al dizut, sorgindua dagola, len ere esan?... Eta ala danez, nere aiztoaren bide zuzene-na ere okertu lezaikedala, len aizkorakin eraso nion artan egin zidan bezela...? Txotxa, beste bi ardi-buru, arao edo nastekeri berri bategatik.

-Nere begizkorik okerrena botako zioat, Basurdi. Eta ez dik artatik iges egiten lanik izango.

-Eztakit, ba...! Ez al dira, begizkoaren aurkako kutunak ere, aurkitu izaten?

-Bai... Ba dituk, bai batzuk... Ez diat bañan uste, Erko'k, nere onen aurkako kutunik, idoro izan al leza-kenik.

-Ez geyegi fidatu, ama. Erko orrek kutun bat dara-ma, bular gañean. Eta ez al da ori izango, berari, alako indar eta aalmen berexi, ematen dizkion zera ura?

-Nolakoa duk, ba?

-Kristo aren irudi edo kutuna izan bear dizu, bi arrasto...

-Aski..., aski... Eorrek ikusi duk ondo...! Ezin diat nik ezer, orren aurka.

-Beste bi ardi... nastekeri edo ta birao eragille batengatik...

-Orain ez, orain etzaik kale irtengo, Basurdi...

Eta exerita dagoan alkitxotik zutiturik, su gañean bor-bor ari dan eltze aurrera joaten da. Aren era berean, inguruko ollo, zapo, arratoi, moxolu, bele, sai ta katuak ere zutitu, ta sorgiñaren birundan jartzen dira danak, erne ta buruak gora.

Makurtzen da sorgiña eltze miresgarri aren gañean, da sekulako keiñu ta zirkin itsusi ta bildurgarri egiten asten da esku-arpegiakin.

Eta ala keiñu ayekin batera, birao beltzak aotik jalkitzen asten da, ots legor eta pitzatu batekin. Ta ango zorigaiztoko egazti ayek ulu erdiragarriekin laguntzen diote, ta Basurdi'k ere laguntzen oju basatiakin:

Ilko al duk, Erko gaizto ori. Amen.

Itoko al duk, Erko zikin ori. Amen.

Lertuko al duk, Erko tripaundi ori. Amen.

Tximistak erreko al dik, Erko kiskali ori.

Amen.

Otsoak jango al dik, Erko iresle ori. Amen.

Lepazurra autsiko al dik, Erko zuri orrek.

Amen.

Amaika milla basajaunek eramango al ditek, Erko lillutzalle ori. Amen.

Tximistak burutik sartu ta orpotik ateta ta errebenta arrayo egingo al d i k , Erko zital ori. Amen.

XIX

MAITALEAK

Gure maitaleak, bitartean, bere maite jokoan, ezeri oartzeko ta iñori jaramonik egin gabe.

Ba dituzte beurek ere bai, beren kezka ta ardurak! Maite-kezka oen gozoa bañan! Eta, ez diozut, ala, iñungo aoberokeririk, zoriontsu baño zoriontsuago bizi dirala esaten ba-dizut.

Izartxo bizi, batez ere.

Txikitatik, amabi urte zitunetik bai, asi izan zan bere liño-baratza lantzen. Eta artan eman izan zitun bere udaldiko ordurik ederrenak.

Epailleko ozkirrietan, bere atxur eta laitxoekin, lur beltza maitekiro lantzen... Orrilletako kukuetan, liñudi urdiñak xirri-xarra saratzen... Garagarrilletako eguzkitan, errotik banan-banan ateratzen... Agorrilletako bere galdatan, ur pol-poletan garbitzen. Udazkeneko aize fir-firetan, plisti-plasta arri gañetan jotzen.

Artan ere, liñu-lanean alegia, eman izan zizkizun sukaldeko negu-ordurik geyenak. Gorundu, matasatu, arildu, eun, josi: amaika atsegin eman izan zieten, lan

ugari ok, bere esku ariñei, amaika amets eragin bere biotz aundiari.

Etzekian ordun, bañan, nora joango ziran oyal luze ayek. Ez eta nork bilduko zitun bere soñean ere.

Irudimen sorgintsua izaki, bañan, sekulako maratil gozo zerabilzkin bere buruak. Eta baserri on bateko etxeoandre zabala zirudion onek, eta mutil eder bateren emazte zoriontsu.

Eta arrigarria!

Oraingo egiak lengo amets zoro guziak gainditu.

Etxe on bateko ametsa zizun, eta Urgoiti, Olearso guziko, etxerik onenara zijoan.

Urgoiti'koa zan, izan ere, sua pizten eta gurdia lantzen lenengoz ikasi ta ondorengoei erakutsi zien Axar-ko, gizon bitxi ura...

Urgoiti'koa ere Ureder..., Txurrumurru'ra igo, ta leen an, itsas-mugan, ageri zan Atlantida eder ura itzalita ikusirik, aren billa illateetan ibillita, aren alden-tze edo ta galtzearen berri eman zigun, gizon bular-tsua.

Urgoiti, baserri zabalako etxeoandre..., Urgoiti'ko gazte ederraren emazte...!

«Ai... Erko, Erko...! Etxe zabal ori baño askoz ere gogoanago aiz neretzat, Erko, mutil eder ori...!

Eta leen, maite ez ezagunaren ametsetan, an gozo musukatzen ba-nizkan nere eskuko arien korapilloak, nola uste duk, Erko, ari naizela orain nere iganako maite lan oetan?

Nere jostorrazaren zizta bakoitza biotz-zizta bana duk. Eta iretzako oyal eta soñeko bakoitza, aneika maite-ziztaz eo diat:

Onako txano au, ire buru eder eta jakintsu ori jaz-teko.

Onako ator au, ire biotz zabal ori gordetzeko.

Onako jaka luze au Olearso'ko jaunen artean jaun aundi ta eder agertzeko, artarako jakaren bearrik ez baldin ba-duk ere».

Bai, Izartxo, beste bere kideko neskatxa guziak baño txukunago, ari zaizu bere goru-lanetan. Ez bait-dizkio Erko'k burnizko jostorrats eta goraizi berexi oik alperrik eman. Ez da alako gauz ederragorik Olearso guzian, ez eta alako maitasun fiñakin egindakorik ere.

Ez da, beraz, arritzekorik Izartxo'k dagin gain-gai-ñeko lan ori. Ba du, gañera, nun berritu, artan galdu-taka indarrak; nun husti, ari-korapillotan musu ta musu legortzen zaizkion, ezpañak. Alboan bait-du bur-nizko konketa polita.

Erko'k esku-ikusiz emandakoa au ere, ta mutillak ere artan sarri jarri bide ditula bere ezpañak eta, aren ezkoak baño maite kutsuak geyago suspertzen ez ote dun, nagokizu.

Suspertu edo moteldu edo..., aldatu beintzat. Bai, leen ez bezelako, berria duzu orain Izartxo.

Etxean alayago, zalapartaritsuago, kanta-kantari beti, bere eskuko lan maitagarri ayetan.

Eta lagunen artean? Lagunen artean ez, orain arte lagun artekoa izan ba zan ere, iñor izatekotan!

Eta lagunen artekoa, baso-lanetan; gaztain, ur eta makatzak biltzera joaten ziranean. Ango itz-otsa, orduan, ango par-algarak, ango irrintziak!

Lagun artekoa, ortzegunetako jayetan, batez ere.

Dantza atsegiñik zitzayon, alakoetan. Ta trebea, liraiña, ariña ta atsegiña bait zan oso, arekin dantzan ekiteko danak irrikan zeuden. Eta berok ortzargi ta bakun artzen zitun danak.

Orain alakorik ez. Ez dizu, Erko'rekin ezik, beste iñorekin ibilli nai. Eta bere maitearekin biltzen daneko itz atsegin, zalapart, kir-kir eta irri-algarak!

Jostorratz, goraize ta konketa berexi ayen ordain-garriz, lepoko oyal nabar polita eskeñi dio Izartxo'k bere mutillari. Eta beti arekin agertzen zaizu mutilla

jai-egun guzietan. Eta Izartxo'ren poza, dantza-leku guzietan, aren eskutik agertzen zaizunean...!

Buru zut eta argiz, «iñoiz ikusi al duzute alango mutil lerdénagorik», neska guziei galdeka bai-lijoen dabilkizu, olakoetan.

Eta aren dantzak gero! Zumea ez ain biguinki kulunkatzen aizearekin jostalari. Lorea ez ain poliki zambulaten pinpilipauxekin jardunlari. Maite-gantzuz igurtzita bait-ditu beso-gerri-oin liraiñak!

Bestelakoa ere Erko, Izartxo maitatzen asi zaizunetik!

Etzan len dema, ez joku, ez eta dantzarik Erko ara etzijoakenik. Eta iñor baño geyago bait-zan joku-dantz guzietan, ayetako buru aukeratzen zuten beti bere lagunak, Olearso'k beste Ibarretako gazteen aurka zutenean dema.

Ez dizu, bañan, orain ayetarako gogorik ez eta betarik ere.

Bere oiko lagunetik at, bakarrik eta soil, iñungo lelo alai guztiak txixtuka, ta bere ixil-aldietan bere buruarekin solasean, berebizikoa zabiltzazu milla lanbide berexietan.

Ardura, saya, lana ta ekiña biurtu zayo Izartxo'renganako bere maite beroa. Ta arekin bait-lun orain

dema, nor ezkontzarako obeto gerta alegia, nork ezkontzarako arrio ederragoa eraman jokoan bai-litz, eroenak egiten ari zaizkizu.

Bere maiteñoaren laingo kabia egin nai gajoak, orratx.

Etzan lenago ere Urgoiti baserri txiki ta baldarra. Bañan ainbat aundi ta ederrago egin nai dizu. Bere biotz-ondoa bezin aundi ta eder!

Ba du, artarako, Txurumurru artako lanez gañera: eta esiak zabaldu, bazterrak garbitu, baratza-soroak aunditu, mandioak ornitu...

Ta, landare berrietan amets, arlo aundiagoa urratzen asi zaizu, bere burnizko golde berriaz.

Ta sekulako enbor-pilloak ere egiten, bere burnizko aizkora berexiaz, etxeko-andre berriaren su berrian ametsetan.

Eta etxeko orma zarren zuloak itxitzen, aize-begi txixtulariak Izarxo'ren gorputz beroa oztu ez dezan.

Eta tellatuko utsuneak betetzen, ituzuraren tantan gogaikarriak maiteñoaren loa aizatu ez dezan.

XX

AZTALAK ODOLETAN

Kabiak baño arreta aundiago bear oraindik, kabia beteko dun biotz maiteak, Erko beti Izartxo'nean, noiz-nai ta edozein aitzakiakin: iratzeak dirala, egurak, esiak garbitu bearrak, ote-jotzeko lanak,... beti Izartxo'nean.

Gaur esi-garbiketan dituzu biak.

Erko'ren burni-ziriakin zatitutako, enborrak Xinko ta Xanko'k lerroz-lerro jarriak dituzte orma zarraren arrimuan.

Eta aritz sugillea, egur txeakin naasita, obeto erre-tzen baita, saratz, altz eta gaztain-zamak egiten ari gazte biak.

Illun dira, udaran, esiak, osto, sasi ta iratz muske-
rrez jantzita. Zeñen argi, bañan, oraingo neguan! Iratz gorri erdi urratua azpian; eta ayen gañetik, saratz, altz eta gaztaiñen makil lepa-soillak.

Erko'k ebaki ala, Izartxo'k banan-banan tolesta-tzen ditu txukun; zurrak zama batean, eta sugi-lleak bestean.

Ta alako bira batean, kabi zar erdi urratu bat aurkitu neskak esian, eta Erko'ri eyagoraz:

-I, Erko, kabi bat, kabi bat!

-Ikus, onatx!

-Norena duk?

-Kardantxoriena...!

-Kardantxori...?

-Bai, kardantxori, gure aritzarik garayanean pausatirik «popillit-popillit» aritzen dun, txori alai ori dun. Eta gure arteko txoririk polit eta abeslari onena dun.

-Kabi zarpildu ontan, txorikume guziak otzaz ilko ituan, noski?

-Bai zera! Berri-berrian aski kabi bero ta goxoa zan au bai!

-Goxo ta beroagoa egingo diau, bai, guk gurea, Urgoiti eder ortan.

-Bai...? Etzeukanau an, Izartxo, sugilleak metatze-ko, Xinko ta Xanko'ren antzeko aurrik, bañan?

-Ez estutu, Erko, laister izango dizkiau.

-Ta bitartean?

-Bitartean eta gero ere, ni ariko nauk beti, Erko. Ez gaitu otzak iñoiz atzemango.

-Etzekiñat ba, Izartxo...! Uργοiti, etxe zarra, kabi au bezin zarpil zegon, eta ituzuraz beterik zeukan tellatu guzia.

-Ez estutu, Erko...! Nik, ik egindako burni-oyal oye-takoaz bereala estaliko etxe-gain guzia.

-Orma zarrak zuloz beterik zeuden, bañan...! Eta ayen aize-txixtu biziak loa galeraziko.

-Ez estutu, Erko...! Eginda zeukat nik oi biguin eta beroa... Lo errexago izango diau artan, aizearen kantu eztitara...!

-Oi bigun eta beroa...? Ez intzan, orren artillen billa, Basurdi'rengana joango gero!

-Ergela...!

-Ez omen zegonan, mundu guzian ere, alako artil biguñik eta...

-Astakillo aundiagorik ez, beintzat! Y, ta min aundi egin al zikan, aizkora madarikatu arekin?

-Ba... sendatu zaidan.

-Eskerrak, pizkor ibilli intzala, bestela...!

-Bai, ire aitonak emandako makil oneri esker!

-I, ta ez didak erakutsi, oraindik, sauri ori...!

-Zertako nai dun ikusi?

-Ona emen bestea... Zertarako? Ikusteko ba..., zertarako naiko diat ba?

-Tira... begira ba...!

Ta Erko'k bulargañeko atorra askatzen du.

Ondo itxi gabeko sauriak, txira ubela zun erdian, eta printzezko uztai gorria inguruan.

Ta Izartxo'k, arpegia zimurtuz eta begiak zabalduz:

-Ene! Aundia izan uan gero, ta biotzaren erdi-erdian gañera! Lotsagabe zikiña!

Eta polliki-polliki eskua luzaturik, txira ondoko azal-printzetan ikutu zun bere maitea, leun eta biozti. Tximist-adar antzeko zirrara batek jo zun, une berean, goi-berako tarte guzian. Ta gorri-gorri ta dardarati:

-Ta ez duk nik sendatzea nai izan e? gaizto orrek!

-Ain sorgintxoia izanik, gaiztotu egingo iñala berdin ere, uste nian da...!

-Ergela...!

-Ez diñat, orain, sendagai geyagorik bear ba...!

-Nork zekik, oraindik! Nor fidatu, fidatu ere, Basurdi astakillo orrekin. Astakillo ez besteen astakillo! Ez al dik beste oztopo berriren bat jarriko...

-Bai zera! Ederki zapalduta utzi zikan ire aitonaren makil onek.

-Ba zekiak ez aula iñoiz ere azpiratuko agirian. Izkutu ta maltzurki erasotzen ba dik berriz ere, bañan?

-Al guzti dun Kristo gure Jaunak alde-aurre zekiz-kin geroko guziak, eta ezin dizkiñan bere maiteak bertan-bera utzi.

-Aa... bai... gure Kristo! Ez artaz oroitzen bear aña!

Ta alako asmaketa bioztietan dabillen, Izartxo lar luzeen artean oartzeke sartuta ok aztaletan loturik, sekulako zarrast-aria egin, bere aragi zurietan.

Ai! bizi bat atera zun neskak, eta Erko maiteki ondoraturik:

-Zer sartu zain, or ankapetan barna?

-Lar txar ok?

-Itxoin, itxoin. Ez mugitu!

Ta arin bertaratuz, eskuz polliki-polliki lar-aria kentzera doakio. Ez nolana, ordea! Gonazpian biribildu bait-zayo larra, lotsa ez lotsa, gona luzea jasorik, dar-darati ta leun itsasitako aragi zuritik kendu bear izan dio.

Neska, bitartean, erlauntz artakoan bezela, jauzika ta zinkurinka.

-Bai..., asi adi, orain, jolasean. Kenduko zaizkin, orrela, arantz zorrotz oik?

-Ezin al abil polikiago?

-Bai, polikiago ...! Goxoa zion au!

-Orren gogor itsasi al zaidak?

-Egoten al aiz geldiago, gonak urratu edo ta aztal guzia larrutzea nai ez ba dun!

-Oraindik geyago?

-Geyago bai. Orain bertan ordaindu bear ditun ire gaiztakeri guziak eta...

-Kendu ba lasai...

Ta Erko'k bukatu zunean azkenean eta begiak altxa, arpegi gorri ta begiak malkotan ikusten dizkio bere maiteari.

-Bai al dakin zer gogoratzen zaidanan orain?

-Ergelkeriren bat, beti bezela...!

-Ostoak intzetan ditun larrosa gorri ederra dirudidala.

-Ixillik ago, ergela, ez besteen ergela!

-Ta larrosa, lore guzien artean lorerik politena dan bezelaxe, iñoiz ikusi audan erarik politenean ere ikusten audala orain...

-Bai, ni oñazetan ikustea gogo zaik iri, nunbait!

-Goazen beko iturri ortara, aztaletako odol ori garbitzera, sorgiña!

Uraren igurtziaz aztaletako zuri-gorria areagotzen joan zan da, Erko'k berriz:

-Arpegia intzezko larrosa gorria...! Eta aztalak sagarraren lore zuri-gorria...!

-Ta ik larretan esku latza, ta uretan otza...

-Ala ere zerabilzkin Basurdi'k bere ardi setatsuak.

-Basurdi, Basurdi...! Basurdi bera ere ez al duk naiko setatsu.

-Eta ala izanda ere zer?

-Zer, esaten duk, oraindik? Eta beste maltzurkeri-
ren bat asmatzen ari bai-zaik...?

-Ez al diñat, len ere esan, Kristo'ren eskuetan gau-
dela, eta ez dagola alango esku altsu ta maitekorre-
rik?

-Ixo, ixo, Erko! Au nere burua...! Aantzi egiten
beti...!

XXI

BASURDI'K

EZ AMOR EMAN NAI

Pozik irten zan Basurdi Sorgiñetxe'tik. Orain bai, zion bere buruari, orain bai nerea aizela, Erko gaiztoa. Nerea ez. Obeto esan: inguruko sorgin, gaizkille ta oker guziena.

Ta laister jauziko dituk, ire buru gañera, iñungo tximist eta erauntsiak.

Laister asiko ire billa, izkutuzko indar batek eraginda, iñungo otso ta suge, mamu ta piztiak.

Laister asiko ire atzetik basajaun eta ireltxu galgarrri, baso beltzetan eta bidekurutzetan eta xoko izkutuenetan.

Laister asiko ere jazarka bertako ibaiak eta errekek eta mendiak.

Eta zugaitzak ire buru gañean astinduko dizkitek bere adar lodiak. Eta sasi ta oteak ire aragi guri oyek larrutuko. Eta arriak ire oñak zulatuko. Eta, azkenean, ik ainbeste aldiz ostikatu dukan, lur ori erdiz-erdi ideki bai, ta bertan betiko iretsiko.

Eta txixtuka jarrai zun gero, baso illunen barrena. Barruko oldoskun ayek pakean utzitzen ez bañan, eta... lengoetara jorik, sorgiñaren zortzi birao ayek berritu zitun ojuka, bada ezpada ere. Ta txixtuka, gero, berriz ere. Birauka gero... eta ala beti, bere txabolana sartu zan artio.

Eta ala jarraitu zun, gero ere luzaro aski, bere artaldearekin larrean paketsu zebillela... Ez galdu nai, iñundik ere, birao ayen oyartsuna. Ura galdu ezkeru, ayen indarra ere galtzen zala uste nunbait.

Eta inguruko erreka txiki guzietara, ta bertako Bidasoa ibai aundiera joaten asi zan, Erko'ren gorpua itorik noiz ikusiko. Eta bide-kurutzetara ta basoetara, ango aritz edo gaztain aundi batean dilin-dan noiz ikusiko.

Ta arritzekoa!, joan zitzayon, joan benetan, ekaitz eta tximisten bildur ura... Poz-esnetan jartzen zan, alakoetan, Erko ori laister ikatz eginda ikusi bear zula ta...

Bañan, bai zera ikatz biurtu! Egunak joan eta egunak etorri, etzan Erko'ren gorpurik, iñun ere, ageri.

Geyago oraindik. Erko bizirik, eta ondo bizirik zegoela, ta iñoiz baño obeto zebillela jakin zun, zoritxarrez jakin ere...

Goiz artan bertan, Erlaitz'ko gañean ikusi omen zun bere morroi Zipotz'ak, Txurrumurru bere meatzetako lan ayetara zijoala...

Ai Erlaitz, Erlaitz! Zorigaiztoko leku sorgintsua! An zun, oraindik, buru gañean, mendi artan, artutako ebaki-ondo larri ura. Sauria itxia zegoan bai, bañan, eguraldi aldatzetan, zaztateko onak sumatzen zitun, oraindik. Eta okerrago zun, besoko elbarri ura. Ezin bait zun beso ura, len bezin azkar eta eroso erabilli.

Eta Erko arrayo arek egingo zitun algarak, beurek biok bakarrik zekiten, zoko artatik igarotzean.

Lizardi'ra ere maiz joaten omen zan mutil etsaya. Aa...! Eta zer egingo ote zun gizon arek Lizardi'n. Zer esango ote zizkion an bere Izartxo'ri.

Esana zion, onezkero, bai, Erlaitz'ko zera ura! Zeatz-meatz esana gañera! Eta gero, an bere kontura, eratsiko zitun zerak... Zer itzez jantzi ote zun zorigaiztoko egitea?... Maltzur, zital, odoltsu, urde, baldar, dollor, kakaputz... orrelako ta oyen antzeko itz goxo ta aipagarriaz, noski. Eta zer keiñu, zer esku arpegiari eragite, zer zirkiñaz lagundu ere ote zun jardun zitala?... Aa! Eta zer par-algarak egingo zituzten aren kontura...!

Bai al zekin, jakin ere, berak, Basurdi'k alegia, zenbat iraun zun, an lurrean etzanda, kordegabe? Eta zer egin ote zun Erko'k, bitarte ortan?...

Ai! Eta zergatik ez ote zun bera an bertan il? Orixe ere arrigarri zan ba... Etzion onez, noski, berari bizia barkatuko, ez. A! Jakin, jakin zital arek ere, ezin leitekiela kordegabe dagona iraindu, ez eta oñaztatu... Eta ala, bizia luze-erazi zion, beste eriotz lotsagarri ta gogorrago bat eman nayan...

Eta alakoak asmatzen ibilliko zan, ura bai, seguro aski. Laister Olearso'n bilduko zan Batzarraren aurrean salatu naiko zun, nunbait. An, danen auman, zakur zorritsu bateren antzera, lotsagarriro il-erazteko...

Ai... Basurdi, Basurdi bai al duk lotsik? Nun dituk arestixeko berriketa, arrokeri ta azkarkeri ayek, nun? Erko zorritsu orren parregarri gelditu bear al duk betiko?

Xuxpertu bearrean ez al zikan kikilduko Txotxa arrayo arek? Sorgin ederra zioz atso madarikatu ori! Eta zozo onek, nere ardirik ederrenak eman berari...! Zozoa, ez besteen zozoa!

Sartuko al din, Txotxa madarikatua, sartu aker aundi arek bere adarra, ire sayetz igar ortan...! Osti-

koz joko al din, jo sabel erdi-erdian...! Kaka egingo al din, egin aren ipurdi beltza musukatzerara uanean...! Eta kaka-pil ortan eortziko al aun betiko, eortzi, buruko zima guziak ostendu artio.

Eta zer egin orain?

Utsak izan dira nere orain-arteko egiñal guziak. Utsak ere sorgiñaren birao ta nastekeri guziak. Sorgiña al zan, izan agiz, Txotxa aizeputz ura? Eta ez al zidan Txurrumurru'ra joateko esan, an bizi dirala egiazko sorgiñak, sorgin eragilleak eta...

Alaxe da bai...! Nola joan, bañan. ara? Erko'k nere aurka jarri bait ditu an danak. Ez daukat nik Txurrumurru'n ezer egitekorik. Erko'ren eremua da ura, nere etsayaren lan-tokia.

Aa...! Artzaren nere eizeketa eder ura! Ezin nian laisterka eizatu ez, egia, ez eta burrukan ere; menderatu nian, bañan, azkeenean, maltzurka bazan ere. Erko au ere artzaren antzekoa da. Ezin atzitu izan dut burruka, ez eta laisterka ere... Bañan, atzituko dut bai, atzituko, arrayoak ezpaitu, naiz eta ortarako iñungo maltzurkeri guziak agertu bear baldin ba ditut ere...

Datorren Batzar orren aurea artu bai, ta bertan salatu bearra dut, Olearso'ko jaun guzien aurean salatu, bai. Eta kostako zayo bai, bere burua garbi-

tzen, kostako, nik edatutako sare oyek urratzen. Ez diat uste, Mendaur'ko usoak baño zori ohea izango dunik.

* * *

Etzun, bañan, Basurdi'k Batzar artan eser-lekurik. Ezta bear ere. Artan eseriko ziran bi etxeko-jaun erosiko zitun, eta ayen aotik mintzatuko zan bera, gogor mintzatuko gañera.

Artu zitun, ba, bi ardi gizen eta lau gazta eder, eta Urgoiti ondoan dagon Altzi baserrira abiatu zan. Altzi ta Urgoiti aserre ziran aspaldi, mugarriak zirala ta etzirala. Ta aserre ontaz baliatu zan gure Basurdi.

Ta etzun lan aundi izan Altzi'ko etxeko-jauna Urgoiti'ko Erko'ren aurka jartzen. Sekulakoak esan zitun an, mutil kristau aren aurka: Txurumuru'ko ura esan batez ere: Erromatarren izenean... ayen izenean eta onean, an maitagarriak gordetako abereski ayek lapurtzen ari zala. Berak, Basurdi'k ederki ikusi zula, bein baño geyagotan ikusi ere. Eta berak ezin zezake-la ango Batzarrean ezer ere azaldu, bertakoa ez zalako. Eta orregatik zetorrela Altzi'ra, gizon zintzo, ta erriaren onari begiratzen zekiena zalako... Ta etzala

gauz aundi, bañan, utskeri ayek, arren, artzeko, bera-ri egindako arrera on aren mesedez.

Ta Altzi'ko jaunak: bayetz... eta egiñaletan sayatu-ko zala eginkizun aundi artan... Ba zekiala Urgoitita-rrak giza txarrak zirala. Etzula, bañan, iñoiz alako gau-zik ayengandik entzun... Eta orain danak batean ordaindu bear izango zituztela, ta...

Basurdi'ren poza Altzi'tik irten zanean. Altzi'ko jau-nare'kin ez diat aski, bañan, -asi zan bere buruakin-, Urgoititarrekin aspaldi aserre dagola ta, ez diote agian, jaramon aundirik egingo... Beste jaun bat, eta jaun zintzo bat bear dut nik, gauzak itxura on artu, ta danak errax siñistu desaten...

Artu ba, beste bi ardi ta lau gazta eder, eta Mendi-bil'go Kostorbe'ra joan zan, gure gizona. Kostorbe'ko jauna, jaun aguretsu agurgarri bat zan. Eizon bakuna. Etzakian zer zan gezurrik. Etzun iñoiz iñungo dollorke-ririk egin.

Eta asi zitzayon gure Basurdi: etzala Erko mutil gaiztoa... Bañan, zorigaiztoko Erroma artan Kristo zeritzan azti aundi batek sorgindu zula. Ta arek eraku-tsita edo, oitura arrotz eta txarrak ekarri zitula onara... Eta oitura oik sartu nai zitula Euskalerrian... Eta emen-go siiiiste guziak ezesten zitula, gezur aundi batzuk

dirala, esanik. Eta argatik, berak agian asko uste etzula ere, emengo sorgin guziak, Mari buruko dutela, gure buru gañetara erortzeko arrisku aundian zaudelata...

Arri ta lor entzun zion Kostorbeko jaunak, eta:

-Bai. Basurdi, bai -erantzun zion-. Garrantz aundi-ko gauzak dituk oik... Danak Batzarrean azaldu bearrak dituk.

Eta gero, Basurdi'ren ardi ta gaztei begira:

-Toitzik ik. Ez didak orregatik ezer eman bearrik. Nere eginbearra duk ori.

XXII

TXITXI-BURRUNTZI

Ba-zizun Olentzero egunaren antzik iñaute egun arek: eta orduan antzeko egoaize epela, orduan antzeko otoruntza gaitzak, eta orduan antzeko kanta alayak, eta orduan antzeko suak.

Bai, Olentzero illunabarraren antzera, iñaute illunabar artan ere suak piztu dira. Ez bañan, sukalde barrenean. Oraingo suok, mendian izeki dira. Bi erako suak: txitxi-burruntzinak eta Batzerrenak.

Arratsalde erdian, eguzkia oraindik zeruan dir-dir dagola, Olearso ibarreko mendi guziak ke urdiñez bete dira. Ta ke-adarren azpian su-mingain txikiak. Eta su-mingañen artean, gizakiak orain makur, orain zutik, orain geldi, orain mugi... Ta suzko ao guzitik kanta-lelo alai ta ukigarriak altxatu dira zerura, ke-lurrurrekin bat.

Arratsalde eder ontan aizetara goxo aparitara jarri dira Olearso'ko etxadi guziak. Batzuek txixtorra, besteak urdaya, angoak zeziña, emengoak egazia: ba du zer erre bakoitzak.

Eta txitxiaren koipea txir-txir su gañean tantoka asten danean, ogi-zatia luza ta, bertan eortzi ondoren, koska asten da bakoitza, koska bere jaki goxoari.

Ezta orduan iñun edari bizigarririk palta. Arratsalde ontan zulatu bait-dituzte urte guziko kupelik one-nak. Eta zipotza sartu baño len, mama berri gozoaz bete dituzte iñungo kaiku guziak. Sagardo edo garagardo edo txakolin: ezta alakorik murtxatu gabe iñor geldituko.

Eta lenengo izarrak ñir-ñir asi orduko, beste su-dir-dirak; ez mendi-egaletan, ayen muturretan baizik, eta lengoak baño askoz aundiagoak.

Begira an, ego-aldean, Txurumurra gañeko su aren indarra! Erko ta bere lantegi-mutillak ari dira an suari jaten ematen. Ez du berak asko uste biarko Batzarrak iñungo okerrik ekarri lezayokenik. Ez izan, izan ere, gixajoak, Basurdi'ren asmo ta pauso ayen berririk.

Begira an, sartaldera, Jaizkibel'go beste su aren txinpartei. Aren baranoan itzal beltzak ageri dira dantzaz.

Eta une berean artzai-adar eta alboken durundi lodiak ibar guzia arrabotsez betetzen dute, ta giza

guzien eztarri-mingañak azkaturik, oju, txixtu ta irrin-tzi alayak atera-erazten die.

Ta Basurdi'ren poza, biarko Batzarraren zantzuok ikusita...! Arratsalde artako jai eta biarko zantzuen usaira, bere txabola utzi ta, «zer demontre! nik ere jai diat gaur», esanaz basora irten da.

Ariztiburu'ko etxadia topau du lenengo, ta ayen suaren ondoan apatx exeririk, bertan lotzen da jan-edale. Eta eskuko txixtor osoa koskatuz, kaiku aundi-ko mama beltzari ematen dizkion zangak...!

-Mutillak! Au duk edaria au! Nun arrayo egin duk txakolin au, Arizti?

-Ez duk txakoliña au, mutill Erriotza'tik ekarritako ardo bizia diat au.

-Erribera'ko erri arrotz oyetatik?

-Bai, Basurdi, bai.

-Etzegoala an gauz onik uste nian, ba, nik!

-Ez izan gabe! Eta ba dituk an ardo au baño gauz obeak. Galdetu, bestela, ire lagun Erko orreri...

Itz ok entzun zitunean, kopeta zimur-zimur geratu zitzayon Basurdi'ri, ta beste zanga on bat kaikutzarra-ri eman ondoren lurretik altxa ta, alde egin zun andik, beste ezer esan eta egin gaberik.

Zer demontre! Etzan atsegin Ariztiburu'ko etxadi ura. Kaiku artako mama beltz bixigarri ura, bañan? Ba... etzitzayon ajol aundirik! Topauko zun bai, berak, topauko beste arrera on eta edari oneko etxadi atsegiñak.

Ta pik or, pik emen; edan or, edan emen: geroago ta zalapartaritsuagoa jartzen ari da gazte basatia. Aren ojuak, aren irrintziak! Sagardo, garagardo, txakolin eta ardo beltz: edari guziak naasi ditu eta danetik erruz dena...

Burua galtzen asten zayo, azkenerako. Eta jauzi ta bira, eroenak esaten eta egiten dijoa, etxadi batetik bestera... «aufa, aufa... au sasoya... au umorea...!. Eta ojuka dijoala, axeri-dantzaren jauziak ematen ditu, ta otsoenak, eta akerrenak...

Oyanguren'go atsoak ikusi zun azkenik gure artzai moskortua. Txitxi-burruntzi bukatuta, bera bakarrik geratu zan, azkeneko txingiak errautsez estaltzen. Esana ere bait zan, estali gabetako txingietara sorgiñak aserretu bai, ta sekulako zorigaitzak ekartzen zizkiela etxadi ayetakoei.

Umetxo bat altzoan, eta kanta zarra aoan marmar, txotxak astintzen zegoala, Basurdi agertu zitzayon irrintzika ta jauzika.

-Zer abil, mutil, pestak geyegi berotu al au?

-Gaurko pesta onek baño geyago berotzen eta alaitzen nau biarko Batzar orrek.

-Zer ba?... Zer dik biarko Batzar orrek ba?

-Ai nere atso polita...! Biarko Batzar orrek zer dun, zer dun, galdetzen al dun? Emendik ara bukatuko ditun, buka betiko emengo gaitz, begizko, sorginkeri ta oker guziak... -Ta atsoa pallakaz besarkatzera doa limurtzalle.

-Utikan emendik, mozkor zikiña!

-Ai ene kurlinka...! Au gure poza... ez bait-dun, gaurdanik gora, txingar oyek estaltzen lanik izango...!

-Ez... e...?

-Ez, ez. Oker guzi oik sortu-erazi dituna, biar Olearso'n iltzekoa bait ditena...

-Bai... e...? Ta nor duk ba ori?

-Nor?, esaten dun, oraindik, nor? Nor izango dun, ba, Urgoiti'ko Erko ume kixkali ori ezik?

-Erko...? Zer esaten ari aiz, mutil? Zer egin dik ba, Erko orrek, biar Olearso'n urkatu al izateko?

-Zer egin, esaten dun, atso panpoxa? Nere saretan atziturik neukan Izartxo, uso poli ori ixilka lapurtu... Orratx zer egin didan, entzun dun ondo...? ...Lapurtu, lapurtu...!

-Ezta ori egia izango?

-Bai, enetxo, bai. Etzait orain bañan, batere ajolik.

Irekin naikoa bait diñat, nere basollu ederra...!

Ta berriz ere besarkatzera doa.

-Utikan, urde zikiña! Oa emendik agudo, txingi ok arpegira botatzera nai ez baduk...!

Ta esandakoei egitez lagundu nairik, txingizko zipototza oraturik, bertan altxa, ta Basurdi'ren buruzki jartzen da.

Onek, bañan, orduko bira emanda, tra-la-ra... lara-lara... eroki abesturik, atso aserretuaren aurretik alde egin zun, jauzika ta biraka etorri zan bezala.

XXIII

OLEARSO'KO BATZARRA

-Zer berri?... Ba du iñork zerbait esatekorik....?

Itz oekin asi zun Olearso'ko Batzarra, urte artan, bertako buru egiten zun, Urantzu'ko Lizar'ak.

Eta alaxe zan gure Lizar, lizar luze bat bezin lerdin, gordin eta ederra, urtetsuko agurea ba zan ere. Eta argatik, lizar, zugaitz eder orren antz aundia zulako, artu zun edo ta jarri zioten izen polit ori.

Esku bat belaun gañean, eta bestea makil luzeari itsasita, arrizko alkitzar batean exerita zegoan gure jauna, aritz-tantai aundi bateren enbor-oñetan.

Siñez aritz gaitza, aritz ura!

Aren ezkurrez bakarrik, urte guziko ezkur-opillak egin lezazke Izartxo'k, artaraño igotzea ausartu baltz. Lur ariña ta lau aizetara zabal, aixa azi zan eguzki bero ta ekaitz-aize eragikorretara.

Enbor lodia zizun. Ozta-ozta artu lezateke aren gerria ezkuzabalik jarritako iru gizonek. Eta aren adaburu zabalaren azpian exeritzen ziran Olearso'ko jaun guziak.

Irun, Ondarrabi, Oyartzun, Lezo'k ba dituzte erri ok etxerik pranko, muiño ta ibar ugarietan sakabanaturik. Ayen jaun guziak dituzu orain, aritz eder aren azpian, ixil eta zuur, izan ere, ardi-larru gañetan exerita, Lizar buru agurgarriaren aurrez-aurre.

Antziñako bizitz eta legeen lekuko bait-da aritz ori, aren itzalpean eta onesmenpean daudela dirudie.

Aren ezkerrean dago aritz zarra, enborra erdi jana ta adarrak igar, lengoa goxo ausnartzen. Eta aren eskuiñan, aritz gaztea, geroan alai amesten.

Aitor aitagoyaren oroigarri maitea! Aren atsa ta ondarea ta legeak ezkurrez-ezkur guenengo luzatu ditun zugaitz agurgarria. Ta emendik azkenengo Euskaldunareño luzatuz, biziko dan landare arrigarria!

Lizar'en galderari erantzun nairik, laister mugitzen asi zan Kostorbe. Bera zutitu baño lenago;. gazteago zan da, izketan jarria zan Ariztiburu.

-Ba dakizute danak, joandako udaran, Kalagorri'n izan nintzala. Onarakoan, emen erakutsi naita, ardo ta oliyoz betetako bi zagi aundi ekarri nitun zaldiz. Eta mutillak!, emen bi ixurki oyei egin dioten ongi etorria...! Basurdi'k atzo, egin batez ere. Ez omen dizute alako edari ederrik iñun edan.

Eta gero, nik an ikusitako gauzak azaltzen nizkie-
nean: ango garitzak, ango barazkiak, ango igaliak...
esaten zidaten danak: «Eta ez al da gauz oik danak
onara ekartzeko kaltzada edo bide egokirik...?».

Biderik...? -esan nien nik- ...Ona ni zuen aurrean
emen, bide ori eginda...

«Ez, ez... -erantzuten zidaten-. Joan-etorri neke-
tsua da agitz mandozko ori...! Ikus or neketsua ez ote
dan bi ontzitxo oyek ekartzeko, aste oso bat eman
bearra, ta ipur-kankarrak guziz minberatu bearra...!
Zergatik gurdika ekarri ez bada?».

Arañoko gurdi-bide edo kaltzada on bat bear
dugu, ortarako... eta nun dugu kaltzada ori...? -esaten
nien nik.

«Garrantz aundiko gauza duk, ba, ori», -erantzun
zidaten- ...eta guk egin bear genikena. Zergatik azal-
du ez bada, auzi ori urrengo Batzarrean?...

Ona, ba, emen azaldu, jaunak. Emen gaude jardun
ori izan genuen batzu... Eta len entzun ez duzuten
beste oik, ikasi duzute orain. Lotu gaitezen, ba, gai
oneri, ta erabaki dezagun egoki ta onuragarriena izan-
go zaiguna.

-Ni ez naiz aitatu duzun Kalagorri ortan iñoiz izan
-Urdanibi'k-. Bañan, urruti, oso urruti dagola, entzun

izan dut noizbait. Egun batzuetarako bidean bai beintzat... Eta onuragarri al zaigu alako kaltzada luze bat egitea?

-Ezta araño egin bearrik, -Aritziburu'k-. Kaltzada zabal eta eder batek batzen ditu Alsasua ta Kalagorri. Ta Alsasua erri ori emendik Kalagorri' rako bide erdian duzu.

-Ba duzute bide ori baño beste laburrago bat, nik uste, -Lizar'ak.

-Bai ote? -Aritziburu'k.

-Bai noski... Ba du Kalagorri'k ipar-aldera beste bide bat. Erribera osoa aldenbeste zearkatu, Izarra'an sartu, jo andik Iruña'ra, ta Xuberoa'ra dijoa, Orreaga'ko malkorretan barna.

Ta guk emendik Bidasoa'ren pare Irurita'raño iritxi ondoren, Belate'ko mendia zearkatuz, Ultzama'ko orde kara jetxi, ta an itsasi genezakio Kaltzada aundi areri gure asmoko beste kaltzada au, -Lizar'ak.

Bidasoa'ren izena aipatu zunean, asko zutik jarri ziran, bazter artara begira. Ur urdiñak anpatzen zuten Txingudi'ko itxax-kolkoa. Aren ertzean erribera muskerra zabaltzen zan. Erriberaren gañean, etxe txuriz jantzitako muñotxoak altxatzen ziran. Eta aruntzago, Aldabe'ko mendiaren gaindiz, beste mendi aundi ta

beltzagoak ageri ziran. Eta mendi ayetara eskua luzatuz, Artsu'k:

-Emendik Behobia'ño bai, errex xamar ebaki liteke gure bide ori. Ortik aurrera, bañan, eta mendi patartsu oyen artean neketsua izango zaigula, derizkiotzuet, jaunak.

-Ur-joerak ekarritako lur beltz oyek nun-nai zabalitzen ibayaren bi ertzetan, eta ez al da orren zail izango oyen gañetik joatea, -Kikixo'k..

-Bai..., eta ugoldeak eta datozenean, eta erribera guziak bete ta inguruko zugaitzak ere ipurditik atera ta, aurrean daramazenean...?

-Ez, ez. Erriberatik at, baita toki askotan mendi-egalari zatitxoak ere janaz, egin bearko dugu gure bide au, -Lizar'ak.

-Eta ez ote legoke obeto, ziur eta errexago Erlaitz'ko menditik barna egitea? -Artsu'k, berriz.

-Zallagoa ta luzeagoa ta gareztigoa ere litzaiguke ori, nik uste.

-Zenbat eguneko bide genuen, goiko mendi orretik; barna egingo ba-genun, Urgoiti'k.

-Iru benik, bai.

-Eta betik?

-Bi baño geyago ez, nik uste.

-Naikoa ta geyegi gure beso exkasi okentzat,
-Azkue'k.

-Ez dut ba, nik ori uste. Bide onek gure lurraldea ez ezik, Baztan eta Ultzama ibarrak ere zearkatuko ditu. Ta zergatik ayetako jaun agurgarriei bere laguntzik eskatu ez?

-Ta emango lukete?

-Zergatik ez? Guri bezin ondo datorkie ayei ere bide ori, bere eraman-ekarri guzietarako.

-Ezta, ordun, deus geyago esan bearrik, -Azkue'k.

-Biar bertan noa Baztan'era, emengo gare jardun onen berri ematera.

-Ta Ultzama'ra ez?, -Kikixo'k.

-Baztandarren iritxia ikasi ondoren, ango jaun batzuen lagun, Ultzama'ra ere joan nintzake, ta Ultzamarren naya ere irabazi... Ortan al zaudete danak...?

-Bai, Lizar, bai.

XXIV

IZENA DUN GUZIAK IZANA ERE BA DU

Batera ta bestera, geldirik ezin egonik, ibilli zun Kostorbe'k bere gerria, ardi-larru aren gañean. Eta lenengo auzi ura bukatu zala, bukatu azkenean ta, lurretik bereala altxa, ta asi zan bizi:

-Gurdibidearen auzi ori baño auzi aundiago bat dakartzutet nik, jaunak... Gure siñistek eta oiturak galdu-bidean jarri dizkigutela, jaunak...!

-Nork jarri ditu ba?, -Lizar'ak.

-Urgoiti'ko Erko'k.

-Urgoiti'ko Erko'-k?... -esan zuten, ao batez, iya bertako jaun guziak, zutik jarrita, ta bertan ere zegoan Urgoiti'ko jaunari sor eta lor begira.

Beti entzute onekoak izan ziran Urgoititarrak. Alaxe zan, ordun, bertako jaun Axarko jatorra ere. Eta areago gure Erko gaztea. Uraxe bai mutil ona, iñor onik ba zan. Kostorbe ere gizon zintzoa, bestalde, danak zalantzan geratu ziran, azkeneko itz ayek entzutean, zalantzan, eta Erko'rengatik zer pentsa etzekitelarik.

-Itz gogorak jalki dituzu, Kostorbe, -esan zion Aizarte'k- danak bait dakigu Erko mutil ona dala...

-Nik eztakit Erko ori onelako edo orrelako danik, auxe bakarrik dakizutet, jaunak: gure siñiste ta oiturren aurka jarri dala.

-Nola ba ori...? Zer egin dizu ba orrek? -Lizar'ak.

-Sorgiñik eztagola esaten dabil mutil txatxu ori... txaldankeri aundi bat dala, ayetan siñistea ta..., nik eztakit zer gauz geyago...!

-Eta zer okerrik dago ortan, Kostorbe? Nork eztu naiko sorgin galgarri oyek betiko galdu izatea?... Aa...! Eta a zer gure poza, begizko ta sorgintsu guzi oyek norbaitek kendu al balizkiguke, betiko kendu ere...!

-Izena dun guziak izana ere ba dizu, Lizar agurgarri.

-Zer adierazi nai didazu orrekin?

-Ba..., egia dala, zoritxarrez bada ere, egi sorgiñak bizi direnik.

-Ta zer okerrik lekarke ori ukatzeak?

-Zer okerrik, diozu, Lizar? Sorgin guziak gure gañera jauzirik, danak bertan galdurik utziko ginduzketela, beñolako Lañotxo ura ta aren lagunak galdurik utzi zituzten bezela.

-Ezer okerrik etorri al zayo Erko'ri, ori esateagatik?

-Ez. Erko ori, bañan, sorgindua edo, Erroman artu-tako nastekeri berexi batez antz-aldatua edo izan bear dizu, edo ta nik eztakit..., alako zerbait, beintzat. Eta, ala..., berari ez baño guri bai, nastekeri edo sorgintsu ori ezagutzen ez dugun eki bai etorri litzaizkigu-ke, baita etorriko ere, iñungo oker guziak.

-Ez daukagu, ordun, Erko ori deusengatik ezestu ta gaiztetsi bearrik.

-Ez zera...! Sorgintsu edo ta nastekeri orrek emen-go sorgiñak aserre-erazten baditu,... ta ezin ba-dute aserre orren zigorra Erko'ren bizkar gañean astindu, gaxo gu, Lizar, gaxo...! Guk ikusi bear ditugun gorriak!

-Ez, Kostorbe, ez. Emen bildurrez kikilduta geratu bearrean, edo ta Erko ori ondatu bearrean, deitu deza-gun gurera mutil ori, deitu; ta sorgintsu edo ta nastekeri ori guri ere erakusteko eskatu dezayogun. Ori deritzat neri danetan zuzenena.

-Bai..., ta egin naiko al du ori berak?

-Zergatik ez du naiko, ba?

-Eztakit ba nik...! Alako mutil berexia ere dala entzun dizut eta...?

-Ez al da orren berekoi ta okerzale izango?

-Ez jakin ba...! Ez bait dut ondo ezagutzen.

-Zuk ezagutzen ez, eta nundik ikusi dituzu, ba, berri oi danak?

-Basurdi, Mendaur'ko artzai zintzo orrek esan zizkidan oi danak, lengo batean...

-Basurdi... gizatxar orrek? -Oyanguren'go jaunak-. Orain bertan onara eldu nintzala, atzoko mozkorra ezin egosirik sasi tartean auzpezka ta zurrungaka ikusi dut. Ez al zitzaizun erdi mozkorti, etxea sakaltzera joango, atzo nere emaztearengana joan zan bezela?

-Ez, ez. Etzan mozkor eta asmo txarrez etorri, ardi ta gazta ederrak zakarzkina, esku-ikusiz, berekin, da.

-Bai... zerbait ematearen itxura egin bear, gero beste zerbait ohea iretsitzekio. Nere andreari ere «enetxo, polita, kurlinka. basollua, ta...» olako itz zuriz agurtu zizun... Zer asmokin, ordea...!

-Bai ote?... Nik eztakit, ba... Ez bait ditut ondo ezagun, ez bata ta ez besterik, ez Erko ta ez Basurde'rik.

-Zuk ez ba-dituzu ondo ezagun, nik bai, nik ezagutzen ditut biek ederki, -esan zun Aritz'ak, sartez.

-Azaldu egiguzu, ba, ordun, zuk Erko'ren izkutu ori. Esan guri zer eta nolakoa dan mutil ori, esan bai parte onako izakia dan, esan izkutu arrigarri oyek guri ere azaldu, erakutsi ta emateko, prest ote dagon.

-Zergatik ez bada, neri ere erakutsi dizkit eta?...
Utzi dezagun ba, Basurdi madarikatu ori, ta goazen
gure Erko mutil eder orrengana.

Danak dakizuten bezela, Erka Erroman izan zan.
An Kaiser'rekin beti zebilela, «anfiteatro», zeï aundi
bateri ematen zayo izen ori, «anfiteatro»'ko jayetara
ere joan bear izaten zun.

Zeï aundi ortara eramaten zituzten, urkatzerako
zituzten gaizkile guziak. Eta bertan bereala il-erazi
bearrean, joku berexi au eratzen zizuten. Ezpataz edo
sardez edo aztamakillaz jantzi bai, ta pizti bateren
aurrean jartzen zituzten, zeï aren erdian. Lenengo piz-
tiak ondatzen zitun batzuetan. Bestetan ez. Eta alako-
etan, beste pizti berriak: leoi, artza, zezen, katamotz
eta olakoak botatzen zizkieten, bizia galdu-erazi artio.

Etziran, bañan, eriotzera ondatutako gaizkille
guziak era berekoak. Edozein giza bezela, biraoka,
ojuka, negarti ta koldar iltzen ziran batzuk. Eta auxen
zan arrigarria, jaunak, beste batzu irriparez, onetsiz,
etsayei barkatuz eta zoriontsu iltzen zirala.

Ok, besteen alderantziz, era ta urte guziko giza-
kiak ziran gañera: gizon da emakume, zar da umetxo.
Aundiago oraindik. Askotan, leoi ta zezenak eta... ayei
jazartu bearrean, bere oñetan exerì ta esku ta oñak

milikatzen zizkiela... ta surtara botata ere etzerala erretzen.

Gauz arrigarri zala, agitz, ura ta, ea nortzuk ote zitezken gira ayek galdeka asi zan Erko bereala. Ta... kristauak ziraleko beste gaberik gaitzetsitu zituztela, erantzun zioten. Erko'k orrekin bakarrik pakean gelditu nai ez eta, galde oneri, galde orreri, ok ikasi zitun:

Gezurrezkoak, aizeputz utsak zerala, guri ainbeste bildur ematen dizkiguten, sorgin, lami, basajaun, itxi-txo ta abar...

-Nork darabilzki, ordun, mundu ontako indar izkutu guziak: euriak, ekaitzak, illargia, eguzkia,... ta, -Kostorbe'k.

-Izaki bat bakarrik omen dago gure buruen gañetik: Urtzi, Jaungoikoa, Jesukristo. Eta izaki onek ez omen du neurririk ez eta azkenik ere. Ta ona, oso ona omen da bera dan guzia. Ta aren esku al guzti duntan omen dira gauz guziak.

-Nork igorri zigun, ordun, igazko legorte ikaragarri ura?

-Guk ere jotzen ditugu, maite ditugun semetxoak eta... legorte ura...?, ba berak, Urtzi'k, guk egindako okerren bat zigorkatu nairik, edo ta zerbait erakutsi nairik edo...

-Zer erakutsi?

-Nik eztakit, ba... gure semetxoak ere ez dakite askotan zergatik jotzen ditugun, eta zergatik agintzen dizkiegun gauz asko... Gauz bat dakite bañan: maite ditugula, ta naikoa dute orrekin.

-Nola jakin, bañan, Urtzi'k maite gaitula?

-Jesukristo deritzan Jaungoikoa gizon egin omen zan bein, guri, nolako zan, erakusteko.

-Eta nolakoa zan?

-Ona, ezin ainbesteko ona. Iñun topatu al izan zitun gaxo, eri, elbarritu guziak bertan sendatzen omen zitun; illak pizten; beartsuei laguntzen...

-Ta iñork ikusi al du ori?, -Erbi'k.

-Ikusi...? Askok ikusi, Erbi. Millaka ibilli ziran berekin da. Ta gero, bera il da zerura joan zanean, mundu guzien barna, berri on ori.aldarrikatzera, zabaldu ziran asko.

-Eztira onara asko etorri, ba...!

-Zeñek esan dizu ezetz? Ainbeste errietan ibilli zan Done Pallo gure Kalagorri'n ere ibilli zan da...!

-Itxoin, itxoin, bañan... Kristo ori il da gero, zerura joan zala esan duzu, ezta?

-Bai, alaxe diote.

-Nola il liteke, ba, Jaungoikoa?

-Ez, nai ta nai ez, gu bezela. Berak ala nai zuelako, noski.

-Bai... nai zuelako ilko zitzaizun...!

-Etsayak atzitu zutela... gure maitearengatik bizia eman zula... Ez dakit, ez dakit... Ez dakizkit nik gauz oyek oraindik ondo. Obeto jakin nai dunak Erko berari galde lezayoke. Prest dago bera beti, nai dun guziari erakusteko.

-Gauz oyek Erromako kristauak zioten, ezta? -Kos-torbe'k.

-Bai, ala dio Erko'k.

-Eta orregatik bakarrik, il-erazi ote zituzten anpi-tratro artan?

-Bai, ala dirudi. Ango jainko aizunen apaizak eraginda, noski. Kristauak azi ezkerro, ayen irabaziak galtzen bai-zijoaizkien...

-Ba... emen alako apaizik izaki ez eta...

-Egia al zan, ba, Kristau ayek ziotena? -Erbi'k.

-Suaren gañean eta piztien aurrean, ezta errax gezurrik esaten, baldin eta argatik, ayen ortz artean, bizia galtzera beartzen ba-zaye, -Arizti'k.

-Eta ez al dira, gure artean ere, asko gorrotoz eta setaz gauz batean errotzen, eta naiz eta bere burueri kaltetan ari, artan iltzear gogortzen diranak...?

-Bai, ezagun ditut nik olako batzu. Eta Basurdi, mozkor arrail ori, ayen artean... Ez dut, bañan, uste leoi ta katamotzak eskuak millikatzera etorri litzaizkio-ken.

-Ikusi duzu, ba, Kostorbe, Erko orrek ez dakarkigu-
la iñungo oker eta gaitzik, -Lizar'ak.

-Gaitzik... diozu, Lizar? Ez al digu, aitzitik ere, oraindik palta zaigun zorion guzi ori ekarriko...! Biar bertan noa Erko mutil martzal orrengana, gauz eder guzi oyek obeto jakin nayan.

XXV

ERROMATARREN BILDUR

Ixillik egon zan, ordurarte, Altzi. Etzeukan, ala ere, antzirik Basurdi'rekin arextixe izandako autu ura. Atzo bertan jan bait zituzten alkarrekin, Txitxi-burruntzikoan, arkume-gazta ayek; eta jan-edan bitartean, lengoak oroiturik, euren asmo zitalak berritu.

Ala ba, bestei beren auzietan, patxaran entzun ondoren, altxa ta paketsu itxuran, bañan maltzurkeriz beterik barruan, onelaxe asi zan:

-Danak dakizute, emen ikusita, Erko au gizon berexia oso dugula. Ez dut uste, ala ere, bere siñiste orrek iñungo arriskurik ekarri lezaigukenik. Aitzitik ere, atsegin eta onurakor litzaigukela, deritzat neri. Ba-liteke, Erko orrek beste berexgarririk izatea.

-Oraindik geyago, -Erbi'k.

-Eztakit, ba, nik. Ba-dakizu, zugaitz guziak dituzte-la adar igarrak. Eta eztagola akats gabeko gizonik ere ta...

-Ez, ez. Bañan zerbait okerrik ikusi al duzu zuk gazte orretan...?, -Kostorbe'k.

-Oker-okerrik...! Eztakit ba nik... Ez al duzute zuek

Txurrumurru'ra joaten maiz ikusten?

-Bai... Ni Enbido'ko malkorran bizi naiz; eta maiz ikusten dut bai, arako bide artan... -Erbi'k.

Eta esan al dizu, iñoiz, zertara dijoan?

-Neri ez...

-Ara or ba... Zintzo dabillen gizonak ez du bere asmoak agertzeko iñoren bildurrik izaten.

-Agertu dizkigu guri ba, -Meaka'k.

-Baita guri ere, -Ariztiburu'k.

-Danak jakin nai genituzke ordea, berak an orren ixillik dagizkin lan oyeke...!

-A zer gauza, ba... Ez dituzu oyeke ixillikako lanak, Altzi; gizon bat baño geyago bait dabil an lanean...

-Bañan, bai lan berexiak...!

-Emen iñoiz ikusi ez dirala ta,... alde ortatik ba zoaz... bai, lan berexiak dituzu oyeke...

-Zer lanataz ari zerate?, -Lizar'ak.

-Burni-meatza bat aurkitu zula Erko'k Txurrumurru'n, orain illabete batzu, ta Erroma'n burni lanean ikasia bait zan, burni-langintzan asia dala an, mutil batzuen lagun, -Arizti'k.

-Gauz berexi ta onuragarri dugu au benetan, jaunak! Eta zertzuk egiten ditu mea orrekin? -Lizar'ak.

-Goldeak, eta atxurak, eta aizkorak eta...

-Ederki, jaunak! Gure lurak irabazi lezakena lanabasa berri oyekin... Eta meatza aundia al da?

-Bai, bai... Nere semea ere an dabil eta arekin bat, dana ikusia naiz bein. Ez dago ez, ura urteetan bukatuko danen bildurrik.

-Ba dakizute, jaunak, erri-lurak dirala Txurrumuru'ko lur guziak. Ayetan eta zuen onurean lan egiteko, eskubidea duzute, beraz. Ez duzute bertatik irabazi gutxi aterako, jaunak.

-Bai alde ederra, jaunak, soroak burnizko goldeaz edo ta lengo arrizko artaz lantzea!

-Zuk ala lantzen al dituzu, -Kostorbe'k.

-Aurten, Erko'k erakutsita, asi naiz; eta lengo lau, bai, egin dut ala...

-Kristau ayena baño gauz geyago galdetu bearean gaude, aatik, Erko arrigarri orreri.

-Eta zergatik ez du bere izkutu ori, beste jaun geyagoei ere, erakutsi nai, -Altzi'k.

-Sayotan ari bait da oraindik, eta ez nai mutil ixillak, lau aizetara gauz oyek zabaldu, danataz ondo ziur egon artio.

-Mutil ixilla bai...! Eta ez al da ixillegi ere izango...!

-Zergatik?

-Ez al ditu an atxurraz beste, ezpatak ere,... ixilka ta gordeka egingo?

-Ez dut uste.

-Bai... ba liteke zuri ez erakustea, eta zuk deus ere ez jakitea...!

-Jakin...? Ez nik eta ez iñork ere...! An danen aurrean egiten da, egiten dan guzia...

-Norbaitek ikusi ditu ba...!

-Nork?

-Au ere jakin nai al duzu? Ba..., Erko'k asko uste ez dunaren izkututik, dana ikusi dun batek...

--Eta zertako ditu ezpata oyek?, -Bele'ak.

-Zertarako? Gauz onerako ez...

-Ez dugu ba, emen ezpatarik ikusi?

-Or zioz ba...! Emen ez eta nunbait bearko.

-Nun...?

-Ezpata-pillaz zamaturitako mandoak ikusi izan dira Aritxulegi'ko gañetik Naparroa'ko Erribera'ra bidean...

-Zeñentzako?

-Guretzat ez eta Erko'ren lagun Erromatar oyentzatzat izango zirala, deritzait neri...

-Eta zertarako ote dituzte?

-Auskalo...! Gauz onerako ez... Goiko mendi oye-
tako artzai batek Erriberan izan zala esan zidan, len-
goan, ardi batzuk saltzen, eta sekulako Erromatar
gudariak ikusi zitula an, guda-sayotan...

-Bai ote...? Ez ote ziran, ordun, Txurumuru'ko
izkillo oyeke gudari ayentzat izango?

-Ez dituzue Erromatar oyeke bat ere fidatzekorik,
jaunak...! Eta nork daki, nork Demanda'ko Iberotarrak
eta Montañako Keltak azpiratu ondoren, gure lur onen
ere irrikan jarri ez ote diran...?

-Um...! bai ote?, -Erbi'k.

-Nik ez dut alakorik uste ba, -Lizar'ak.

-Um...! Gutxi fidatu arrotz oyeekin, gero! -Bele'ak.

-Ez derizkiat neri orren bildurgarri ba... Eta zerta-
ra etorri litezke gurera, gañera?

-Zertara...? Gure abereskiak lapurtzera, beste
lurraldetan lapurtu dituzten bezela.

-Urteetan bizi izan gera alkarren ondoan, eta etza-
ye, oraindik alakorik gogoratu...

-Ba liteke, bañan, orain, Txurumuru'ko meatza
aundi oyen berri ikasi dutenetik, lengo asmo epel
ayek aldatu izatea.

-Asmoak aldatu...! Zer uste duk, orain arte nai ezi-
kan utzia dutela gure lurralde eder au ...!

-Eztakit, bada, nik. Ba liteke gure lurralde au menditsu, basati ta exkaxa irudi izatea, ta argatik bertan pakean utzi izatea...

-Gure lurralde au basati ta exkaxa? Obeak al dituzu, Oska, Asturika ta Montaña'ko mendi zut arritsuak? Eta ala ta guztiz ere, urte-mordoak dira bere oinpean dituztela.

-Eztakit nik, ba, zertarako?

-Ez aberatsak diralako, noski...; ez eta artu-erraxak izan zaizkielako ere...! Ez ditu Erromatarrak arriskuak bildurtzen. Arrisku guziak baño aundiagoa da ayen agintearen gosea. Mundu guzia bere oinpean ikusi arte ez dute atsedenic...

-Nola utzi gaituzte, ordun, orain arte, pakean?

-Ez beurek naita, noski.

-Nola, ba, ordun?

-Ba ditu gure lurraldeak mendiak ez ezik, ordeka zabalak ere: Araba, Naparra, Lapurdi ta Errioxa, batez ere..., eta naiko aberatsak, gañera.

-Ordun, bada?

-Gure mendiak ez dira mendi aundiak, ez. Beste tokitako mendien alderantziz, bañan, danak jantziak ditugu, baso beltzaz jantziak. Basakatua ta aren

antzeko gizonak bakarrik ibilli ditezke ayetan ondo. Ez ordea ordeko gizon astun oyek.

Oska'tik Laredo'raño bitarte aundi ori, mendi-kate luzeaz baturik dago. Mendikate orrek ibar luzeak, lego batzuko ibar luzeak ditu, tarteka, Napar eta Lapurdi-ko zabaldiak jo arte. Goiko mendi luze oyek iru adar ere dituzte ego-aldera, Ebero'ko ibai aundi ori jo artio: Erronkal-Leire-Orban, lenengoa; Belate-Aralar, Urbas, Joar, bigarrena; Gorbea-Orduña-Tuyo-Soberon, irugarrena. Eta ibar luze berdiñak ok ere, goyan, bean eta tartean.

Ibar ok oso estu, basati ta luzeak dira, eta malkor beltzez inguratuak. Eta ibar oyetik bakarrik oldartu litezke zaldiz eta burniz jantzitako etsai astunak. Ezin eroso joan andik, ordea. Ertz eta alde guzietatik arriz, enborrez eta geziz zirikatzen bait dizkie beurek baño arin eta pizkorrago diran Euskaldunak.

Ordekan alkar jo ezkeru, azpiratu ginduzketen beren zaldi ta burniz baliaturik, bai. Euskaldunak, bañan, an burrukan gure buruak arriskatu baño len, mendian sartu gindezke, Ebero'ko ertz berean, sartu etsayen aurretik; eta mendiz-mendi, gero, ibar luzeetara arin iritxi, ta ango malkor eta estratetan etsaya

suntsitu; eta bizirik gelditutako Erromatar guziei ibarrez-ibar jazarri, danak garbitu artio.

-Ez al da errexegi ta geyegi izango ori? -Altzi'k.

-Bai, goazen erabaki berriak artu baño len, gauzak ondo ikusi ta aztertzero. Bi gauz azaldu dira emen. Erromatar gudariaz beterik dagola Erribera. Ta Erko'k berak Txurumuru'n egindako ezpatak ayei saltzen diela, ezta?

-Bai, gauz oik danak esan ditu Altzi'k emen, -Kos-torbe'k.

-Gutako bat bidali bear dugu lenbait-len Erribera ortara; ta ikusi dezala, ikusi bere begiz ondo, etsayen gudaritza ori. Ta itzuli dedilla, gero, arin, zer erabakiak artu bear ditugun jakiteko... Nork joan nai du...?

-Ona ni emen. Ba dakizkit ango bide guziak, eta zaldi ederra daukat, -Arizti'k.

-Ta, orain beste auzia, Erko'ren ezpaten beste auzi ori. Erko'ren aurka esan dituzun itz oyek, itz gogorak dituzu, Altzi. Ta guk siñistu ta gogoan artzea nai ba duzu, ziñezko lekukoak ekarri bear dituzu... Zuk ikusi al dituzu ezpata oyek... edo lantzen edo mandotan edo ta etsayen eskuetan?, -Lizar'ak.

-Nik... nik... ez.

-Nork, orduan? Nor zan Txurumuru'ko izkutu artatik zelataka, dana ikusi zun gizon ura...?

Esango ote...? ...ez ote...? Premiazkoa zan da... or ba!

-Basurdi'k...!

-Basurdi'k...?! , -danak.

-Artzai mozkorti orren beste dollorkeri bat...!,
-Oyanguren'ek.

-Aa...! Egia. Ta au bera al zan Erribera'ko gudari-tzak ikusi zitun artzai ura?, -Lizar'ak.

-Baita...

-Basurdi ori mozkorti ez ezik, zital eta dollor galan-ta bat duzute, -Kostorbe'k.

-Zuk ondo ezagutzen duzula, esan duzu len, Aritz. Esaiguzu ba, orain emen, gizon onetaz dakizun guzia, -Lizar'ak-. Zergatik uste duzu zuk, asmatu ditula oik danak Erko mutil orren aurka?

-Izartxo, nere alaba ori artu nai zula beretzat artzai orrek, eta nere alabak bere esku zakarrari muzin egin da, Erko'ren esku atsegiñago ori artu dula ta...

-Kontxo, kontxo! Ori al zan dana?, -Kostorbe'k

-Ez, ez da ori dana. Ba da, oraindik, geyago.

-Zer?

-Erko au, Basurdi'ren izkutu galgarri bateren jakitzañaren gañean dagola, ta onek galdu-erazi diola bere burua artzai zakarrari...

-Izkutu ori zabaldu, ta artatik galdu lezakenen bildur, nunbait?

-Orixe bera!

-Ta zabaldu al liteke emen izkutu ori?, -Lizar'ak.

-Etzun Erko'k alako asmo aundirik. Bañan, Basurdi'k bere egite makurrekin artara beartzen gaitunez, ona emen:

Bost Erromatar topatu zitun bein Basurdi'k. Etziran gudari. Etzuten ezpatarik eta iñungo beste izkillorik. Erribera'rako bidearen berri galdetu zioten bakarrik, gure artzayari. Onek estrata estu ta basatia erakutsi zien eskuz. Eta gero, bere lagunetara ariñiketan joanik, bere asmo zitalak esan, eta estrata aren buruan ayekin bat gorderik, arrotzen gañera, ayen ustekabean jauzi, ta danak txiki-purrak eginda utzi zitun bertan.

-Urdea, zitala, zikiña, dollorra...! -ta beste orren itz garratzak jalki zituzten danak ori jakitean.

-Eta orregatik Erko'k salatuko zun bildurrez kiskaltzen zegoan... lges egin zezakean emendik, agudo, bai; bañan Izartxo iristeko irrikak geldi-erazten zun.

Eta danak batean lortu al izateko, Erko iltzea erabaki zizuen...!

-Dollorra!

-Ala, sasi tartean gordeta aizkoraz eraso zion, bein. Erko'k bañan, bi makillakadaz, lurrera zerraldo bota zun. Eta bertan, pizti txar bat bezela, akaatu bearrean bizia barkatu egin zion. Eta bere bizkar gañean arturik, lenengo baserrira eramán, bertan sendatu zezaten. Ala agintzen omen zion Kristo'ren lege maitekorrak. Eta ikusi duzute emen danok, zer esker onak eman dizkion argatik Basurdi'k.

-Urde zikiña! Ta siñiste ta oitura on da txarrak aitzeko adorea zizuen, maltzur galanta arek! Orain ikusi dugu danok ondo, Erko sorgiñen ezeslari, ta Basurdi kristauen ezeslari, bi mutil oyen artean dagon aldea!, -Kostorbe'k.

-Epaitu baño len, iñor atzitu ta gaiztetsitzaa debeatua bait du gure legeak, deitu dezagun bera, Basurdi alegia, ta aurkeztu dedilla lenbait-len Batzar onen aurrean, bere burua zuritzera. Egite makur orrek zigor gogorra merezi du, -Lizar'ak.

-Nik deituko dut, -Kostorbe'k.

-Ba du iñork zerbait geyago esatekorik?

-...?

-Itxi dezagun, ordun, gaurkoz Batzar au, Basurdi epaitzeko epea datorkigun arte.

Doi-doika altxatzen asi ziran Batzarreko jaunak, bata bestearen ondotik, anak txingurrituta bait zeuzkaten askok, egonaren luzearren.

Ta altxatu ondoren, inguruko ikusterre zabal eta zoragarrira begira jarri ziran batzu: Olearso'ko ibar ederra, Txingudi'lao itsas-kolko argia, Lapurdi'ko zabaldua, Naparroa'ko mendi beltzak...

Urone'ko Koxko erretzen ari zan zezenko gurien-gana joan ziran bestetzu. Ta aren aragi guriak zirikatzeraz eman ziran ziri luze batzuekin zirt or eta zirt emen, ea jateko prest ote zegoan...

Jan zuten aragi artatik nai ainbat; edan zuten beste ainbat sagardo gorritz gañezka zegoan kupela artatik. Eta au ta uraka, arratsaldea luzatu ondoren, Batzar-dantzari lotu ziran jaun guziak.

Eta aritz maitagarri aren azpian emandako dantz agurgarri, aundiki ta eder onekin bukatu zan Batzar oroigarri ura!

XXVI

KALAGORRI'N

Txitxi-burruntzi ezkeroz, laister zan Kristauen garizuma. Ta Lizardi'n Izartxo'ren ezkontza aurrera bait zeramaten, eta Erko ere uste ortan sendo bait zebillen, Kalagorri'ra joateko asmotan asi ziran danak.

Jakiña bait zuten, Izartxo'k, ezkon-aurretik, bata-
yoa artu bear zula. Ta Jesukristo'ren ikurton aundi au Kalagorri'n, bertako gotzayaren eskutik artu nai zun Izartxo'k, oi zan gertaera ta ospe aundiarekin artu ere.

Pasko aurreko gaba ospetsuan batayatzen ziran Kristaugayak. Eta berrogei eguneko garizumaren adar luze orreri lotu izan bear zuten, asmo ori zuten guziak.

Austerre egunean asten zan aro saindu au; eta bertan egon nai zuten, egun artarako, gazte maite-minduak.

Zaldiz abiatu dira bi gazteak. Eta ayekin batean eta era berean, Izartxo'ren gurasoak ere. Pozik lotuko lirake bideari Aritz eta Usoa ere, bañan, zaldiz joateko zarregi. Egingo al zuten, egin laister Bidasoa'ko kalzada ura, zaldi-gurdian sartuta, bereala joateko.

Lizardi'n geratuko ziran beurek, bitartean, aren zai eta ango lanetan, Xinko ta Xanko umeen lagun. Lan aundirik ere ez aro artan bestalde, etzitzayen neke-tsuegi egingo bertako egoera.

Zaldiz ondo oitu gabea Izartxo, ainbeste orduko ibiltze luzeak ipur-masaillak minberatzen asi zizkion. Etzan artaz asko oroitzen bañan. Barruko poza aundi batek kanpoko neke guzi oik antz-arazten bait-zizkion.

Bai, Kalagorri'ko erri miraritsu artan zitun Izartxo'k eta irudimena, eta gogoia, eta biotza eta barruko asmo guziak; Kalagorri'n eta bertako gauz arrigarri guzi aye-tan...

Kalagorri Kristau-erria zan..., eta ainbeste ta ainbeste gauz entzun izan zitun giza berexi ayetaz...! Uso, egazti miraritsu ayek ere artarako bidean igarotzen ziran emendik... Eta alako erri polita ere zala esan zioten, gero...! Eta ango garizumako elizkizunak....! Ango Paskoaren ederra, batayoaren aundia, ezkontzaren ezta, Erko'ren betiko maitea...

Eta gauz aundi oyek gogoko almenak pozten zitzaizkion bitartean, gorputzeko sentsumen guziak ere igerika bezela zebiltzkion, baranoko ikusterre zoragarriaren barna.

Orduko, bizia mugitzen asia bait zan inguruko baso aundietan. Eta parrez ziruditen pago gizenak, beren muskil zurizka, aundi ta berealaxe lertu-bearingekin. Musker-jantzia zabaltzen zijoazten aritz-tantayak. Eta landare guziak ñiñiko gizenak erakusten zituzten beren buruetan.

Okilla ta kukuaren txintak ere eldu ziran noizean-noizik. Eta txioka zebiltzen inguruko txori guziak, kabi-gayen billa.

Eta ikuskai ta soñu ta usai berriok sumatzearekin bat, biotza lertzen zijoakiola, zirudion Izartxo'ri, ta beste bizitz berri bateren kimuak ernetzen eta azitzen zitzaizkiola bertan.

Ikusten zitunaz eta etzitunaz, milla galdeera egiten zizkion Erko'ri, galdera bakun eta zaillak egiten.

Ala, txutxu-putxuka eta berritsukeri utsetan iritxi ziran, noizbait, Kalagorri'ra, iru egunen buruan.

An, bi kristau-etxeetan jarri ziran, lanaren truk. Bere gurasoekin Izartxo, ta alboko beste batean Erko. Ango baratz, mazti, oliodi ta garitzak! Eriosuar lotu zan Xemein lanari..., ta landare ta igali guzien aziak altxatzen, eta lan guzien izkutuak ikasten zijoan. Muskilda ere ango jantzi, etxe ta tresneriaz arriturik zegoan.

Kalagorri etxe askozko erri aundia zan. Etxeak bata bestearen gañean, eta arresi aundi batez inguratuak zeuzkan. Eta mendi tontor bateren gañean, exerita bezela, patxaran zegoan, ala bere burua etsayengandik obeto zaindu lezakelakoan.

Etsai asko izan bait zitun Kalagorri'k. Eta Keltak eta Sertori okerrenetakoak. Lur onak bait zitun eskualde onek, emen lotu nai izan zuten ipar-aldetik eldu izan ziran Kelta izeneko gizon gorri ayek. Errex bota zituzten Euskaldunak beren menditik gizon basati ayek, eta baita goiko ibar guzietatik berantza bultza ere...

Erribera ta Erriotza'ko ordekatan etziran orren garaitu-erraxak izan, ordea; setatsu, gogor eta burniz jantziak bait zetozen. Euskaldunak burnia ezagutu ta izkillo ta era berriak ikasi zituztenean, bañan, gogor eraso ta beko ordekatik ere ilki ta jaurti zituzten.

Geroago, guretzako gizonik galgarriena etorri zan Erroma'tik onara: Sertori. Au, Erroma'ko agintariekin aserre zegoala ta, Hispania'ko Iberotar ta Kelta guzien buru jarri bai, ta Hispania'n ziran Erromatarren aurka altxatu zan.

Ordu onen begira zegozten gure inguruko Kelta amurratu guziak. Eta orain danak bat, eta izkilloz ondo

jantziak, eta Sertori agintari aundi aren menpean dagoztela, gure aurkako guda zar ura berritu ziguten. Eta ala, Erriotza guzia kendu ere aren erri-buruu Oskata Kalagorri'kin.

Euskaldunak amorruez beterik gelditu ziran, eta Sertori arrayo areri ta Kelta bere lagun zital ayei al zuten oker guzia egiteko gogo biziakin.

Ala, beste buruzagi ospetsu bat etorri zan Erroma'tik: Ponpeyo. Au, Sertori ta bere Kelten aurka zetorren. Zorionez etorri ere. Ebero ibai ondora iritxi zanean, euskaldunak irten, arekin batu, ta sekulako astiñaldiak eman zizkien inguruko Kelta guziei.

Sertori'k Oskata'n eman zun negu beltz ura. Eta Ponpeyo'k gure Iruñan, alde guzietatik, euskaldunez, ondo inguratua, eta gure mendietako egur, belar eta aberekiak ondo ornitua.

Emendik irten da, Sertori ta aren ordezeko Perpena zirtzila ta ayen gudaloste aundiak txautu zitun Oskata'ko inguruan. Eta gure lurralde guzia, ayen menpetik kendu nairik, Kalagorri'ra etorri eta, egun luzeen buruan, emengo etsayak ere ondatu.

Etzitun, ala ere, Kelta guziak menperatu. Gelditu ziran, oraindik, Euskaldunen sarkalderuntz, Kantabro izeneko Kelta sail ederrak, aski tenk geratu ere.

Ponpeyo'ren eraso eragilleak kikil-kikil utzi nun-bait, ixillik egon ziran luzaro. Urteak dana antz-eraz-ten omen, ordea, antzi zitzayen au ere, ta Bizkaiko euskaldunen aurkako lengo eraso berri zuten.

Euskaldunak, ordun, bere auzo ta adiskide Erromatarrak deitu, ta ok sekulako guda-ostekin etorri ta, urte batzuen buru, Mindio'ko mendi aundietan, azkeneko Kelta setatsu ayek ondatu zituzten.

Pakea dugu euskaldunak, arrezkeroz, Kalagorri'n eta bere inguru guzian, nagusi. Ta pakearekin eta lagun berri oekin gure erri aundi onek egin ditun irabaziak: etxe politak, joku-toki ederrak, kaltzada luzeak:, landare berriak, baratz joriak..., danetan ederrera, bañan, Kristautasuna.

Done Pallo'k ekarri zigun au, orain berrogeitamar urte edo. Ura zan gizona ura! Jesukristo'k bat-batez eta arrigarrero bere bide onara biurtu zula ta, Aren mutillik zintzoena, arrezkeroz, biurturik, Aren Berri ona aldarrikatzen ibilli zan eta Asian eta Grezian eta Italian eta Hispanian eta gurean...

Goiz guzian irun da irun naiko lan egin ondoren, gizakiak zijoazten atsedeen-olgetara joan da, an Jaunen Berri ona aldarrikatzen zien.

Asko biurtu zitun bide onara. Baita Kristau-bazkun polit bat eraiki ere. Eta ayetako kristaurik zuzen eta zintzoena bertako gotzai ta buru egin zun, berak Erroma'ra itzuli bear izan zunean.

Etzun Neron'en sakailketak iñungo martirik egin Kalagorri'n. Ez eta Trajano'nak ere. Agintari zintzo eta gizaki otzaneko erria erruz azi zan Kristau-siñiste ta oitura berrietan.

Eta oraingo Adriano Kaiser'ren egun oetan, aundi, eder, elizkoi ta zoriontsu bizi da Luka gotzai agurgarriaren zaipean.

XXVII

KRISTAUGAI

Goiz guzian lanean jardun ondoren, eguardian etxeratu, ondo garbitu ta, elizara abiatu ziran soñeko ederrenez, gure bi gazteak.

Austerre eguna zan. Eta arratsalde artan asten zan Batayorako berrogei eguneko «Katekumenatum» edo gertaera ura. Erko'k izan nai zun Izartxo'ren aitautxi; Elizaren legeak galerazten zion, bañan. Andrazkoak amautxiakin aurkeztu bear zuten, eta aitautxiakin, berriz, gizonezkoak.

Lizardi'koak sartu ziran etxeko andre Urdiñe izango zan Izartxo'ren amautxi. Ta Urdiñe onen seme gaztetxuak ere batayoa artzekoa zala ta, Erko egin zuten aren aitautxi. Etzun Erko'k, orrela, Izartxo'ren itzalik galdu al izango.

Kale guzietatik barra-barra zetozen gizakiekin batu ziran gureak, eta ayekin batean elizan sartu.

Andik gutxira, eliz atzeko gelatxo batetik, eliz gizonak, lerro-lerro, eliz-aurreko aldarera abiatu ziran polliki ta aundikiro, ondoko abeslariak kanta ta kanta ari ziran bitartean. Lurrun-ontzizko mutilla zetorren

aurrean, ontzia batera ta bestera txairo erabillirik. Gurutzedun «subdiakono» bat zun atzetik, bi kandela-dunen erdian; eta «diakonoak» gero; eta apaizak...; eta gotzaya, azkenik, bi apaizez inguraturik, eta iñungoen apain, eta urrezko txano eder bat buruan.

Aldare aurreko alki eder batean exeri, ta Kristaugarai guziak deitzen ditu gotzayak. Ba-datoz ok lerro-lerro, andrazko bakoitza bere amautxiakin, eta gizonetzko bakoitza bere aitautxiakin, danak ankutsik eta soingañekorik gabe.

Ba-datorkio Izartxo'ri bere txanda. Ta gotzayaren aurrean gelditzen da ixil da umil, bi eskuak bulargañean.

Ta asten da gotzaya, Izartxo eskutik daraman, Urdiñe andre argiakin:

-Ta onen izena?

-Lizardi'ko Izartxo.

-0! zeñen izen polita! Eta nungoa da bera?

-Goiko mendi oyen beste aldekoa.

-Goiko mendi oyetakoa e? Ta andik onaraño etorri al da batayoa artzeko?

-Bai, jauna, bai, artarako bakarrik etorria zaizu.

-Nola iritxi zayo, ba araño Kristo'ren berri?

-Erko bere gayak erakutsi dio. Erroman egondako guda-mutilla bait du au...

-Baita... baita... Ta nolako neska da?

-Ezin ohea.

-Zuk ezagutzen al duzu?

-Nere etxean egiten du jan da lo. Ta ixilla, otzana, esanekoa, bakuna, zintzoa ta zuzena da oso.

-Zer diote berataz gurasoak eta Erko'k?

-Nik esan dizkizudan gauz berak, jauna.

-Ondo da. Nola esan duzu onen izena?

-Lizardi'ko Izartxo.

Ta liburu aundi bat eskuan arturik, urrezko luma eder batekin Izartxo'ren izena bertan ezartzen du.

Eta lerroko guziakin bukatu zunean:

«Bejonzaizuela, kristaugai maiteok -asi zan gotzaya ozenki-. Deabruaren menpean bizi izan zerate, orain arte. Orregatik etorri zerate jopu bezela, anku-tsik eta soingañekorik gabe.

«Orain bañan, elizaren liburu ederrean idatzita daude zuen izenak. Ta baita zeruan ere, liburu onen bitartez. Ango errikoak zerate, enetxoak, ez emengoak. Atzerritar bizi zerate lur ontako erbeste ontan. Utzi, bada, emengo gauz guziak; eta jarri itzatzue

zuen biotzak goyan, jarri bai zeruko edertasun guzietan.»

Andik aurrera egunero joaten zan Izartxo elizara; eta mesa aurreko otoitz-erakutsialdian, bere anima jazten eta edertzen zijoan.

Araolari zeritzan eliz-gizonak, bi eskuak buru gañean, arao berexiak jalkitzen zizkion, aurrenik, anima artan deabruak oraindik izan al zezazken indar, eragin eta aal guziak, bereala galdu zitzaizkien.

Itun zarreko zatitxoak irakurtzen zizkieten, gero, erakutsiaren bidez, eta gotzayak bere guna berexia azaltzen itzalditxo xamur batean.

Otoitz batzuk belauniko azkenekoz egin, eta «diakonoak»: *Signate illos* oju egiten zunean, gurutze santua egiten zion Urdiñe'k Izartxo'ri bere bekoki gardenean. Eta ura bein da berriz egiñaz, Arkalen bezela, Lizardin bezela, irtetzen zan Izartxo elizatik, «diakonoak»: «*Catechumeni recedant*» esan orduko.

Eskeintzerakoan gero, Urdiñe'k bere ta Izartxo'ren oparigayak eskeintzen zizkion gotzayari. Berebat ere egiten zun Erko'k bere besoetakoaren izenean. Ta ala, ogi ta ardo ayetan adierazitako kristau zintzo ayek Jaunari, egunero, bere buruak eskeintzen zizkieten.

Eta Mesa santua aurrera zijoala, Izartxo'ren izena beste kristaugayen batean, Sagarakoan ozenki ta danen aurrean irakurtzen zan, Jaunari argatik danak otoitz beroak egiñaz.

Bigarren asteazkenean, bigarren azterketa izan zun Izartxo'k, bere bizikera ta ikaskizunen azterketa.

Eta azterketa ontan ere, egoki baño egokiago egon zan Izartxo. Ta aren buru gañean eskuak jarri, ta bekokian gurutzea egin ondoren, gatz bedeinkatua eman zion txastatzeko apaizak.

Gatza...? Arritzekoa zan ura ere, aatik! Usoa, bere amonak ere gatza botatzen bait-zun sutara sorgiñak uxatzeko...! Ez, ez. Etzan ura alakoa, ez. Zuurtziaren gatza zan au. Ala zion, beintzat, apaizaren otoitzak:

«Gure Jaungoiko maitea!: Zure mirabe Izartxo oneri errukiz begiratzeko umilki eskatzen dizugu. Eta lenbiziko janari gatza arta baitu, ez bego luzaro zure janari jainkozkoaz ase gabe. Gogoz bero izan dedilla beti, uste onez alai ta zure izenen menpeko. Eraman ezazu, Jauna, bizitza berriaren iturrira, zure siñistedu-nekin Zuk agindutako betiko zoriona iritxi dezan».

Eta apaizak ixilki esandakoak, gotzayak ozenki borobilduaz:

«Entzun biotz onez, Jauna, gure eskariak, eta gure ezbear guzietan zabal iguzu zure esku indartsua».

Eta gatza yartzatzeko eman ondoren, olio sainduz igurtzitzen dute neska.

Iru gauz onuragarri ekarri oi dio gorputzari olioak: eta gaitzak kendu, eta indarrak geitu, eta osasuna sortu.

Iru gauz oyek adierazi nai dizkitzu, bada, eliz-siñu onek. Eta oiko olioak gorputza lez, olio saindu onek, ere anima sendatzen, indartzen eta gaizkatzen dizu.

Sendatu? Etzizun Izartxo'k, bere animan, gaitz asko topau: sorgiñetan siñistea, ta ayenganako bildurra, orratx dana! Eta aspaldi, kendu zizkion Erko'k oyek ere.

Indartu? Bakuna ere zan berez Izartxo, ta agudo, Erko'k agertu bezin laster, siñistu zizun berak Kristo'-gan, eta Aren egi ta agindu guzietan. Siñistu... ta maitatu. Eta nola maitatu ez Kristo, maitatu ere, alako biotz zabala agertu zigun ezkeru? Eta Kristo'k merezi dun siñiste ta maiteak ez bait-dizkitzute iñungo neurririk, emen bai, emen erruz irabazi zizun neskats xamurrak.

Gaizkatu? Etsai ta deabru guziak garaitu izan zitun ordurarte, deabru guziak berekin zizkizun Basurdi ura garaitu, batez ere.

Amor emana izango al zun, bañan, artzai dollo-
rrak? Egia zan bai, bere burua garbitzeko Batzarrera
deitu zutela. Deabru arek, bañan, bere mendietara
iges egin zizun, bere artalde osoa Olearso'n utzita.

Eta bere burua jarei ikusteagatik bakarrik, iges
egin ote zun, ba? Ez al zan an, Mendaur'en alegia,
beste zerbait okerragorik asmatzen ibilliko?

Bai, Basurdi setatsu arek asmatu litzazken burru-
ka guzietik iges egiteko, zeruko laguntz aundia bear
zun. Eta ala, iñungo jayera ta biotz kartsuz egin zizun
Izartxo'k olioiz igurtzitzeko siñu berexi ura.

XXVIII

TXUTXU-PUTXUKA

«Kredo» bitarte bakarrik egon ziteken Izartxo, elizara Mesarako zijoan bakoitzean. «Kredo» esandakotan, Erko ta Urdiñe eliz barnean utzirik, kanpora irtezen zan.

Eta illunkera bait-zun ordurako, etxera zuzentzen zan berealaxe, ta an Erko'ren zai, irun da irun egoten. Ainbeste zun, izan ere, irun bearral

Gabaz irun, da egunez josi, aren arrioren ederra! Arriorik ederren bañan, bere batayoa ta bere Erko.

Ta Izartxo'ren poza, arizko irun-lanak amaituta, illuntzean Erko'rekin maite-irunlanetan asten zanean...!

Gabako txolarte oik baño askoz ere atsegiñago ditu Izartxo'k, igandeko opor-orduak. Bakarrik eta luze jardun bait-diteke, orduan, bere maitearekin.

Ta ezer ez ortarako, Kalagorri inguruan barna, ibi-llaldi bat ematerik baño oberik. Eta ala zoazkizu, igandero, erri ederraren inguruko baratzien barna, egurastu orde.

Ok baratzak, ok zelayak! Eta auxen arrigarriena: begiak iñungo topogarririk ez aurrean. Mendirik ez, alegia. Tire...! izan, izan bai, bañan, an urruti, ikusterraren mugan. Eta ok ere, musker bearrean, danak arre.

Eta zabaldi bulartsua, baserri bakarka ordeztu, erri aundiaz jantzia.

Erri aberatsa dala Erriotza, ba-du aberatsaren izan bearra, alako giza-tirkua elikatzeko!

Ez du Izartxo'k, ala ere, urruti eder aietara, begiak jasotzeko betarik. Ondoan bait du gauz oik guziak baño poz eta atsegin geyago ematen dion edergarria...: Erko!

Aren arpegi ortz-argiari begira, joan da joan dijoa neska pertxeta.

Oñak zanpatutako belar gizenak lurrintzen die eguratsa, inguruetako pinpilipauxek begiak edertzen, txartaka guzietako egaztiak belarriak alaitzen.

Baratz-ertz guzietan barna, urak pol-pol dijoaz. Eta eguardiko eguzkiak geyegi berotzen bait-du; Izartxo'k, ixurkiak «pol-pol» dion bakoitzean, «atoz-atoz» entzuten dizu, ta alaxe adieraztera doa bere maiteari:

-Atsedeen pixka bat artu bear genduke, Erko!
Ertzeko ur berritsu oyetan anak sartzeko gogoak ematen zidak neri.

-Orixe bera asmatzen ari niñun ni...!

-Emengo erreka oen berexia, bañan!

-Emen ez Olearso'koen jauzi, apar ta zalapartarik...! Emen ez goroldiz zikindutako arririk. Emen ez beresiz jantzitako esirik. Ezti ta epel bli-bli dijoazte bere ildo zabalak beteki, Ibero ibai aundiaren, beso luze ta berdiñok.

Eta gure gazteak, ur epel oetan, plisti-plasta. Plisti-plasta Erko, bion oñetakoak ezkuetan; plisti-plasta lizartxo ere, bi eskuekin gonak jasoaz.

Ibilliz aspertu bañan, errekaren munan apatx exeri dira. Eta ez bait-die ur epelak, anak oraindik naiko oztu, ok uretara luze-luze jarri dituzte. Ta lizartxo'k:

-Sorgin-erreka duk, iñolaz ere, erreka au, Erko...!

-Nik ere ala diñat uste.

-Begira, begira, Erko, mari-orratz ori...! Tximista zirudik atzera ta aurrera. Begira-begira zeñen polita... Aurreko iya orren gañean kekatu duk orain...!

-Bai, polita dun bai. Lore antzeko egal urdiñak dizkin, orratz antzeko gorpuzkera liraña... Polita dun bai, lizartxo... bañan, i añakorik bai ote...?

-Ixillik ago, ergela...!

-Etzekiñat ba, jakin ere, nor zeraten sorgiñagoen, xomorro ori ala i, sorgintxo...

-I aiz naiko xomorro, ergela...! I... ta loreak aitatu ditukan ezkeru, zer loramueta zaik iri atsegiñen?

-Aurreko ubel-lili oyek politak ditun oso.

-Ta zer zaik oyetan atsegiñen bere urdiña edo ta usaya?

-Ez bata ta ez bestenik...

-Ezetx...? Zergatik atsegin zaizkik, orduan?

-Ire antz aundia ditekenelako...!

-Nire antzik?

-Bai...! Ubel-liliak apal eta ixil, osto aundigoen artean, doi-doi agertzen dituen beren urdin polita ta usai ezta...!

-Bai..., eta ori zer...!

-Ba..., asmatuko al diñat... Ba... ik ere, ire aingeruzko begikera apal eta bakun orretan, iñungo arpegi eder eta maiterik aundiena agertzen didanala...

-Erua...! Ez besteen erua...!

Ta au esanik, uretik at ateratzen ditu Izartxo'k bere anakak. Erko, ayen zuri-gorriaz oarturik, len larraz odoldutariko une artaz oroitzen da, ta orduko Izartxo'-ren larros-arpegi artaz.

-Ez, Izartxo, ez. Ez ditun ubel-liliak niretzako lore-rik atsegiñenak.

-Zeintzuk dituk ba?

-Larrosak, Izartxo; intz-tantoz bustitako larrosa aundiak...!

-Ergela...!

-Au neska...! Erantzunik nai ez duenak ez dezala galdetu... Nayago al dun nik galdetzea?

-Bai, bai... Ergelkeri aundiagoak esango dituk, bestela, ta...

-I loretaz ari izan aizen bezela, nik egaztiaz galde-tuko diñat. No, ta zeñen ojua zain iri atsegiñen?

-Gau izartsu oetako «klik-klok» garbiak ametsetan jartzen zidatek.

-Uif...! Apo, mamorro gaizto orren ojua dun ori, neska.

-Kir-kirrareen leloak ere biotz-argitzen zidatek...

-Uif...! Lurpeko xomorro itxusi baten zalaparta dun ori, neska.

-Goi-ariztitako «kukuak» ere poz-esnetan jartzen zidatek.

-Uif...! Egazti anker bateren txistua dun ori, neska.

-Itxoin, itxoin... entzuten al duk? Orain esi ortan abesten ari dan txori orren txinta zaidak danetan atsegiñik neri.

-Bai... Ez dun txantxetakoa ez. Ederra dun ori. Orren jabea ere ez dun nolaikoa izango. Kabidun egaztia dun agian. Nola, bestela, orrela abestu. Nai al dun bertara joan, kabia artu, ta etxera gurekin eramatea?

-Ta zapuzten ba-dik?

-Kabia utsik bada bakarrik zapuzten ditek. Ez ala, semetxoaz jantzirik ditekenean...

-Arrigarria duk orixe...!

-Bai, Izartxo, ala dun...

Ta beste gaberik, ixil-ixillik, aurreko esi muskerretan galdu zan mutilla, kabi-zun.

Neska, bitartean, saltoka, erle berri bat kolkoan sartu bai-litzayon...

Ta ba-datorkio mutilla kabi polita eskuan. Iru txorikume zitun barruan, eta ok izaturik, batera ta bestera zerabilten, orratz-buru antzeko begi beltzak.

-Oi gaxuoik -asi zan neska-. Zeñen politak! Zuen burutxo polit oik musukatzeko gogoia ematen didazute, txoritxuoik!... I, Erko, bañan, ez al ditek, gure eskuetan ola ibiltzen ikusita, beren gurasoak zapuztuko?

-Luzaro ibilli ezkerro bai. Goazen, ba, goazen, bere ayekin, etxera agudo.

-Itxoin, oñetakoak jantzi arte...!

-Gauz asko ekartzen zizkidan burura kabi onek, neska...

-Zer, bada...?

-Urretxindor onen kantak bukatzen ditun, berdin ere larrosaren ostoa... Ez al dun gure maitasuna ere noizbait amaituko?

-Zergatik, bada?

-Eguaren ederrak jazten dizkin loreak... Lore ederrak alaitzen txoriak. Eta oraingo egun eder ok neguan moztu ta oztutzen direnean, izaki polit guzi ok ixillik geldituko ditun. Eta ez al da gure maite au sentsun gordin oen zitua bakarrik izango, alegia... Eta, gero urteak moteldu ta epeldu direnean, ez al dun sagar umoa bezela, gure biziaren zugaitzetik jalkiko, alegia, ta...

-Zer ari aiz esaten? Nik nere izate guziakin maite aut, Erko... eta ez sentsunakin bakarrik... Eta ez al didak ik esaten, askotan, gure izate au ez dala iñoiz ere galduko?

-Loreak ere ez ditun galtzen, baldin bere ondora-ko, azia utzitzen ba-diten; ez eta txoriak kabiak umez betetzen ba-diten ere...

-Eta guk, txoritxo polit oyen antzeko semetxo beteko diau gure etxe guzia, ire urtume ederrez jantziko gure baratza... bai.

-Ez dakin, bañan, izotzak aziak galtzen ditanela, ta miru ankerrak txoritxoak iretsitzen...

-Nun dituk, bañan, gurean, izotz eta miru oyen antzekorik?

-Gure biotz barrenetan, Izartxo.

-Bai...?

-Bai. Eta gure obenak ditun oyek...

-A... bai..., Erko...? Aa..., egia, ez naizela oraindik batayatu. Batayatzen naizenean, bañan, kenduko zaizkidak danak, betiko kenduko, Erko. Eta ala, ire antzeko ta ire din egingo nauk, maite.

-Danak kendu ez... Ez ditun batayoan, sortzezko obenaren sustrayak kentzen, eta zoritxarrez, kimu berriak eman da eman aritzen ditun beti.

-Au larria...! Ta ezin al dituk, ordea, iñolaz ere kendu.

-Kimu berriak bai, sustrarik ez.

-Nola, Erko; esan, nola?

-Irten ala kendu, ta anima beti garbi ta maitekor gorde nai ba-dun, Jaungoikozko maitasun aundi bat irazeki bear dan, ire biotz-barnean; eta ori elizako «Katekumenatum» ortan iritxiko dun.

-Bai, bai... Artan alegiñez sayatzeko esan nai duk, ezta? Ez bildurtu, Erko, ez duk ori, nere alegiñen pal-taz, geratuko, ez orixe, Erko.

XXIX

KRISTO'REN MIRABE

Kartsuago biurtzen zan Izartxo elizara, iganderoko ibillaldi oen ondoren. Eta arao berak entzuten zitun an, neskak, egunero. Egunero, gurutze santuaren siñu berak egiten, bekokian. Irakurgai ta otoitzak zitun, bakarrik, bereix; eta asteazkenetan, baita siñuak ere.

Gaurko ontan, apaiz bat ondoratzen zayo, ta txix-tuz bustitako beatzakin, belarri-ezpañetan ikuitzen du, esanaz:

«Ephpheta, quod est adaperire, in odorem suavitatis».

Ori bera egin bait-zun, beñola, Kristo'k itxu ta mutu bat bere aurrera ekarri ziotenean, eta ala, entzun da mintzo-erazi bait zion mutil eriarri.

Itxiak ere izan zitun ordurarte Izartxo'k bere belarriak, Jaunaren itz ederrak entzuteko, ta bere mingaña ere lotua, Jaunari bere biotzeko asmo xamurrak agertzeko.

Abesti eder bat amaituta, lau «diakono» eliz erdira aurreratu, ta aldare nagusiaren gañean, bakoitzak

eskuan daraman «Ebanjelioa» jartzen dute. Gotzaya, ondoren, zutitu, ta onela asten da:

«Lur ontako itzak bakarrik entzun izan dituzute, orain arte. Lur ontako itzak, gauz txiki ta ustelkorrak adierazten dizkitzute, bañan, eta gezurrezkoak ere bai, askotan.

«Zeruko itza ederrak entzun bear dituzute, orain, enetxoak. Mundu au ezereztik egin zun Jaun aundi aren itzak. Ortziko izar ugari ta eder oik erabiltzen ditun Jaun aundiaren itzak. Iñungo gaitz eta oker guziak sendatu zitun Jaun xamurraren itzak.

«Erne, enetxoak! ideki belarriak, zabaldu biotzak. Jauna da mintzo.»

Eta diakono batek Matei deunaren Ebanjelioaren lenengo zatia irakurtzen du ozenki:

«Abraban'ek belauneko Dabid'en seme dan Jesu-kristo'ren etorki-idaztia.

Abraban'ek Isaak sortu zun. Isaak'ek Jakob sortu zun. Jakob'ek Juda ta aren anayak sortu zitun...».

Itxi gero liburua, estali zapitxo eder batean, ta ondoko urrezko kutxan gorde zun.

Gotzaya altxatu ondoren, eta entzundako itzen guna onela azaldu zun:

«Kristo, lur ontara gure pekatuen zorrak ateratze-
ra eldu zala ta, artarako bideak atontzen asi zan. Enda
jator bat berexi zun aurrenik, besteen guzien artetik,
Israeldarren enda. Erri ortako azia izango zula Berak,
eta iñungo esker, doai ta emari berexiz jantzi zun erri
zoriontsu ura. Artako aitagoi Abraham, Isaak eta Jakob
jantzi, batez ere, ayen belaunez-belaun etortzekoa
bait zan Bera.

Nolako lurra, alako azia, nolako azia alako landa-
rea. Landare ederra izango zan Kristo'k, alako lur eta
aziak ere eskatzen».

Bigarren diakonoak Mark deunaren zati au irakurri
zun:

«Jainkoaren Seme dan Jesukristo'ren Berri Onaren
asiera. Isai Igarleak idatzita dago:

«Ara, nere aingerua bidaltzen dizut,
bidea zure aurretik gertu dezaizun.
Ojuz dago basoan, ta aren mintzoa au da:
Aren zirkuak zuzen itzazute.

Itzok beterik, basoan Joan azaldu zan bataiatzen,
ta ogen-askatzerako garbai-bataioa aldarrikatzen».

Itxi gero liburua, aurrekoak bezela, estali zapitxo eder batean, ta ondoko urrezko kutxan gorde zun.

Gotzaya berriz ere altxa, ta entzundako itzen guna onela azaldu zun:

«Kristo'k bere etorrera Abraham'dik Jose'raño, belaunez-belaun gertu zun bezelaxe, gizonen artean bere burua aldarrika agertzea ere, igarlez-igarle gertu zun. Ta azkeneko igarlea, ta igarlerik aundiena Donibane bataiaria izan zan. Igarle aundi onek, Israeldarren biotzak atondu zitun, Kristo bear bezela artu zezaten.»

Irugarren diakonoak Luka deunaren zati au irakurri zun:

«Seigarren illabeen Jainkoak Gabirel aingerua Nazaret deritzan Galilai'ko irira bidali zun neskatz batengana. Neskatz, Jose zeritzan Dabid'en belauneko gizon baten emazte gaya zan, ta neskatzaren izena, Mari. Onengana orduko, ba, aingeruak esan zion: «Agur, eskertsu; Jauna zurekin; onetsia zu emakumetan...».

Itxi gero liburua, besteak bezela, estali zapitxo eder batean, ta ondoko urrezko kutxan gorde zun.

Gotzaya irugarrenez ere altxa, ta entzundako itzen guna onela azaldu zun:

«Kristo'k Abraham eta Isaac eta Jakob eta... izan zitun beren aitagoi. Isai, Jeremi, Ezekiel, Daniel, Donibane... bere igarle. Eta ama...? Mari, iñun ere dan izakirik ederrena.

Bere diñako ama zedin, jatorrizko pekatuak gabe sortu zuen Jaunak, eta goi-esker eta emari guziaz bete.

Done ta aingeru guziaz batean artuta luketen aundi, eder, garbi, ontasun ta gurena baño geyago zitun gure Andre Mari'k, sortu zuen une berean ere.»

Laugarren diakonoak Donibanen zati au irakurri zuen:

«Asieran Itza ba-zan,
ta Itza Jainkoagan zan,
ta Itza Jainkoa zan.
Asieran Bera Jainkoagan zan.
Dana Berak egiña da,
ta Bera gabe ez da egin
egindako ezer ere.
Beragan bizitza zan,
ta bizitza gizargia zan;
ta argia illuntan ageri da,
ta illunak etzun artu».

Itxi gero liburua, beste guziak bezela, estali zapi-txo eder batean, ta ondoko urreko kutxan gorde zun.

Gotzaya laugarrenez ere altxa, ta entzundako itzen guna onela azaldu zun:

«Aita Jainkoaren barrenean eta Beraren bete, Semea Jainkoa ere da betidanik. Noizkoa noiz dan baño lenagotik. Eta Kristo deritzan Itza edo Semeak Aitaren altzoa utzi gabe, Andre Mari'ren sabelean giza-aragi egiazkoa artu zun eta gizona egin zan.

Gizona bere jatorrizko bide zuzenetik okertu egin zan. Eta bere, gizonaren damuz eta alegiñaz, ezin bar-katuzkoak bait ziran gure pekatuak, ayen zorra atera-tzeko egin zan gizon Kristo gure Jauna.

Illunak,... bereak... etzuten artu, ordea...! Aitzitik ere, esan eta egindako arrigarri guzi ayek maitez ordaindu bearrean, eriotzera ondatu zuten. Nolako eriotzera, gañera...! Masallekoak..., zigorkadak..., arantzak... eta era guzietako irain eta oñazeak jasan-erazi ondoren, gurutze gogor batean iltzez josi zizu-ten.

Ona emen, enetxoak, zenbat oñaze, min eta nai-gabe kosta dizkion Jaungoiko maiteari zuen batayoak. Ona emen, enetxoak, Kristo maitearen itzak, maitez-ko itzak, ezin neurtuzko itzak.»

0! Ok danak entzutean Izartxo'k biotzean sumatu zitun zitzak! Zenbat eta nolako gauz ederrak esan eta egin ez ote zitun, izan ere, Jaunak. Danak bertan ikasi nai lituzke neskatzak. Ezin, bañan, danak batean, eta ederrenak eta garrantzi aundienekoak sortan bildu, ta orain azaldu bear dizkiote, buruz ikasi ta biotzean ondo gorde ditzan.

Ba-darama gotzayarengana eliz-mutil batek; ta aren oñetan belauniko dula, gotzayak mutillari:

-Zer izkuntzez aitortzen du Jainkoa, euskeraz ala lateraz?

-Euskeraz.

-Azaldu iozu, ba, siñestea euskeraz.

Eta asten da mutilla: Siñesten dut Jainkoa... Eta neska, aren itzak berritzen, dijoa ezti ta eskurakoi.

Eta ba-dator Jainko aundi ta on oneri itz egiteko ordua. Ene...! Eta nola Jainkoari mintzo? Zer esan? Eta nolako maite ta begirunez esan?

Errax! Kristo'k berak esan bait-zigun zer eta nola mintzo gure Aita Jainkoari... aita bait-dugu Jainkoa, ta aitarik arduratsu ta maitekorrena.

Eta gotzaya bera dijoakio aurretik Jaunaren otoitz xamurra ematen:

-Aita gurea

-Aita gurea...

-Zeruetan zaudena

-Zeruetan zaudena...

* * *

Ta, iritxi gera, onenbestez, batayo aurreko azken azterketa ta siñuetara. Exeri da gotzaya, aldare aurreko bere alki nagusian, ta banan-banan deitzen ditu kristaugayak.

Ba-dator Izartxo ere, ta gotzayak ederki jantzi ta mintzo oznenez:

-Izartxo, egiten diozu uko Satan'i?

-Bai, egiten diot.

-Eta aren egin guzieri?

-Bai, egiten diet.

-Eta aren aundikeri guzieri?

-Bai, egiten diet.

Eta gero, azkeneko siñu au azaldu nairik, jarraitu zun gotzayak:

«Bai al dakizute zer egin duzuten? Ankutsik eta soingañekorik gabe etorri zerate, austerre egunean bezela, ez bait zenioten, oraindik, Satan'i ukorik egin.

«Orain bai, orain jarei zerate. Sarkaldera begira, ta eskua arantza luzaturik, uko egin diozute Satan'i. Sarkaldea emengo illunen esku-aldea dan bezela, Satan animako illunen aita bait da, aita beltz, itsusi, zikiña.

Bildurgarri ta indar aundiko aingeru likitsa zan. Orain, bañan, Kristo gure Jaunak azpiratu ta ondatu dizute betiko. Ez duzute, onezkero, aren bildurrik izan bear.»

Itz ok entzutean, Basurdi etorri zitzayon Izartxo'ri burura. Ez al zun gotzayak aren izenik aldatu izango, Satan deitu zunean? Baldin izenak berdiñak ez ba zituzten ere, berdiñak zituzten izakiak, bai. Beltz, okerra ta bildugarria zan Basurdi; Erko'k azpiratu ta ondatu zun, bañan, Kristo'k Satan bezela. Eta biei uko egin zien Izartxo'k, Satan eta Basurdi'ri, biek ere ezetsi, bien bildurra ere ken.

«Satan'en egiteak, jarraitu zun gotzayak, eta dantzak dira, abesti lizunak, burrukak, eriotzak, gezurrak... Oeri ere uko egin diezute, ez duzute alakorik geyago egin bear».

Etzun Izartxo'k oetako ezer ere egin. Dantza... bai... Orratx! ori egin izan zun ba..., eta aski maiz, alai eta lirain egin ere. Dantza oyek etziran pekatu izango, bañan. Alako dantza garbi ta txukunak pekatu...?

Beste dantza batzu aitatuko zitun gotzayak itz oyetan. Iñoiz geyago dantza eder eta alai arek egin gabe gel-ditu bearko al zun, ba, berak... Erko'ri galdetuko zion, mutil onari agertuko bai bere barruko kezka ura!

«Satan'en aundikeriak, gotzayak berriz, aren asmo putz eta gezurrezko indarretan siñistea da: sendagai, kutun, sorgin, lami, ireltxu, azti, ta ayen antze-ko erokerietan biotza jartzea».

Au bai, au neretzat da, esan zun Izartxo'k bereki-ko, gorri-gorri eginda. Utzi nitun, baña, Erko ezagutu nunetik. Eta uko egiten diet, orain ere berriz; ziñetan uko, iya orainarte iltzear kikildurik eduki nauten, txal-dankeri oyeri.

«Orain, bada, Gotzayak bukatzerako, orain, bada, Satan'i uko egin diozuten ezkeru, jantzi zuen soinga-ñekoak, jarri zuen oñetakoak, eta zutik eta alai begira Sortaldera, eguzki aldera. Ta ara eskua luzaturik, argi ta argi guzien aita dan Kristo'ri eskeñi izkiozute zuen buruoik, eskeñi bai, bein da betiko».

Eta gotzayaren esanera jantzi ta zutitu ondoren, esan zun Izartxo'k:

«Gorputz eta anima, naizen guzi au, Zuri opa dizut, Jauna; eta Aitaren, Semearen eta Gogo Gudena-

ren izenean batayoa artzeko zin egiten dut, zin sendoa egin ere.»

XXX

BASURDI BERRIZ

Bere animako gertuera bezin aurreratuak zera-mazkin Izartxo'k bere arrio-lanak.

Eta ala, Urdiñe'nean bereala agertu bearrean, inguruko baratz eta zelai ederretara zijoan sarritan beste bere kristaugai lagunekin bat, eta elizan entzundakoak auznartzen, eta udaberriko edertasun ayetan bere biotza alaitzen.

Urdiñe'nean nai izaten zun, illunarrerako, lendanik dakigunez. An ere, eta aren zai egoten bait zan, ordurako, Erko beti. Eta ainbeste ta ainbeste gauz zituzten alkar esateko...!

Izartxo maiz, alakoetan, kolkoa larrosa ederrez beterik, eta maraguriz egindako, uztai gorria lepotik zintzillik, agertzen zan etxera.

Lore-zale purrukatua zan da, iñun topatzen zitun lore guziak eskuratu ta etxera ekartzen zitun. Larrosak maite zitun, batez ere. Erko'k kutsatuta ote? Eta larrosetan, margo gorrizkoak; eta ayetan potokoak; eta ostoak baño, usaya nayago.

Orregatik sartzen zitun kokoan, lorez betetako baratz eder batean zegoela, bait zirudion ala. Larrosetan bezin atsegin zebillen marrubietan ere. Azi ta lore zabalduaz eder ageri ziran belardiak Eta oinpean zantpatzean, lurrin gozo zabaltzen zuten.

Eta, gero, ayen azpitan muxu gorri ageri zirau maraguri-ale ayek! Naikoalk jandakoan, belar luze bat artu, ta ayetan banan-banan sartzen zijoan.

Au Urdiñe'ntzat, au aitarentzat au amarentzat, au Erko'rentzat eta ala, danak lerro-lerro jartzen zitun. Erko'rentzakoak; besteentzakoak baño, geyago beti.

Ta Urdiñe'k Izartxo'ren maitezko jokuari antz-emanik:

-Etzion ori ondo, Izartxo! Beti Erko'ri joaten bait zaizkin alerik ederrenak; eta iñoiz ez ire amautxi oneri. Berarizko joku zirudin orrek, eta ez garbi-garbienetakoa.

-Nire animaren alde geyen zayatzen dana, bera nunbait, eta ara ere joaten, joan ere, nere ezker onaren ageria.

Ta ori esatean, begiratu luze maitekor bat egin zion, itzalgaizka, mutil zintzoari.

-Ta, ez al gaitun gu ere ire alde naiko sayatu -Muskilda'k-; noizko utzi ditun bada, begiratu xamur oyek?

-Oi, amatxo nereal Nik beti xamur begiratu izan zaitut, eta ala begiratuko ere beti. Ez al du, bañan, Erko mutil jator onek begiratu on bat edo beste merezi? Ikusiko duzu nola begiratuko dion Xemein nere aitak, lanerako alboan dunean...

-Ala dun bai, Izartxo! -Xemein'ek-. Bere beso pizkorren bearra izango diñagun laister, Lizardi'n, biltzen ari naizen azi berexi ok danak ereintzen asten naize-nean.

-Orren xamur begiratzeko, kristau egin bearko duzu, aurretik, Xemein, -Urdiñe'k.

-Ala bearko, noski. Izartxo xaxtraka onek ez bait nau pakean utziko bestela...

-Xemein eta Muskilda ta Usoa ta Aritz eta danak... kristau dira biotzez, Urdiñe, batayoa bakarrik palta zaye... -Izartxo'k.

-Laister artuko dute batayoa ere, -Erko'k.

-Ez al dira, bada, zaarregi ere izango onaraño etortzeko..., -Urdiñe'k.

-Eta zergatik, Olearso'n bertan, batayatu ez?

-Nola?

-Geunik batayatuta...

-Bai...? Ez al da ortarako apaizen bearrik?

-Bear-bearrik ez. Obe bai... Apaizik ez dan lekutan, edozein kristauak batayatu lezake.

-Eta zergatik ez dituzu, onezkero, danak batayatu?

-Obe gertu bearrez.

-Ez al da, bañan, gauz motza ere izango, batayatuta gero, Mesa esan eta pekatuak barkatu lezazken apaizik gabe gelditzea...?

-Batayatu dan kristauak Jainkoa berriz ere iraindu al lezake, ba?, -Izartxo'k arrituta.

-Gauz motza da bai, apaizik gabe izate ori... Bat eskatu bear diogu gotzayari, -Erko'k.

-Ez dizute emango, kristau geyago ez ba-zerate, -Urdiñe'k.

-Geyago izaten sayatuko gera.

Maraguri-ale gorri ayek janaz, ala txutxuputxuka ari ziran bitartean, arдай aundi bat entzun zuten, goiko kale aldetik. Axarko, etxeko mutil gaztea altxatu, ta laisterka batean kale erdiratu, ta ojularien artean naasi zan, zer gertatzen zan jakin nairik.

Arin itzuli zan etxera, zuri-zuri eginda ta itz totelka.

-Zer da, zer da...?, galde egiten zioten danak.

-Zuen, -Erko'ri arriturik begiraturik- zuen mendietako artzayak guda-zantzoa jo dutela, ta onara Kala-gorri ontara eldu dirala, eriosuar eldu ere, bazter guziak ondatuz eta txetuz.

-Bai...? -oj u egin zun Erko'k-. Basurdi zital ori duk. Ai urde zikiña! Beste arteak uts jasorik, azkeneko arte dollor au, Ultzama'ko aren antzeko au, zabaldu al diguk? Ireak ikusi bearra aiz...!

Ta ori esan da, bereala Urko, erriko agintari nagusia joan zan su ta gar. Bere jauregian tarrapatan sartu, ta Kleto zeritzan «Centurion» edo gudari-buru batekin agiraka aurkitzen du Erko'k bere nagusia. Urko euskalduna izan arren, lateraz ari ziran biak; eta Erko ere izkuntza berean sartuz, asi zan urduri:

-Zer da au, jaunak! Ez dugu orain, agiraka asteko betarik...!

-Zer...! menditar oyen izenean, gu ondatzera eldu al aiz?, -Kleto'k.

-Ayen aurka lenbaitlen irtetzeko mutillen billa nator, Kleto.

-Nork zekik, ba, ayekin itz artuta, erriko giltzaren billa ez atorren i?

-Ni Basurdi'rekin itz artuta...!!!

-Zertara etorri aiz, ba, erri ontara, orain egun batzu...? Zer egin-bearrak dituk ik emen?...

-Zer arrayo ajola zaizkik iri, nire ango ta emengo eginbearrak?

-Nire buruaren ajola ta ardurea diat, bakarrik, Erko; eta ez diat gaizkille ta iruzurarien eskuetan ikusi nai.

-Ez dago Kalagorri, Kleto, gaizkin edo ta iruzurarien eskuetan. Nere ardurapean datza erri guzia, ni naiz bertako buru. Eta Erko'k artega jarri ba zaitu, jakin zazu, Izartxo'kin Luka'renean ezkontzeko etorri dala, bakarrik.

-Kristau ta menditar..., okerra baño okerrago. Ez al dira oyek gure etsairik okerrenak izan, orain arte?

-Etsai...?

-Bai... Orain illabete batzu, bi anai eldu zitzaizkidan Akitania'tiik onara, beste iru gizonen lagun. Ta goiko mendi oyetan il zituzten bostak batean...

-Mendi guzietan gordetzen dira gaizkilleak, eta ez da beti errax nun eta nortzuk diran jakitea.

-Alperrikako itzketan ari gera, Urko. Ekarri neri, agudo, guda-jantzi bat, ta deitu gazte pizkorrenak,
-Erko'k.

-Ni joango naiz neriekin. Zuriegi zerate euskaldunak, ez duzute, gañera, gudarien tankerarik ere, -Kleto'k.

-Guuu zuriegi...! Guk gudarien antzik ez...? Trajano Kaiser aundi arekin toki askotan ibillia nauk: eta Dacian, eta Asian, eta Mesopotamian, eta Persian... Baita ayetan milla erasoei zorionez buru eman ere. Argatik Kaiser'ek bere zai-gudarien buru egin niñukan, -Erko'k.

-Nere gain dago, Kleto, erri onen ardurea. Neri dagokit beraz, nor eta nortzuekin joateko agintzea, -Urko'k.

-Bi anayen ixuritako odola deitzen naute ni, -Kleto'k.

-Nere billa bakarrik dator Basurdi. Bi-biok bakarrik ikusi daigun, bada, gure arteko auzi zarra.

-Beren arteko auzia ba-dute, Kleto, alkar konpondu daitela beurek. Zoaz lasai etxera, Kleto. Erko'k egingo dio buru bere etsai Basurdi'ri, -Urko'k.

-Joango naiz, ba, ala agintzen ba-duzu, Urko, bañan ez lasai. Erne ta neriakin zai geldituko naiz, bada ezpada ere.

Urko'k gazte-sail ederra jarri zun Erko'ren agindupean, eta danak guda-soñekoz eta izkilloz ondo jantzi-rik, bereala irten ziran ipar-aldera.

XXXI

EZTABAIDA

Orratx kukuak berriz ere oker jo! Zer arrayo egin ote zuten Altzi ta Kostorbe ayek, Olearso'ko Batzar artan? Orren gaitz al zan, bada, Erko'ren aurka gauz biribil ayek esatea? Etzuten berea auzi ura, ta jakiña, motel eta beraxka jokau! Motel bakarrik ez...; baita oker ere. Erko ondatu bearrean, ez niñuten neroni ondatu, ba...! Ume baldar arrayoak...!!! Aaaa... ni an egon ba-nitz...!

Sei ardi galdu nitun sorgiñetxen, Txotxa sorgin txepetx aren eskuetan. Lau eman nizkien, alperrik, Altzi ta Kostorbe'ri. Ta orain, artalde osoa galdu... Ta auxen duk okerrena... Erko, Erko arrayo ori bizirik dagola, oraindik. Ez bizirik bakarrik. Orain bertan ezkontzen zaikala, nire Izartxo'rekin ezkontzen arrayopoletan, eta Kalagorri uri eder eta aundian alajañetan!

Eta nere etsayarik okerrenari, nere lepotik, orrela, adarra jotzen utziko al zioat, ba...? Ez nere egunetan; ez arrayoak ezpaitu!

Ala ziardun Basurdi'k bere buruakin, Olearso'tik iges, bere Mendaurko txabolara doi-doi iritxi zanean.

Etzegoan, bada, ala tamalka astirik galtzerik. Zerbait egin bearra zan, ezkontza ori galerazteko. Zer egin bada? Etzan ori gauz errexka. Asma ta asma, bañan, gogoratu zitzayon zerbait Basurdi'ri. Ona emen bere asmoa:

Kalagorri bertaraño joango zan, ezkontza ura eragozteko. Ortarako, Erriotza'raño, mendiz-mendi jetxiko zan, lagun askokin jetxiko; ez bait zuan Erko'rekin aurrez-aurre bakarrik, bere burua ikusi nai. Arrano, Mendaur'ko aitagoyari eskatuko zizkion lagun oyek; ez bañan, agiri-agirian mintzatuta, ez bait zizkion ala emango. Olearso'ren aurka joateko eskatuko zizkion, an Olearso artan sekulako bidegabekeriak egin, eta azkenean, artalde guzia ere kendu ziotela ta...

Joan zan, bada, Arrano'rengana, izerditan, arnas-estuka ta jantzi purrakatuekin.

-Zertan abil? Ire artaldearekin aspaldi irten da, orain eta planta ortan eldu al aiz? Zer jaso zaik?, -asi zitzayon agurea, aren itxuraz kupituta.

-Zer jaso zaidan? Ezagutzen zenun nere artaldea... Etzan alakorik Mendaur guzian. Ba..., orain dana galdua dago.

-Galdua...? Nun?

-Olearso'n.

-Ara joan al intzan, ba, negu astean? Akitania barna ebillela, uste nian, ba, nik.

-Bai, aurten Olearso'ra joan nintzan..., eztakit nik nungo sorgiñak eraginda

-Ez al akian, Olearso ta emengo arbasoak izan zuten guda latzgarria...?

-Oraingo beste oker onek ere merezi du ba bere zigorra!

-Zer jaso zaik ba? Asi adi esaten...

-Ea, nik eztakit nungo sorgin txarrak eraginda, nere ardiak ibar madarikatu ortara eramán nitun, aurten. Eta emen bezela, asi nintzan larratzen. Ala nebi-
llela, nere artaldea gutxitzen ikusi nizun. Egunetik-
egunera, ardi berrien palta sumatzen nizun. Arritze-
koa zala auxe; eta ala esan nion nere auzokoari. Eta
onek: ez nintzala ni ibar artakoa, ta ez nula, mendi
ayetan, nere ardiak larratzeko, iñungo eskubiderik...

-Ondo arritzekoa duk ori...!

-Ori bera esan nion nik berari: Euskalerrri osoko lur guzia euskaldun guziena zala, ta edonun ibilli zitezke-
la ardiak. Besteak bere artan jarraitu zizun, bañan,
Olearso olearsotarrena zala bakarrik; eta baldin nik

nere ardiak bertan eduki nai ba-nitu, ardi-lorra ordaindu bear niela ta...

-Ta ordaindu al ien...?

-Bearko ordaindu... anak arin niñuzun, bestela, andik laister...!

-Ta zer jaso zitzaikan, gero?

-Jarrai nizun bertan nere ardiekin, orain emen, orain or. Eta lengo gauz bera gertatu: gutxitzea zijoaz-tela nere ardiak...

-Eta nola ori?

-Sorgiñen tximista...! Ba noa erio-suar, lengo nere auzoko arenga... Ta agertzen diot nere zera berria... Ta besteak... ondo eginda dagola, bidez kendu dizki-datela ardi ayek, soro ta mendi berexietan ardiak ibilli nizkitzun ezker... jabe bakoitzari bere ardi-lorra ordaindu bear zayola ta... Ea ez al zan naikoa len emandako lorra ura, galdetu nik, eta ezetz, berak; ura lbarreko mendietan, eta ez etxeke-jaunen eremuetan ibiltzeko ordaña zala, bakarrik eta...

-Orrexegatik bakarrik, elkar eraso ziten, orain urte batzu, bi esku-alde oetako gizonak.

-Nere auzi au okerragoa da, ba, oraindik. Bidega-berik aundienetako zala, ba, neri egiten ari ziran ura,

ta bertako Batzarrera eraman nai izan nizun. Ta bai al dakizu zer egin zidaten?

-Zer?

-Makilka eraso. Ona emen, nere buru gañean era-soaren aztarna ta agiria. Ta nere ardi guziak, ondoren, ken.

-Bai ote?

-Emen, nagon bezelaxe.

-Gogorregia duk ori...!

-Eta ez al du egite makur orrek bere zigorra merezi...!

-Bai, noski, ta ez txikia.

-Orren billa nator, ba, Arrano.

-Zeren billa?

-Oyek, Olearso'ko giza makur oyek zigorkatzeko, baimenaren billa.

-Etziok ori nere esku, bañan.

-Zergatik ez?

-Nik emen agintzen diat, bakarrik. Ez duk Olearo'-raño irixten nere eskua.

-Berdin da... Zure agindupeko gauza eskatzera nator.

-Zer gauza da, ba, ori?

-Zure eskupeko mutil batzuk neri ematea, baka-
rrik!

-Zertarako?

-Zertarako izango ditut, bada...; gaizkille maltzur
oyek ondatzeko.

-Ezin diat, Basurdi. Ez dagokit ori neri...

-Utzi, ordun, nere gain. Ez du iñor jakingo nor
eraso dun.

-Dana jakiten duk, goiz ala berandu, Basurdi!

-Jakiten bada ere jakin, ni egingo naiz danen erru-
dun. Zure jakin-ezean egin dugula dana, esango dut.

-Berdin da, Basurdi. Erasoz oyek ez dute gauz onik
ekartzen iñori. Ondo gogoan ditut, oraindik, nere txiki-
tan, ikusitako sakailketak: gureak an, angoak emen
egin zituzten lapur, erre ta ilketa tamalgarriak.

-Eztute gu gareanik jakingo, ordea!

-Berdin da... jakingo da, goiz ala berandu.

-Zigorrik gabe geldituko dira, ordun, gaizkille
ayek? Eta artalderik gabe geldituko naiz ni?

-Aralar'ko mendian bizi da Euskaldun guzien aita-
goya Aitor agurgarriaren ondorengo Lartaun... Oa ber-
tara... Ta iritxi ona entzungo duk Lartaun'en ao egiza-
leetik.

XXXII

ARALAR'GO LARTAUN

Ezin zula, ba, Mendaur'en ezer ere iritxi, ta Aralar mendira abiatu zan gure Basurdi.

Euskaldunen mendi agurgarri au, Mendaur'etik ego-aldera egiten da. Ta bide ortatik barna doa arin baño ariñago. Ez bait du beta galtzerik.

Joandako udararen ostoz beterik ageri dira bide guziak. Eta Basurdi'k ra-ra orbeletan dagin otsak, basoaren ixilla urratzen dioa.

Zuri-zuri ageri dira pagoak, orbel gorrien gañetik. Eta tarteka-tarteka gorosti ta agin muskerrak beren potoko gorriekin.

Ta agertu da, azkenean, an begien aurrean Aralar'ko mendi-katea. Ez dira, oraindik, zearo joan neguko aztarna guziak. Elur-muillo luzeak nabaitzen bait dira, mendi-bizkar guzian, zaldi ezurtsu bateren sayetzaren antzera.

Argi berexi bat du zelayetan belar berriak. Eta mauka-mauka ari dira bertan millaka ardi-buru. Emengo artzaingoaren ederra! Berreun artalde bai, larratuko dira, goiko zabaldi zoragarri oyetan.

Ez du, bañan, Basurdi'k ingurutara begiratzeko betarik. Eta Lartaun'engana doa zuzen-zuzen, bideko artzayen agurrei asti aundirik eman gabe.

Huarte'ko mendi tontorrean zeukan Lartaun'ek bere txabola. Ta an bizi zan zoriontsu bere artzai ta sendiaz inguraturik. Eun urtetsuko agureak zuri zitun ille ta bizar luzeak. Eta berak jarraitzen zun, belaunez-belaun, Aitor'rengandik artutako ondare, izkutu ta agintea. Zaartuz zijoan gizagaxoa, Olearso'ko aritz zar ura bezela. Alboan zitun, bañan, bere seme gordin Lekobide ta billobatxo potoko Garo.

Ortzegunetan, inguruko artzai-buru guziak Lartaun'enean biltzen ziran, eta an ematen zuten egun osoa jan, edan, itz eta dantzetan. Bi jai ospatzen ziran berexiki, tontor artan, garagarrillako illargi-betetzea, ta Euskalerra osoko Batzar nagusi eguna.

Illargi izan zun izena Aitor'rek Uasko'kin ezkondu zun bere alaba zarrenak. Onengatik, eta baita illargiari zioten begirunegatik ere, egun au zuten, Euskaldunak, ospetsuena.

Egun ortarako, Euskalerra guzitik barra-barra zeterren mendi agurgarri ontara gaztedi guzia. Eta emengo orduko irrintzi, txixtu, kantu, jauzi ta dantzak!

Eta Euskalerrriaren biotz-biotzean dagon Aralar ontan ere egiten ziran Euskaldunen Batzar nagusiak.

Ibar edo esku-alde bakoitza bere buruaren jabe zan, eta bere Batzar berexiak zitun. Esku-alde bakoitzen arteko edo Euskalerra guziaren auziak ziranean, bañan, ayetako buru guziak onara, Aralar'go mendi ontara zetozen, bere aginte-makillakin.

Ortarako, Laredo'tik asi ta Jaka'rañoko mendi luze guzietan, su aundiak pizten ziran, Batzarrara danak deituz. Ala egin zan Keltak gurean agertu ziranean. Ala ere, Erromatarrek gure adixkidetasuna eskatu zutenean. Lartaun-egunetan ere bi aldiz bildu izan ziran danak Batzarrean, Erromatarren artu-emanak zirala ta...

Basurdi'ren auzi onek etzun Batzarrera deitzeko ainbesteko garrantzirik. Etzitzayon Basurdi'ri alakorik galdetzea ere komeni.

Ala, Lartaun agurtu, ta itz-zuritu ondoren, Basurdi bere auzia azaltzen asi zitzayon agure begikoari:

-Onu bateren billa nator, Lartaun agurgarri.

-Asi, ba, seme, prest nauk gauz guzietan laguntzeko ta...

-Guk Mendaur'en edonun larratzen ditugu gure artaldeak. Ez dago an nere ta zurerik. Gure txabolak

ez dute aterik. Edozein sartu liteke, utsik ikusitako txabol eta eskortetan ere. Eta au ere zala, deritzat neri, Lartaun, Euskaldun guzien aspaldiko oitura ta legea.

-Ala duk, seme.

-Nola, ba, ordun, Olearso'n itxi dituzte etxeko ateak, eta erriko lurretik bakoitzak bere zatia artu du?

-Aro bakoitzak eta leku bakoitzak, Basurdi, bere lege ta oitura dizkik. Euskaldun guziak eiztari ituan asieran, eta aron bizi ituan, leku jakiñik gabe, piztien atzetik beti. Piztiak ezi, ta artzai biurtu ituan gero. Eta ala giza-multzo bakoitzak bere leku jakin eta berexiak aukeratu zizkaten negu-udarako: Erronkaleko multzoak izen onen ibarra udarako ta Bardenas'ko zabaldiak negurako; guk mendi ok udarako, ta Naparroa negurako, ta abar.

-Ala dugu guk ere: Mendaur'en bizi gera udaran, ta Akitanian neguan.

-Bizikera-aldatze onek lege-aldatze bat ere ekarri zikan, seme. Multzo bakoitza, leku bakoitzan, bizi duk, arrezkeroz. Eta ez ditek besteak bere ardiak ara eramateko eskubiderik.

-Eta argatik zerbait ordaindu nai ba-dute?

-Ala bai. Ez bañan, bere eskubidez. Bi alderdikoak artara etorrita bakarrik.

-Orixe egin nizun, ba, nik, Olearso'n. Eta lorra aundiegia ordaindu-arren, nerekin gogor aserretu, ta artalde osoa kendu zidaten.

-Gogor zait ori siñistea, Basurdi. Aspaldi ezagun diat nik, Lizar, bertako Batzar-buru, eta ez duk bera, edozein aizeak makurazten dun zugaitz zingilla.

-Ardi-lorra Ibarrari ordaindu-arren, bertako eremu guzietan, nere ardiak larratzen, eragotzi zidan.

-Alaxe duk oraingo ango legea. Eize-aro ondoren, artzai-aroa etorri uan, bere lege berexiekin. Eta artzai-aro ondoren, nekazari-aroa ibar eta zabaldietan, bere lege berriekin. Lege oen araura, nekazari bakoitzak, berak landu zezaken, lur-zatirik artu zikan beretzat. Eta berak bakarrik agintzen dik an, arrezkeroz, eta ez Batzarrak...

-Egiak dira oik danak bai. Egia ere, Lizar gizon zintzoa dala. Ez dira an danak azal berekoak, orde, Lar-taun. Ba-dira gure-gureak ez diran lege ta oitura makurrak sartu dituzten gizon okerrak ere...

-Zer diok, Basurdi?

-Bai, Lartaun, bai! Eta gure lege ta oitura agurgarriak ukatzen dituzten gizon oker oyek ondatu didate nene artaldea, ta bizia ere iya kendu.

-Zer ukatzen ditek gizon oyek, Basurdi?

-Ba, gure siñiste guziak gezurak dirala ta, ez dagoela sorgiñik eta...

-Eta nola ditek izena?

-Kristauak...!

-Kristauak...? Ona, ona nere Lekobide, ona nere Garo...!

Orduko zerua illuntzen eta izarrez betetzen asia, ta ara begira jarri nai du Euskaldunen aitagoi Lartaun'ek.

Zergatik, bañan, jarri ote da orren urduri?

Zergatik deitu ote ditu, albora, bere belauneko kutunak?

Arbasoen izkutu aundiren batek daduka, nunbait!

«Ona, ona nere kutunak! I, emen, Lekobide: ta i, emen nere Garo. Ortzi zabala ikusi nai dut. Zabaldu, zabaldu nere begi nekatu ok. Gabero ortzira begira indarra galdu, ta betazalak itxi ere bait zaizkie... Ola, ola, enetxoak...

«Ene...! ene...! Zer ikusten dute nere begiok? Ara, ara, or dago izar berexia, or dago bai aitasoak agindu,

ta nere bizi guzian, noiz ikusiko, begira ta begira egon
naizen izar arrigarria, gure Izartxo maitea... Egizkoa
zan zantzua bai. Enetxoak...! jayo da Kisti...! Ba-dator
gure Gaizkatzallea...! Galdu da sorgiñen begia...!
Galdu gaizkillearen eskua...!

XXXIII

BERRI-ONA

Gau sorgintsua zirudin, Basurdi Lartaun'enean azaldu zan gau arek, Olentzero gaba aren antzera, Txitxi-burruntzi gaba aren antzera.

Sortaldeko illargiaren adarrak mendi-tontorren isla beltzak ager-erazten zitun. Ego-aize epelak jotzen zun. Eta noiz edo noiz, Izartxo ametsetan jartzen zun, «Kli-klo» ezti ura entzuten zan beresietan. Eta an beko artzayen alkar arteko solasa:

-I,... ta zer arrayo ote zekarren Basurdi orrek?

Alako batean, oju luze bat entzuten da, ixil-illun artan, eta mendi-tontorreko arri kotor zaarrak jorik, Aralar'ko oyartzunak irazartzen ditu.

Bereala, eztarri berriek, mendirik-mendi ta ibarrik-ibar, luzatzen dute, ego-aizearen egaletan, Lartaun'en irrintzi ezaguna.

Ba-zirudin arbasoak, bere aspaldiko lozorrotik esnatuta, kanta zaarrak ematen asi zirala, mendi-isla ayetan jeikirik.

Irten dira bere txaboletik artzai guziak, bere maki-llak eskuetan, deadarka:

-Zer da au...? Nork deitzen gaitu...? Zer nai digute...?

Eta Aralar'ko su aundiari begira:

-Berri aundi bat diau, iñolaz ere... Ona ala txarra, bañan...? Nork igarri...! Ba du onek, bear bada, Basurdi'rekin zer ikusirik... Zerbait berexi ta premiazkoa zekarren, gaur onara zetorreanean. Nola bestela, gure aurretik, orren arin eta jaramonik egin gabe, igaro...? Arduratsu ta illunkerako betartea zizuen... Berri txarren bat ote zun...? Etsai berrien sakailketaren bat, agian...? Zergatik, bañan, orain artega jarri...! Biar dana ikusiko...

Urrengo goizean, mendiko bide-txigor guziak artzayez beterik ageri ziran. Aralar mendi kateko artzai jaun zarrak ziran. Lartaun'enera iritxi ta:

-Zure deya entzun dugu, jauna, ta emen gaituzudanak.

-Bai, gauz aundi bat nizuen azaldu bearra, jaunak.

-Zer... Berri gaiztoren bat...?

-Ez, ez. Ez al dira berri guziak beti gaiztoak izango. Gaurko au, berri zoriontsu bat duzute...!

-Zer da, bada, Lartaun?

-Entzun, jaunak...

Eta ardi-larruetan exeririk eta bere makillak eskuetan, aitagoi agurgarriari begira jarri ziran danak.

-Sarri mintzatu nauzute, jaunak, Aitor'ek, bere txabol ontako, ondorengo oki utzi zigun ondare, elezar eta izkutuaz. Bart, izkutu oyen kateko azken ale, ta alerik eder eta buruena agertu zait, jaunak. Ta zuei bereala azaldu nairik, batu zaituztet emen, jaunak. Azken ale eder eta buruko au, bat-batean erakutsi baño len, utzi bezaidazute kate osoa azaltzen...

Eta artzai jaun guziek, etzegoela gaur eztabaidarako biderik, eta gauz aundiak zitula Lartaun'ek azaltzeko ta, bi belarriak luze-luze, txintik atera gabe azkeneraño entzuteko, prest jarri ziran.

«Aitor -asi zan Lartaun aundikiro-, Aitor, gizon aundi, eder eta agurgarria... eiztari purrukatua zan.

Eta, bera bizi zan Atlantida, ugarte eder artan, ezin zezakeala gauz aundirik eizatu ta, larruz eginda-ko txalupa batean sarturik, sei gazteen arraunen indarrez onara, Euskalerra etorri zan.

Bei, bisonte, zaldi, basurdi: Atlantida'n iñoiz ikusi gabeko pizti ederrak zitun emen eizi-gai. Danak eiztari onak ziran. Iñor ez bañan, Aitor añaikorik. Orregatik, bera zan danen buru.

Aitor'ek sei alaba zitun, seirak ederrak. Eta bere sei alaba eder ayek, bere sei eiztari yayoekin ezkondu zitun. Eta gero, Atlantida eder ura betiko utziz, onara bizitzera etorri zan bere ayekin.

Aralar'go gain ok artu zitun Aitor'ek bere etxaldezako, bere sui Uasko ta alaba Illargi'ren lagun. Eta beste bost suyak, baste bost bazterretan zabaldu ziran: Bardul Gipuzkoa'n, Karisti Biskai'an, Autrigon Araba'n, Lapur Akitani'n, Xubero Tardets'en.

Aitor'ren alabak seme asko izan zituzten. Eta Aitor'en billoba ok jantzi zituzten Euskalerriko ibar eta esku-alde geyenak. Uasko'ren semerik ospetsuenak: Napar, Erronkal, Baztan, Olearso, Aragon, Erriotza...

Urre-aroa zan, orduan. Eta anai zitun gizonak abere guziak. Eta zugaitzak bere gisara zetozen etxera. Eta ezti ta esnezko ibayak ageri ziran zelayetan. Aldapa gabeko zelai ederra zan lurralde guzia. Eta bertako landare guziak iztun ziran. Landare guziak iztun, enborretan jayotzen dan goroldio, belar kaxkar ori izan ezik. Mari'k, beñola, gaiztetsi bait-zuan...

Eta ala, zelaiz-zelai, egurastu orde, zijoan Laño, jaun Eguzki ta andre Itxaso'ren alaba politari, lore guziak, burua makurturik, agurtzen zioten.

Eta larrosak: Agur Lañotxo, ziotsan, nora zoaz polita, buruko adats ugari orrekin. Nai al duzu nere ostotxo gorrien soñekoa?

-Bai, enetxo, bai. Eta Lañotxo, larrosa gorriaz, jantzi zan goitik bera.

Eta ubel-liliak:

-Agur, Lañotxo. Nora zoaz polita, larrosa gorriz jantzirik? Nai al duzu nere kolkoko lurriña?

-Bai, enetxo, bai. Eta ubel-lilien lurriñaz betetzen du kolkoa Lañotxo'k.

Eta sagar-loreak:

-Agur, Lañotxo. Nora zoaz, polita, orren ondo jantzirik eta lurrin gozo orrekin? Nai al duzu nere lorien zuri-gorria?

-Bai, enetxo, bai. Eta sagar-lore zuri-gorritz jazten ditu Lañotxo'k bere masail beteak.

Ibilli ta ibiliz nekatuta, goroldio biguñen gañean exeri zan Lañotxo, atsedeen bidez. Eta goroldio apala Lañotxo'ren azpian ixillik zapal-zapal egin zan. Eta atsedeen pixka bat artu zunean, goroldioari begiratuta, Lañotxo'k:

-Goroldio gaxo ori, zapaldu egin aunat... eta ik, gaxo orrek, ez dun txintik ere atera. Miñik artu al dun, esan?

Eta goroldiok tutik ere ez.

-A gaxo ori, ez din iñork izketan erakutsi? Nik era-kutsiko diñat, ba. Ara, ni emendik igarotzean, au esan bear didan:

Agur, Lañotxo, nora zoaz, polita, larrosaz jantzirik, lurrin goxokin eta sagar-lorezko musu eder orrekin? Nai al duzu nere oe onen gañean apatx atsedan ?

Eta goroldioak, iñoiz ez eta, ara or nun asten zai-zuen izketan:

-Agur, Lañotxo, nora zoaz, polita, larrosaz jantzi-rik, lurrin goxokin eta sagar-lorezko musu eder orre-kin? Nai al duzu, nere oe onen gañean, apatx atse-den?

-Ola, ola, goroldio. Ola esan bear dun, ni ikusten naun guzietan.

Eta Lañoa aurrera joan zan. Eta idoro izan zitun guziei, goroldioaz gertaturikoa esaten zien.

Batzuei on iritxi zitzayen, eta bestei gaizki Laño'-ren egite au. Mari'ri, batez ere, iritxi zitzayon gaizki, Laño'-ren goroldioari izketan erakustearen esku luze ori...; eta aserrez beterik, Laño'-ren okerra gogor zigor-katzea erabaki zun.

Mari'k, bere bigarren seme Odei gaizto, giltzapean lotu ta gorderik zeukan, ordurarte (urre-aro bait zan).

Eta Eguzki, bere seme ona, zegarren bakarrik, gure ortzi ederrean.

Itsaso zabalez maitemindua bizi zan Eguzki. Eta muxu ta muxu beti, itsas-kolkoko ur urdiñak laño mee biurtzen zitun. Eta ok, muxuaren beroa galtzen zijoaz-tenean, euri-tanta gozoetan lurrera ixuritzen zitun.

Eta, or joaten ziran, gero, eroxko aski, xaltoka, kantaka ta irri-karkaraz, iturritik gora, mendi egaletik bera.

Ta zelayetan ta muñoetan kiri ta kiñu ari ziran Eguzki'ri, belar, lore ta landare guzietatik, kiri ta kiñu Eguzki'ri beti...

Laño'ren egite makur ura ezkeroztik; bañan, dana aldatuta gelditu zan. Jaun Eguzki ederra gorde-erazi, ta Odei okerra, zeukan giltzapetik atera ta, mundu ontara bota zizuen Mari aserrekoyak.

Ori izan zan Mari'ren zigorra. Nolako zigorra ordea! Aize zakar bat agertu bai, ta beltz, oso beltz biurtzen dizue lenengo Laño polit ura... Beltztu, loditu, gaiztotu, amorrus bete... Ta amorrus artan, alkar joka jartzen dizkitzue odei guziek, trumoi lazgarrietan, eta tximist ikaragarrietan.

Eta goiko tximist-arrien kaxkak beko abere ta gizonak suntsitu zituzten, eta goiko tximist-adarren suak beko bazter politak erre.

Gero, Odeitzarrak bere barren beltzak zabaldu bai, ta, lengo euri-tanta gozoen orde, ugolde gaitzak bidali zitun gure lur madarikatu ontara. Eta ugolde onek eraman zitun itsasora, lengo arriak eta suak oraindik tente utzitako gauz guziak.

Eta lur guzia ondatuta utzi zizuen, artezitura, eba-kita, sakonduta..., lengo zelai ta ordeka guziak, mendi ta ibar, zulo ta tontor biurtuta utzi zizuen.

Etzuten, ala ere, danak zigor berdiña artu... Laño'-ren sendi guzia betiko galdu zan. Laño'-ren egitea on-iritxi zutenak, Urre-aroa galdu, ta mundu erkitu ta sor-gindu ontan gelditu ziran. Eta Laño'-ri jaramonik egin ez, eta aren egitea gaitzetsi zutenak, lur erkitu ontan ezin zirala bizi, ta bere urre ta abereski guziekin, lur-peko zuloetan sartu ziran.

Maitagarri ta Jentillak dira ok. Txurumurru'ko ta zuloetan bizi diranak. Indar ta aal aundiko Jentil ok egin zituzten zulo aundi oik. Eta gero, idi-larruetan emengo urre, landare ta gauz on guziak bertara aldatu. Ta an bizi dira arrezkero, barruko jauregi ayetan, an bizi dira bere andereño Maitagarriekin.

Ez giñan gu betiko galduak geratu ordea! Aitor'en belauneko eta nere aurreko Egu'ri berri on bat eman zion Mari'k. Gaizkatzalle aundi bat jayoko zitzaigula: Kisti. Eta izar bat izango zala Kisti onen zantzua. Adar luze ta argi berexizko izar aundi bat.

Eta ala, ludi guzia sorginduta ta gaiztotuta gelditu bai-zitzaigun, Laño'ren egite ura ezkeroztik ere, ortzia argi ta on agertu zaigu beti. Eta ara begira eman dituzte ordurik geyenak, Aitor'en belauneko guziak, izar berexi ura noiz ikusiko.

Ara begira ere nik ortzkarbiko gau guziak, nere urte luze oetan. Alik eta nere begi oen argia iya galdu artio. Ala, atzo illunarrean, Mendaur'ko artzai, Basurdi ori, Kisto'ren berriekin agertu zitzaidan.

-Bai ote...? Esan nun nere kolkorako. Nik aren zantzuzko izar ura oraindik ikusi ez eta..., Kisti jayo dala...?

Atera nintzan ba, atadi zabalera. Ta ortzi ederrera begira jarri. Ezin nizkitzuten, bañan, nere begi nekatu ok ondo zabaldu. Eta nere alboko Lekobide ta Garo'ei:

-Zuek zerbait ikusten al duzute?

-Zer ikusi?

-Or ortzian, adar luze ta argi berexizko izar aundi bat ..!

-Aaa bai, aita bai...! Ara nun dan, an illargiaren ondoan...!

-Or da, ordun...? Ona, ona, nere semetxuok! Zabaldu, zabaldu ondo, nere erdi itxitako begi ok. Ola, ola. Nun esan duzute?

-An, aita, an. Begira an, Illargiaren ondora.

-Aaa... bai, bai... Ikusten dut, ikusten... ikusten...!

Bai, jaunak, bai. Aspaldi agindutako, izar berexi ori ikusi dizutet bart. Adu onak gauzka. Aro berri bat asi dugu gaur. Poztu zaitezte danok nerekin.

XXXIV

BASURDI'REN ERASOA

«Nun da Basurdi? Nora joan da? Areri galdetu bear dizkiau berri geyago, -asi ziran artzai guziak. Nun jayo, nun eta zer dabillen gure Gaizkatzalle Kisti jakin bear diau, len bait len. Nun da bera. Nork ikusi du?». »

Bai ...! Orren begira zegoan Basurdi...! Mutiko ona zan bera, bere asmoak orrela bertan bera utzi al iza-teko...! Eta lanak, bere lanak egiñak zitun, artzai zarrak berataz oartu ziren orduko...!

Zer lan...?

Orbel artean gaba emanda, goiznabarrean, artzai zar guziak Lartaun'enera abiatu ziranean, Basurdi'k al zitun Aralar'ko artzai gazte guziak batuta, sekulako itzaldia egin zien:

Arin jokatu bear zala arazo artan, Batzarreko zarren begira egun luzean egon gabe. Ta Erriotza'tik zetorrela arriskua. Berari an artalde guzia kendu zio-tela, baita bizia ere iya-iya. Eta ori bera egiteko asmoa zutela, Aralar'ko artzai guziekin ere. Artarako itzartu-ta ta gertaketan ikusi zitula berak arextixe. Eta ori mendi agurgarri ayetan iñundik ere gerta ta ikusi

etzedin, bera, orain artzai gazte bulartsu guzien billa zetorrela; ara, Erriotza'ra joan da, bertako giza galgarrri ayek ondatzeko. Eta zañetan odol gorririk, oraindik, zuten guziak berari jarraitzeko. Etzala ere, etsaya ondo zigorkatu ondoren, txantxetakoa izango an, ordañez, artuko zituzten abereskiak.

Berotu al izan zitun, azkenez, Basurdi'k, eta egun berean irten zan ayekin, beko zabaldiruntz.

Jetxi ziran Aralar'dik Sakana deritzan ibarrera, ta Urbasa mendi luzeera igo, gero, Lizarraga mendi-lepotik barna.

Izarra, erri politaren aurretik igarotzean, etziotela artaldea bakarrik lapurtu, esaten asi zitzayen Basurdi. Ba-zala ori baño tamalgarriagorik. Gazte maite-mindu batentzat iraingarriena dana, bere gaya Izarra ere kendu egin ziotela. Ta artzai gazte bateren lepotik adarra jotzea zer dan, erakutsi bear zayela giza ustel ayei, ondo erakutsi ere.

Joar menditik, Toloño'ko mendietan sartu ziran, gero; ta aren gañetik, Ibero ibayaren aurrez-aurre berantza jarrai. Andik, agertzen asi ziran etxeak eta erri aziak. Eta era berean ere, artzayei begiak argitzen asi zitzayen.

Ekin zioten, ba, irrintzi ta santzoka, ta une berean, erri ayen gañera jauzi nai izan zuten danak. Etzala orren erraxa, alegia, artzayen lepotik parre egitea ta...

Eta ura eragotzi nairik, Basurdi'k:

-Ez gera, oraindik Kalagorri'ra iritxi, mutillak! Ta danak dakizute ura dala gure egitearen jo-muga. Artara, mendiz-mendi gorderik eta ixillik iritxi, ta gabaren beltz-beltzenean, errira bat-batean jauzi, ta nere Izartxo ori eskutik artuta, berakin mendira berriz igesi etorri... au diau, mutillak gure iski ta eginbear aundiena...

-Etziguk guri -erantzun zioten artzayak-, Izartxo'-renik ajolik. Erriotza'ko erri ok ondatu ta bertako abereskiak eramatera etorri gaituk gu, Basurdi.

-Ederki...! Baita oyek ere; len aitatzea aantzi zitzaikan. An aurrerago erri aundi ta ederragoak dizkiau, ordea! Utzi, ba, bertako erri txiki ta zirtzil ok, ta goazen aurrera...!

-Txikiak eta aundiak danak arrontean txikitu bear dizkiau, Basurdi.

-Ezin egin izango diau ori, mutillak! Laister iritxiko bait zan eraso onen ardaya aurreko erri aundi oyetara.

-Ta irixten ba da ere, guri zer...?

-Kalagorri ori erri aundia duk, gero! Eta gu emen guda-zantzoka gabiltzala jakiten ba-ditek, laister igorriko zizkigutek iñungo guda-osteak, eta ordun...!

-Bai... bai. Ik Izartxo'na ori duk buruan, ta orrek bakarrik dadukak.

-Dana, dana... irixteko mugona izango diau, mutillak, eta Izartxo'na eta baita beste guziak ere.

-Bai..., nun?

-An, aurreko erriak aundi ta ederragoak dituzue, mutillak. Urre asko ere gordetzen dute beren kutxa aundietan,... eta ango kupeletako ardoa, mutillak...! Ara, ara joan bear diau...!

-Goazen, ba, aurrera...!

Laister etorri zitzayen bigarren gaba, ta an bertan, mendiko orbeletan eman zuten gaba, lo bete-betean; urrengo egunean eroriko zirala Kalagorri ko erri ederraren gañera ta...

Urrengo goizean altxatu, ta bideann jarri ziran berriz, iñungoen alai. Bi ordu eginda, erri aunditxo bat ikusi zuten, mendiaren oñetan.

-Eup...! Bertara, mutillak! Or topauko dizkiau billa gabiltzan urreki ta ardo gozoa, -asi ziran artzai guziak...

-Or ez, -Basurdi'k-. Pixkat aurrerago dago Kalagorri.

-Berdin da orrara joan. Nere eztarria legortuz zijoak bai... eta busti-alditxo bat eman bear zioat.

-Bai, bai... -esan zuten danak-, goazen bertara.

Eta mendiz bera abiatu ziran danak. Bere bidean, Basurdi ere eramanik...

Ixillik joateko esaten zien Basurdi'k; bein da berriz esaten... Artzayak, bañan, gero ta zalaparta ta irrintzi aundiagoak ateratzen zituzten.

Errira jetxi ziranean, etzuten iñor ere topau, danak Kalagorri aldera iges egiñak ziran, ayen ojuak entzun zituztenetik.

Eta ori ikustez goibel eta aserre, Basurdi'k:

-Aurrera, mutillak! Iges ziaztek, gure aurretik, danak eta...! Goazen aurrera, ta txautu ditzagun danak, bidean, Kalagorri'ra irixtera al izan baño len.

-Bein onara ezkerro, ikus dezagun erria, ta jaso bertako urrea.

-Bertako urrea? Alperrik zebiltzate aren billa! Iges-leak berekin zeramatek eta.

-Bai...? Izartxo duk ik, bai, ire urre guzia. Ta artan bakarrik ari aiz i ametsetan. Beste ok ere bear diau zerbait...!

-Baldin eta urre orren billa ba-zabiltzate, etorri nerekin, etorri bai; eta abiatu gaitezen bereala iges dijoazten oyen atzetik.

-Ez, ez. Ikusi dezagun erria, aurretik. Eta bertan urrerik ez ba-dugu arki, joango gaituk aurrera. Ta ez bildur izan, Basurdi. Laister iritxiko dizkiau, aurrean dijoazten, bildurti oyek.

Eta ala errian sartu ziran danak, tarrapatan. Etzun ez Basurdi'k egia esan. Bertan dana utzirik joan ziran errikoak iges. Eta ango etxeak, mutillak, ango zillarrrezko ontziak, ango urrezko bitxiak...!

Soto illunetan ere sartu, ta ardo-kupelak arki zitun batek; eta bereala ojuka asi zan: ardoa, ardoa, mutillak...!

Au entzutean, danak bertara oldartu ziran. Eta beren ezpatakin kupelak zulaturik, bertatik edaten asi ziran.

«Ardoa, ardoa» aren ojua sumatu zunean, joan zitzaizkion Basurdi'ri ere barruko kezka guziak, eta an agertu zan bera ere, besteak bezin zalapartari; Arizti-buru'enean edandako mama goxo ura bait zun gogotan, eta bidean bota zitun izerdi-tantak aundiagotzen zijoakioten barruko bere irrika ura...!

Etzun, bañan, besteen ondoan jarrita, bere txandaren zai egoteko astirik, eta kupel-gañera igorik, ango atetxo ura zabaldu, ta bertan auzpezka jarririk, zanga-zanga, ito-bearrean, edan da edan gelditu zan.

XXXV

ZORIONEKO AZKENA

Artzayak sakaildutako errikoak ziran Kalagorri'ra ojuka iritxi ziran korrikalariak. Eta laguntza eskaka karraxika ziarduten oraindik, zein erdian, Erko nagusiaren etxera sartu zanean. Erko'ren guda-ostea ikusi zutenean, bañan, baretzen asi zitzaizuten barruko estutasuna; eta batzuek ezpatakin eta besteak makillakin, aren gidari joateko prestatu ziran gizonezko guziak.

Gaba zan, da ixillik eta arin zijoazten danak, etsaya lenbaitlen aurkitzeko gogoakin.

Noiz-nai bidean Basurdi aurkitu uste zun Erko'k. Eta ala joan da joan, ez arkitzean, artegatzen asi zan mutilla. Bide artatik etorri bear bait-zun berak, eta gaba artan gañera, bere asmoak zuzen irtetzea nai ba-zitun.

Eta zergatik etzun, oraindik, topau ba? Beste bide batetik ote zetorren? Aurreko mendi aren gañetik, agian? Ea bera Kalagorri utzita, etsayen billa zebillen bitartean, ura sartu ez ote zan ixilka bertara...! Illargi gabeko gaba artan ikusi ere, etzan ezer ikusten da.

Xaldizko batzu igorri zitun lau aldetara, mendi ta zabaldi guzia aztertzeraz, eta beste batzu Kalagorri'ra-ko bidean jarri, ango berrien aiduru.

Joan da joan, eguna argitzen asi zitzayen, iñor bidean ikusi gabe. Eta lenengo argi-leiñuruetan beren erria ikusten asi ziran, an urruti, Erko'ren gidariak. Ez dituzte, ez, etxeak erre, zioten posez beterik. Baldin bada bertan dagozte oraindik, jan da edan. Alaituz ere zijoan Erko, baldin eta aurrera joanak ba-ziran, erria aurretik kixkalia izango bait zuten.

Erne ibilli bearra zan, ba, etsaya oraindik bertan ba zegon, ayen gañera itxupustuan jauzi, ta Basurdi bertan bizirik arturik, erriko agintearengana eramate-ko; ez bait zan egoki anayen odola alperrik ixuritzea.

Ba dijoazte, ba, al bait ixillik eta gorderik, ondora-tzen. Ez dator erritik iñungo soñurik, ez eta bizi-aztar-narik. Inguratzen dute poliki-poliki erri guzia. Eta bar-nera sartzen da Erko, bere mutil bulartsuaz inguratu-rik.

Ba-doa, kontuz, kalez-kale..., ta iñor ez. Zer da au? Ateak zabalik dituzte etxe guziak..., iruzurren bat ote? Sartu barnera, len baño kontu aundiagokin..., ta an ere iñor ez! Iñor ez eta bertako tresna guziak azpikoz gora boteak. Jetxi, gero, sotoetara..., ta ene! bor-

borka dariote ardoa, ezpataz zulatutako, kupel aundiak eta.

Zer da au? Zer jaso da emen? Nora joan ote da Basurdi dollor ura, erri guzia sakaildu ondoren?

* * *

Nora...? Kupelaren gañean, zanga-zanga edaten utzi dugu len gure Basurdi, eta bere antzera ere edan da edan zerraikien, iya txanda ezin arturik, bertako artzai guziak. Eta danak bapo egin zutenean, arki al izan zituzten urre-ontziak artu, ta: orain zer, orain zer? -ojuka asi ziran.

-I..., nun duk Basurdi?

-Basurdi...? Etzekiat, mutil.

-Nork ikusi dik, azkenekoz?

-Nik, emen gure ondoan, txandaren zai, ikusi ezkeroztik, ez diat geyagorik arenik jakin...

-Bere Izartxo aren billa joana izango duk?

-Um...! Gizon maltzurren antza zin orrek... Ni sartuta natxeon, aspaldi.

-Alakoren itxura zeukan, bai. Eta ez al zeukan altxorren bat emen nunbait topauko, ta bere arekin emendik alde egiña izango?

-Alakoren bat bai... Ez duk iñun ageri ta...

-Eta zer egin orain? Nora jo? Ez gaituk emen ziur. Ba-liteke etsaya laister batu, ta onara gure aurka etortzea. Ez diau, gañera, ezer egiterik emen. Eta ez al duk Basurdi madarikatu ori, guri iruzur aundiren bat, asmatzen, nunbait, ibilliko?

-Ala duk bai. Artu ditzagun, ba, bertako aberaskirik ederrenak, eta abiatu gaitezen berriz ere, gure mendietara. Artan al zaudete danak?

-Bai... Itzuli gaitezen gure mendietara, bai.

Eta ala, danak bapo jan da edan ondoren, berriz mendira artu zuten, iñungo besteri oartu gaberik.

* * *

Etxe guzietan begiratzuz zijoan Erko, ea zerbaite-
ren aztarnik arki ote zezakean. Ala, gañeko atetxo
zabalik zeukan kupel bat ikusi zun. Erdi utsik zegoan
kupela, erditik gora guzian, ezpataz egindako, zuloz
beterik bait-zegon.

Ura ere arritzekoa zan ba. Bertako kupel guziak
itxirik, zergatik zabalik ote zegon ura? Bertako errita-
rrak deitu... ta bayetz, itxirik utzi zutela kupel ura,
beste guziak bezela. Zerbaite-
ren susmo txarra artu

zizun, ordun, Erko'k, eta kupela alderoka asi zun, beste mutil batzuen lagun.

Zerbait mugitzen zan barrenean, eta ots berexi bat ateratzen zun. Igo zan, ba, gañera, ta argi-zuzi bat luzatu zun barnera... Eta bai...! Berak uste izan zuna: gizon bat zetzan bertan, ardo-zopa biurtuta...!

Artu aizkora bat, eta dinbi-danba kupel guzia txetu..., oratu gizonari ille-muturretik... eta arpegiraño altxaturik...:

-Ene mutillak...! Basurdi ber-bera duk eta...!

* * *

Basurdi edaten ari zan kupel arek txorrotena asko izaki, ardoa gutxitzen gutxitzen ari zan larriki. Eta etzula ala, Basurdi'k, bere buru guzia zuloan sartuta ere, ixurkirik ezpañekin ikuitzerik al, ta anka bat jasorik, aurrerako ekiña egin zun, bi besoetaz lagundurik. Ekin bixixkoegia egin zizula, edo ta ardoak besoetako indar guzia auldu zizkiola, edo ta... nik eztakit zer zala, bañan, kupel barnera erori zan bai beintzat; eta an egin zun gajoak azken gaizto.

* * *

Etzan Erko, illunar arte, Izartxo'enean agertu. Au, bitartean, otoitz eta otoitz egona zan, egun guzian. Eta Jaunari Erko'ren alde biotzez eskatu bitartean, bere batayo ta ezkontzarako soñeko zuria josten ari zan, bere esku xalo ayekin.

Erko etxean sartu zanean, Izartxo alkitik altxa, ta estu ta bero laztandu zun luzaro. Eta maitezko ixil-aldi alaya ondoren: -Erko, Erko...! Eta nola izan da ori? -galdezka asi zitzayon.

Erko'k guk dakiguna esan da, jarraitu zun:

-Bidekoaz nekatuta ta jasotakoaz artega etorri-arren, elizara joan izan nai dut, Izartxo, onara baño len. Eta andik nator orain. Gaur ostegun saindu baita, ez nun egun au, Jauna artu gabe ta berari eskerrik beroenak eman gabe, galtzea nai.

-Begira, ona emen, Erko, batayo ta ezkontzarako jantzi txuria... zer... atsegin al zaik?

-Bai, polita dun oso, Izartxo. Gure zorionerako ordain larriegi dala deritzat, bañan, neri, Basurdi'ren zoritxarrezko azken ori...!

-Bai?

-Bai. Elizan, Izartxo, agerian pekatu egin zutela ta, errauts eta soñeko zabarraz jantzirik, eliz-atadian,

garizuma guzian bere damua agertuz egon diran guzi ayek, gotzayak beregana deitu dizkin bai, eta maitez besarkatu ondoren, Jaunaren mayera eraman dizkin, gero. Eta au ikustean, Izartxo, gauz bat etorri zaidan burura: Zergatik ez ote zegoan, ayen artean, gure Basurdi ere.

-Nola egon zitekean, ba?

-Kupel artan bizia galdu baño, askoz ohea zala noski, andik bizirik atera, ta igesi joan ba-litz. Gero, iñoiz damututa, pekatari ayek bezela garbitu ondoren, egindako guzien barkamena iritxi zezakean da.

-A...! Bai... Eta ez al da erru guzia nerea izango, Erko...?

-Irea, Izartxo?

-Nerea, bai...!

-Zer egin dUn ba, ik, sorgiña...?

-Nik..., nik Satan'i elizan uko egin nionean, Basurdi ere ukatu ta ezeztu nikala, biotz barnean.

-Orrek ez din deus esan nai, neska...!

-Bai, bai... Nere jantzi zuri au ere, len baño illunago ikusten diat nik orain, Erko...!

-Nik len baño zuri ta ederragoa ikusten diñat ba, Izartxo...! Nai al dun aurreko sagar-guda ura berritu, nork irabazi ikusteko?

-Ago ixllik, ergela...! Esagun «Aita gure» bat bederen, Basurdi, gaxoaren alde. Jaunak barkatu ta bere maitezko altzoan artu dezan.

-Ongi dion, sorgiña...! Egigun, egin otoitz, Basurdi gaxo orRen alde: «...Aita gurea, zeruetan zaude-na....».

AMAYA